TicketBAI nahitaez bete beharrekoa izango da zerga egoitza Araban duten, jarduera ekonomiko bat egiten duten eta errentak eratxikitzeke araubidearen menpe dituzten entitateentzat. Betebehar hori nahitaez bete beharrekoa da, edozein delarik ere entitate horietako kideen zerga egoitza.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

2.7 VENDING JARDUERA TICKETBAI SISTEMARI LOTZEN ZAIO? VENDING MAKINA EZ-ARRERATUAK EGOKITU BEHARKO DIRA? VENDING MAKINAK SALTZEN DITUZTEN ENPRESA GUZTIEK ESKATU BEHAR DUTE TICKETBAI SISTEMATIK SALBUESTEA EDO, BESTELA, GAUR EGUN FAKTURA JAULKITZETIK SALBUETSITA DAUDENAK BEREZ SALBUETSITA DAUDE TICKETBAI SISTEMATIK?

TicketBAI betebeharrari lotuta daude *vending* sektorean jarduten duten zergapekoak, eta makinak araudira egokitu beharko dira, edo, bestela, egokitu ezin direnak ordeztu.

Hala ere, hala badagokio, betebehar hori betetzetik salbuesteko baimena eskatu ahal izango dute, aldi baterako bada ere, betebehar hori betetzeko dagoen arazo zehatza azalduta.

Foru ogasunak emandako baimenen baten ondorioz, faktura jaulkitzetik salbuetsita badago, horrek ez du esan nahi TicketBAI sistematik kanpo dagoenik.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)



2.8 ENPRESAZ ENPRESAKO FAKTURAK EDO B2B FAKTURAK ERE TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ JAULKI BEHAR DIRA EDO, BESTELA, AZKEN KONTSUMITZAILE EDO B2C MOTAKO FAKTURENTZAT DA SOILIK?

TicketBAI sistema ezartzeko betebeharra sortzen da egiten diren ondasun emateen eta zerbitzu prestazioenen zioz egiten diren faktura edo egiaztagiri guztiak direla eta, hartzailea beste enpresa edo profesional bat (B2B) edo azken kontsumitzaile bat (B2C) den kontuan hartu gabe. Beraz, bieie eragiten die.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

2.9 KALEZ KALEKO SALMENTAN DIHARDUT. TICKETBAI SISTEMA EZARRI BEHAR DUT?

Bai. TicketBAI jarduera ekonomiko bat egiten duten zergadun guztiei aplikatzen zaie, jarduera hori lokal batean modu iraunkorrean edo kalez kaleko salmentaren bidez egiten den kontuan hartu gabe. Egiten den eragiketa bakoitzeko, XML fitxategia sortu beharko da, era elektronikoan sinatu, Arabako Foru Ogasunera berehala bidali, eta faktura bezeroari igorri, TicketBAI identifikatzailea eta QR kodea txertatuta dituela.

Gaur egun, badira merkatuan TicketBAI betebeharra betetzeko gai diren soluzio teknologiko merkeak, XML fitxategiak sortzeko eta Ogasunera berehala bidaltzeko gai diren gailu eramangarriak erabiliz, kable bidezko konexioaren beharrik gabe.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

2.10 ALTA EMANDA NAGO ZENBAIT EPIGRAFETAN. ZER-NOLAKO ERAGINA DAUKA EGOERA HORREK EZARPEN EGUTEGIAN?



Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren hainbat epigrafetan alta emanda bazaude, kontuan izan behar duzu TicketBAI aplikatu beharko duzula lehenengoari dagokion unetik bertatik.

Betetzeko betebeharra duen epigrafe batek TicketBAI betebeharrera daramatza gainerako epigrafe guztiak.

Adibidez: zergapekoa jarduera profesional batean alta emanda badago (EJZren tarifen bigarren atala) eta, aldi berean, txikizkako merkataritza jarduera bat garatzen badu, TicketBAI aplikatzen hasi beharko da egiten dituen jarduera guztiengatik 2022ko uztailaren batetik aurrera.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

2.11 ARABAKO ZERGA ARAUDIARI LOTUTA NAGO ETA ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BAT DAUKAT ARABATIK KANPO. ESTABLEZIMENDU HORREN FAKTUREK TICKETBAI BETEBEHARRA BETE BEHAR DUTE?

Bai. Arabako zergapeko baten jarduera orok dakar TicketBAI betekizunen araberako faktura egiteko betebeharra. Adibidez: Arabako zergapeko batek PFEZaren aitorpena Araban aurkezten du eta denda bat du Burgosen. Burgosko dendan TicketBAI fakturak egin beharko ditu.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

2.12 EZ NAIZ ARABAN BIZI, HAU DA, EZ-EGOILARRA NAIZ, BAINA NOIZEAN BEHIN ZERBITZUREN BAT EMATEN DUT ARABAN, ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIE GABE. BEHARTUTA AL NAGO TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZERA?



Ez zaude behartuta TicketBAI betebeharra betetzera Araban badiharduzu establezimendu iraunkorrik gabe.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

2.13 FAKTURAREN EDUKIARI BURUZKO ZER-NOLAKO XEHETASUNAK EMAN BEHAR DIRA KONTZEPTUAN?

TicketBAI fitxategian eragiketa bakoitzari buruz eman beharreko informazioa emandako fakturan edo egiaztagirian agertzen den bera da.

Lerroak “IDDetalleFaktura” etiketan bidali behar dira. 1.000 lerro arte onartzen dira. Eremu horren barruan, informazio hau sartu behar da (dagokion etiketarekin):

- Xehetasunaren deskribapena: fakturaren lerroko kontzeptuaren deskribapena.
- Kopurua: lerroko kopurua.
- Unitateko zenbatekoa: lerroari dagokion BEZaren zerga oinarriaren zenbatekoa (BEZik gabe).
- Deskontua: fakturako lerroko deskontuaren zenbatekoa (euroak).
- Zenbatekoa, guztira: lerroko zenbatekoa, BEZa barne.

Ematen den produktu edo zerbitzuak zerga bereziak edo ingurumen zergak baditu (besteak beste, berrerabili ezin diren ontzien gaineko zerga berezia, ECOEMBES, AEVAE edo SIGAUS), berezitasun horren berri eman behar da aipatutako zerga bakoitza arautzen duen araudi espezifikoa kontuan hartuta. Gomendatzen da tributua zenbatekoa unitateko prezioari gehitzea xehetasun lerro bakar batean; hau da, ondasun edo zerbitzu emate bakoitzaren berri lerro bakar batean ematea, eta lerro horretan sartzea BEZaren zerga oinarria osatzen duten zerga berezien edo ingurumen zergen zenbatekoa.



Hala ere, zerga berezien edo ingurumen zergen kuantifikazioari buruzko informazio espezifikoa gehitu behar izanez gero, zerga horien xehetasuna beste lerro bereizi batean erakutsi ahal izango da (unitateko prezioan zero jarrita). FakturAraba doako programa erabiliz gero, oharren eremuan ere jaso daiteke informazio hori.

[Itzuli APLIKAZIO EREMUA atalera](#)

3 SALBUESTEKO KASUAK

3.1 BADA TICKETBAI SISTEMATIK SALBUESTEKO KASURIK?



Bai, badira.

1. TicketBAI betebeharetik salbuetsita daude zergapetze pertsonalean salbuespen subjektiboa duten pertsonak. Hala, ez daude behartuta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren (SZFA) 12. artikulua 1. paragrafoak jasotzen dituen erakunde salbuetsiak.

2. Salbuetsita daude, halaber, Irabazi xederik gabeko erakundeek zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2017 Foru Arauak arautzen duen irabazteko xederik gabeko erakundeek araubidea aplikatu behar zaien pertsonak, baita Sozietateen gaineko zerga dela eta kargapean eta salbuetsita dauden errentengatik ere.

3. Era berean, SZFAren 12. artikulua 2. paragrafoan jasotzen diren eta zati batean partzialki salbuetsita dauden erakundeek zerga oinarrian integratu beharreko errentak dituzten eragiketengatik soilik bete beharko dute TicketBAI betebeharra.

Hortaz, zerga oinarrian jaso behar ez diren errentak ez dira TicketBAIren arabera fakturatu behar.

4. TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita egongo dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari loturik tributatzeko dutenak, faktura egiteko betebeharra maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen araudiaren 16. artikulua 1. paragrafoak jasotzen duen ordainagiria igorri betetzen dela ulertzen den eragiketetan.

5. Salbuetsita daude zerga pertsonalaren ondorioetarako jardura ekonomikorik ez egiteagatik TicketBAI sistemaren mende ez dauden pertsona fisikoak, hala nola higiezin errentatzaileak; izan ere, kapital higiezinaren etekinak jasotzeagatik ordaintzen dituzte zergak haien zergapetze pertsonalean.

6. Zergadunek ez dute TicketBAI betebeharra bete beharko, honako eragiketei dagokienez:

a) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak onartu zuen eta fakturazio betebeharrak arautzen dituen araudiaren 5. artikulua xedatutakoaren arabera, eragiketaren hartzaile den



pertsonak edo erakundeak faktura egiteko betebeharra era materialean betetzen duenean, baldin eta pertsona edo erakunde horri eskatzerik ez badago Arabako Lurralde Historikoaren zerga araudiak xedatutako TicketBAI betebeharra, edo Bizkaiko nahiz Gipuzkoako lurralde historikoetan ezartzen den antzeko obligazioen bat

b) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak onartu zuen eta fakturazio betebeharrak arautzen dituen araudiaren bigarren eta bosgarren xedapen gehigarriek jasotzen dituztenak.

c) Atzerrian dauden establezimendu iraunkorren bidez egindako eragiketen faktura edo egiaztagirietan dokumentatzen direnak.

7. Ogasun Zuzendaritzak, interesdunak aldeztu aurretik eskatuta, TicketBAI betebeharratik salbuestea ebatzi ahal izango du honako kasu hauetan:

a) Enpresa sektoreei, profesionalei edo enpresa jakinei dagokienez, dagokion sektoreko merkataritza edo administrazio jardunbideek justifikatzen dutenean, edo, bestela, enpresa edo lanbide jardueren garapenean nahasmenik ez sortzeko.

b) Betebeharra betetzea eragozten duten salbuespenezko inguruabar teknikoak dituzten eragiketei dagokienez. Salbuespen hori aldi baterakoa izango da, eta eragiketa horien betebeharrak bete ahal izateko beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko konpromisoa hartu beharko da; hala, ondorioak amaitu egingo dira salbuespena erabakitzea eragin zuten salbuespenezko inguruabarrak jada ez dela egiaztatzen denean.

8. TicketBAI betebeharratik salbuetsita egongo dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 20.Bat.16 eta 18. artikuluetan, a) apartatutik n) apartatura, zehaztutako zerbitzu emateak, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Aplikatu beharreko kokapen arauen arabera, zerga aplikatzen den lurraldean edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean egindakotzat jotzen badira eta zergaren kargapean badaude eta salbuetsita ez badaude.

b) Aplikatu beharreko kokapen arauen arabera zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen badira edo Kanarietan, Ceutan edo Melillan egintzat, eta kargapekoak badira eta salbuetsita



badaude, eta aseguru erakundeak, inbertsio kolektiboko erakundeen kudeaketa sozietateak, pentsio funtsen kudeaketa erakundeak, titulizazio funtsak eta haien kudeatzaileak edo kreditu erakundeak ez diren enpresari eta profesionalek egiten badituzte, haien jarduera ekonomikoaren egoitzaren edo aipatutako lurraldean dagoen establezimendu egonkorren bitartez.

9. 9/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 1. artikulua arabera:

“1. TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita geratzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak diren pertsona fisikoak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) 2021eko abenduaren 31n jarduera ekonomiko bat egiten aritzea.
- b) Egun horretan 60 urte edo gehiago izatea.
- c) Talde honetakoa ez izatea: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.c) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, elkargo bateko kide izateko betebeharra duen jarduera profesional batean jarduteagatik Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzten pertsona fisikoak.
- d) 2021ean ez izatea besteren konturako langilerik kontratatuta.

Ez da beharrezkoa izango d) letra honetan ezarritako baldintza betetzea, baldin eta 2021. urtean besteren konturako langileak aldi baterako kontratatu badira eta jarduera ekonomikoa garatzen duen zergadunaren gaixotasunagatik edo ezinbestezko kausagatik izan bada.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa honako hauei ere aplikatuko zaie: sozietate zibilei, nortasun juridikoa izan zein ez; jaso gabeko jaraunspenei; ondasun erkidegoei, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen gainerako erakundeei, baldin eta zergak errenta egozpeneko araubidean ordaintzen badituzte eta bertan jasotako baldintzak betetzen badituzte. Ondorio horietarako, aurreko apartatuko b) eta c) letretan ezarritako baldintzak bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek bete beharko dituzte.”

Besteren konturako langilei dagokionez, jardueraren titularraren autonomo laguntzaileak besteren konturako langileen parekotzat hartzen dira.



Jardueraren titularrarekin lan egiten duten eta harekin ahaidetasun harremana duten pertsonak, ordenamenduaren beste adar batzuetan autonomo laguntzaile izaera edo izendapena izan dezaketenak, besteren konturako langileztat hartuko dira, baldin eta titularrak jardueraren gastuetan sartu badu haiei ordaindutako soldata Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenetan.

10. Erregelamendu bidez zehazten direnak.

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.2 ERRETIRATZEKO ADINETIK HURBIL DAGOEN ZERGADUN BATEK BAI AL DU SALBUESTEKO ESKUBIDERIK, LANGILEAK PARTZIALKI KONTRATATUTA IZAN BADITU?

Salbuespena ezin izango da egin lanaldi partzialeko kontratazioa egin bada edo kontratazioa aldi baterakoa izan bada borondatezko arrazoiengatik, hala nola herriko jaiengatik edo Gabonetako edo udako errefortzuagatik.

Besteren konturako langileren bat kontratatu den kasuetan soilik eman ahal izango da salbuesteko aukera, baldin eta kontratazio hori aldi baterakoa izan bada eta bat-bateko, ustekabeko eta nahi gabeko arrazoi edo kausagatik. Zehazki, halakotzat joko da, TicketBAI betebeharraren titularrari dagokionez, gaixotasunaren edo istripuaren ondoriozko bajarekin batera gertatzen bada, edo ezinbestezko kausagatik, hala nola konfinamenduagatik, mugak ixtearen ondorioz bidaia batetik ezin itzultzeagatik, etab.

Salbuesteko arrazoi hori dagoela egiaztatzeko, kontuan hartuko da, batez ere, bat ote datozen bi egoeren iraupena eta datak, eta behar bezala egiaztatuta egon beharko dute.

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)



3.3 ZERGADUN BATEK ERRETIRO ADINETIK HURBIK DAUDEN PERTSONAK SALBUESTEKO BALDINTZAK BETETZEN BADITU, BAINA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ORDAINDATZEN BADU, BA AL DU SALBUESTEKO ESKUBIDERIK?

Adinaren ondoriozko salbuespena emateko irizpideak aplikatuko dira, halaber, establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duen pertsona fisiko batek egiten duenean eskaera, nahiz eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa izan, baldin eta salbuespenerako eskubidea izan badu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eskatzen diren baldintza guztiak betetzeagatik, eta ez-egoiliarra izatea bada arrazoi bakarra eragozten duena salbuespen hori ematea bizilekuaren ondoriozko diskriminazioa saihesteko.

Jarduera establezimendu iraunkorrik gabe gauzatuz gero, ez dago TicketBAI bete beharrik.

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.4 ZERGADUN BATEK ERRETIRO ADINETIK HURBIK DAUDEN PERTSONAK SALBUESTEKO BALDINTZAK BETETZEN BADITU, BAINA JARDUERA PERTSONA JURIDIKO BATEN BIDEZ EGITEN BADU, BA AL DU SALBUESTEKO ESKUBIDERIK?

Ez. Baldin eta jarduera pertsona juridiko baten bidez egiten bada, pertsona hori pertsona bakarrekoa izan ala ez, ez dago salbuesteko eskubiderik. Izan ere, nola Administrazioarekiko harremana nahitaez elektronikoa izan behar den, ez da ikusten arrakala digitalik dagoenik.



[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.5 ERRETIRATZEKO ADINETIK HURBIL DAGOEN ZERGADUN BATEK BAI DU SALBUESTEKO ESKUBIDERIK, NAHITAEZ ELKARGOKO KIDE IZATEA ESKATZEN DUEN JARDUERA BAT EGITEN BADU?

Elkargoko kide izateko betebeharra dagoenean, salbuesteko eskaera ukatuko da, beste arrazoi gehigarriak ez badago. Horrelako kasuetan, ez da arrakala digitalik ikusten, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera Zerga Administrazioarekin harreman telematikoak izateko betebeharra duten pertsonak edo entitateak baitira.

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.6 NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA ARAUBIDE BEREZIAN DAGOEN ZERGADUN BATEK, TICKETBAI BETEBEHARRA BETEBEHAR DU ?

TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita geratuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziaren pean zergak ordaintzen dituztenak, faktura egiteko betebeharra 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 16. artikulua 1. paragrafoak jasotzen duen ordainagiria igorritik betetzen dela ulertzen diren eragiketetan (konpentsazio ordainagiria).

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)



3.7 PERTSONA FISIKO BATEK LOKALAK EDO ETXEBIZITZAK ALOKATZEN BADITU, TICKETBAI BETEBEHARRA BETE BEHAR DU?

Higiezinaren errentamendu jarduera egiten duen pertsona fisiko batek PFEZren 33/2013 Foru Arauaren 24. artikulua arabera egiten duenean bakarrik joko da jarduera ekonomiko bat egiten duela.

Hau da, errentatzaileek, pertsona fisikoek, TicketBAI betebeharra bete behar dute soilik higiezinaren errentamendu horretarako gutxienez lanaldi osoko eta dedikazio eskusiboko langile bat dutenean.

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.8 ERRENTAK ERATXIKITZEKO ARAUBIDEAN MENPEKO ENTITATEEK ZEIN KASUTAN EGON DAITEZKE TICKETBAITIK SALBUETSITA?

Aurreko 3.1 apartatuan xedatutakoa, zeina baita erretiro adinetik hurbil egoteagatik salbuesteari buruzkoa, honako hauei ere aplikatuko zaie: sozietate zibilei, nortasun juridikoa izan zein ez; jaso gabeko jaraunspenei; ondasun erkidegoei, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen gainerako erakundeei, baldin eta zergak errentak eratxikitze araubidean ordaintzen badituzte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Errentak eratxikitze araubidearen menpeko entitatea (EEAE) jarduera ekonomikoetan aritzea 2021eko abenduaren 31n.
- Ezein bazkide, erkide edo partaide ez izatea Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez egitera behartuta dauden pertsona fisikoen taldekoak, nahitaez elkargokide izatea eskatzen duen lanbide jarduera bat egiteagatik.
- Bazkide, erkide edo partaide guztiek 60 urte baino gehiago izatea 2021eko abenduaren 31n.



- EEAEak 2021ean besteren konturako langilerik kontratatu ez izana. Jardueraren titularrarekin lan egiten duten eta harekin ahaidetasun harremana duten pertsonak, ordenamenduaren beste adar batzuetan autonomo laguntzaile izaera edo izendapena izan dezaketenak, langileztat joko dira, baldin eta titularrak jardueraren gastuetan sartu badu haiei ordaindutako soldata pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenetan.

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.9 ZER GERTATZEN DA FAKTURAZIOA HARTZAILEAK EGITEN BADU ETA HURA BEHARTUTA EZ BADAGO?

Zergadunak salbuetsita egongo dira TicketBAI betebeharra betetzetik, eragiketaren pertsona edo entitate hartzaileak faktura egiteko betebeharra materialki betetzen duen eragiketei dagokienez, baldin eta pertsona edo entitate horri ezin bazaio eskatu Arabako Lurralde Historikoaren zerga araudian xedatutako TicketBAI betebeharra, edo Bizkaiko nahiz Gipuzkoako lurralde historikoetan ezartzen den TicketBAI betebeharraren antzeko bat

[Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera](#)

3.10 NOLA EGIN BEHAR DA SALBUESTEKO ESKAERA?

Ogasun Zuzendaritzak, interesdunak aldeztu aurretik eskatuta, TicketBAI betebeharratik salbuestea ebatzi ahal izango du honako kasu hauetan:

- Enpresa sektoreei, profesionali edo enpresa jakin batzuei dagokienez, kasuan kasuko sektoreko merkataritza edo administrazio jardunbideek justifikatzen dutenean, edo, bestela, enpresen edo profesionalen jardueren garapenean nahasmenik ez sortzearren.
- Betebeharra eragozten duten salbuespenezko inguruabar teknikoak dituzten eragiketei dagokienez. Salbuespen hori aldi baterakoa izango da, eta eragiketa horiekin lotutako betebeharrak



horiek bete ahal izateko beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko konpromisoa izango du; hala, salbuespenaren ondorioak amaitu egingo dira hura erabakitzea eragin zuten salbuespenezko inguruabarrak desagertu direla egiaztatzen denean.

Salbuespen eskaera egoitza elektronikoaren bidez eskatu behar da, esteka honetatik: [TicketBAI betebeharretik salbuestea - egoitza \(araba.eus\)](http://TicketBAI.betebeharretik.salbuestea-egoitza.araba.eus)

[*Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera*](#)

3.11 ZER GERTATZEN DA JARDUERA NAGUSIA EZ DEN SALMENTA MAKINA BAT BADAUKAT?

Zergapekoak salbuetsita geratuko dira berehala bidaltzetik XML fitxategiak, hau da, beren jarduera ekonomiko nagusiaren lagungarri edo osagarri hutsa den jarduera ekonomikoari dagozkion eta laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu automatikoen bidez egindako eragiketa bakoitzaren XML fitxategiak.

TicketBAI betebeharra betetzeko, Zerga Administrazioari XML fitxategia bidaliko zaio. Fitxategi horretan, datuak azken aldiz atera zirenetik edo kontagailua edo baliokidea irakurri zenetik egindako eragiketa guztiak jasoko dira, edo gutxienez, hilean behin, gorde beharko den EVA-DTS fitxategitik edo antzekotik ateratako datuetan oinarrituta.

Fitxategi hori sortu eta bidali ahal izateko, agiri edo egiaztigiri bat egin beharko da.

[*Itzuli SALBUESTEKO KASUAK atalera*](#)



4 BALDINTZA TEKNIKOAK

4.1 ZER BEHAR DUT TICKETBAI SISTEMAREN BETEBEHARRA BETETZEKO?

Fakturazioa egiteko erabiltzen den gailuak, ekipoak edo makinak hauexek burutzeko gauza izan behar du:

- a) Era elektronikoan sinatutako fitxategi informatikoa sortzea (beraz, ziurtagiri digitala behar da).
- b) Aurreko a) letran xedatutakoaren arabera sortutako fitxategi informatiko bakoitza zerga administrazioari berehala bidaltzea (beraz, Interneteko konexioa behar da).
- c) Fakturan, faktura edo frogagiria identifikatzeko kode bat eta QR kode bat txertatzea.

Beraz, **TicketBAI betebeharra betetzeko, softwarea, edo fakturazio-programa, Interneterako konexioa eta ziurtagiri digital bat behar dira.**

[Itzuli BALDINTZA TEKNIKOAK atalera](#)

4.2 ZER ZIURTAGIRI DIGITAL DA BATERAGARRI TICKETBAI SISTEMAREKIN?

TicketBAI sistemak ziurtagiri hauetakoren bat erabiltzea eskatzen du:

- **Gailuaren ziurtagiria**: ziurtagiri ez-kualifikatua, gailu bakoitzeko nortasun bakarra ematen duena, eta fakturak egiten diren gailuan instalatuta eta hari lotuta dagoena.
- **Pertsona fisikoaren edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiria**: pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasuna egiaztatzeke ziurtagiri kualifikatuak.



- **Enpresa zigilua**: ziurtagiri kualifikatua da, aplikazio batek laguntzarik gabe erabil dezakeena, baita sail edo lantalde bateko pertsona talde batek ere. Mundu fisikoan, kautxuzko zigilua duen enpresa baten eguneroko eta ohiko erabilerarekin aldera daitekeen ziurtagiria da.

- **Autonomoaren ziurtagiria**: kualifikatu gabeko ziurtagiria, jardura ekonomikoak autonomo gisa deklaritzen dituzten pertsona fisikoentzat egina, ziurtagiri horren eskatzailearen IFZ eta JEZen alta bermatzea helburu duena.

[Itzuli BALDINTZA TEKNIKOAK atalera](#)

4.3 NON ESKURA DEZAKET TICKETBAI SISTEMA EZARTZEKO SOFTWAREA?

TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituen softwarea merkaturatu eskuratu ahal izango da, beste edozein fakturazio programa bezala.

Zerga administrazioak sistemaren zehaztapen teknikoak argitaratu ditu, software garatzaileek bezeroei merkaturatzen dizkieten programetan TicketBAIko eskakizunak txerta ditzaten.

Software batek baldintza horiek guztiak betetzen dituela ulertuko da **TicketBAI software-erregistroan** inskribatuta dagoenean. Erregistro hori pertsona eta erakunde garatzaileek eta TicketBAI softwareek osatzen dute, urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuaren 21. artikulua eta hurrengoek ezartzen duten legez.

Gainera, Arabako Foru Ogasunak **FakturAraba** izeneko doako aplikazioa jarriko du zergadunen eskura, TicketBAI baldintzak betetzen dituzten fakturak sortzeko, inolako muga kuantitatiborik gabe.

FakturArabari buruzko informazioa aurkituko duzu webgunean:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/fakturaraba>

[Itzuli BALDINTZA TEKNIKOAK atalera](#)



4.4 SOFTWAREAK HOMOLOGATUTA EGON BEHAR DU EDO EZARRITAKO ESKAKIZUN TEKNIKOAN BETETZEN DITUEN EDOZEIN SOFTWARE ERABIL DAITEKE?

Ez. Softwarea ez da homologatzen, ezta ziurtatzen ere, baina ezin da edozein software erabili. Erabiltzen beharreko softwareak TicketBAI software erregistroan inskribatuta egon behar du. Erregistro horretan, software guztiak agertzen dira, eta horien garatzaileek edo merkaturatzaileek erantzukizunpeko adierazpena sinatu dute, non TicketBAIren zehaztaperen teknikoak eta funtzionalak betetzen dituztela adierazten den. Garatzaile horiei TicketBAI fitxategian agertu behar duen software lizentzia bat esleitu zaie.

Gaur egun, 1.000 irtenbide informatiko edo software baino gehiago daude TicketBAIren baldintzak betetzen dituztela adierazten duten bermatzailearen erregistroan inskribatuta. Zergapekoek zerrenda hori kontsultatu ahal izango dute, beren profilerako egokiena dena egiaztatzeko, esteka honetan:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/softwarearen-zerrenda>

[*Itzuli BALDINTZA TEKNIKOAK atalera*](#)

4.5 NOLA ERREGISTRA DEZAKET NIRE SOFTWAREA ETA TICKETBAI SISTEMAREN HOMOLOGAZIOA LORTU?

Software bat inskribatu ahal izateko, pertsona edo enpresa garatzaileek inprimaki bat bete eta erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute, 48/2021 Foru Dekretuaren 21. artikulua eta hurrengoak eta Zehaztaperen Tekniko eta Funtzionalei buruzko Foru Aginduak ezarritako baldintzetan. Gainera, aplikazioaren memoria teknikoa aurkeztu beharko du, aipatutako foru aginduak ezarritako baldintzetan.

Administrazioak ez du softwarea homologatzeko edo ziurtatzeko prozesurik egingo. Eskatera jaso eta lehen adierazitako dokumentazioa aztertu ondoren, alta ziurtagiriaren edo jarduteko lizentziaren zenbaki bat emango da, eta zenbaki hori TicketBAI sistemaren XML fitxategian islatuko da.



Erregistroan inskribatutako softwareen zerrendarako sarbidea webgunearen bidez egin daiteke:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/softwarearen-zerrenda>

Webgunean, izena emanda eta softwarea garatzen duten pertsonak edo erakundeak argitaratuko dira, izena eta aplikazioaren deskribapen laburra adieraziko dira, bai eta zer sektoreri zuzenduta dauden eta haien ezaugarriak zer webgunetan kontsultatu ahal izango diren ere.

[Itzuli BALDINTZA TEKNIKOAK atalera](#)

4.6 ZER MUGA IZAN DEZAKE OGASUNAREN WEBGUNEKO APLIKAZIOA, **FakturAraba**, ERABILTZEAK MERKATUKO FAKTURAZIO PROGRAMA BATEN ALDEAN?

Doako web aplikazioa eguneroko fakturen bolumen handirik jaulkitzen ez duten zergadunentzat pentsatuta dago, baina aplikazioaren erabilera ez dago mugatuta. Oinarrizko aplikazioa da, erabilerraza. Zergapekoek fakturak sortu ahal izango dituzte, TicketBAI sistemaren baldintza guztiak beteta, paperean inprimatu edo bezeroei bidali ahal izango dizkiete formatu elektronikoan, baina inola ere ez ditu ordezkatzeko merkatuko egungo fakturazio-sistemak.

Zergadun gehienek erabil badezakete ere, ez da baliozkoa izango BEZ zergan (Erakunde Taldeen Araubide Berezia) edo eragiketa zehatz batzuetan zerga araubide berezia dutenentzat.

Administrazio publikoei fakturak egiteko ere ez du balio FakturaBAIk, ez baititu betetzen faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legean ezarritako baldintzak, ez baitu betetzen Facturae formatua.

Euskal administrazio publikoekin lan eginez gero, Ef4ktur programa gomendatzen da.

[Itzuli BALDINTZA TEKNIKOAK atalera](#)



5 OINARRIZKO GAIAK · SOFTWAREA

5.1 LURRALDE HISTORIKO BATEAN INSKRIBATUTAKO SOFTWAREA BESTE LURRALDE HISTORIETAN JARDUTEKO ERE ERABIL DAITEKE?

Bai. Araban inskribatutako software bat Bizkaian eta Gipuzkoan jarduteko egokia da. Beste alde batetik, lurralde horietako zerga administrazioen erregistroetan inskribatutako edozein softwarek balio du Araban jarduteko. Nahiz eta erregistro lokabeak izan, horietako batean inskribatzeak beste guztietan inskribatzea dakar; beraz, TicketBAI sistemaren betebeharra betetzeko, hiruretako edozeinetan alta emanda dagoen software bat erabil daiteke. Arabako Foru Aldundiak eguneratuta izango du bere webgunean hiru lurralde historikoetan inskribatutako softwareen zerrenda.

[Itzuli GAI OROKORRAK SOFTWAREA atalera](#)

5.2 ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKO SOFTWAREA ESKURATU EDO HARPIDETU BEHAR DA?

Inskribatutako softwarearen bat eskuratzeko edo harpidetzeko betebeharririk ez dagoen arren, eta erregistroan inskribatuta ez dagoen software bat erosteagatik zehapen espezifikorik ezarrita ez dagoen arren, beharrezkoa da inskribatuta egotea, XML eskema betetzeko eskatzen baita, bai eta alta lizentziaren ziurtagiriaren zenbaki bat ere, inskribatzean ematen dena.

Pentsatzekoa denez, inskribatutako software orok jarduteko behar duten lizentzia edo kodea benetakoa eta egiazkoa da. Software bat berme horiek gabe ezartzeak TicketBAI sistemaren betebeharra erabat ez betetzea ekar dezake.



Era berean, TicketBAI betebeharra betetzea dago Foru Ogasunak zergapekoen eskura jartzen duen doako aplikazioaren bidez: FakturAraba, ez baitu urtero egin daitezkeen fakturen mugarik kopuruari dagokionez.

[Itzuli GAI OROKORRAK SOFTWAREA atalera](#)

5.3 EF4KTUR APLIKAZIOA ERABILTZEN DUT. BESTE SOFTWARE BAT BEHAR DUT TICKETBAI SISTEMAREN BETEBEHARRA BETETZEKO?

Ef4ktur Software Erregistro bermatzailean inskribatuta dago; beraz, programa hori erabiliz egin dezakezu fakturazioa, TicketBAI sistemaren betebeharra beteta.

Gainera, Ef4ktur baliagarria da administrazio publikoei fakturak egiteko, faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritako baldintzak betetzen baititu.

[Itzuli GAI OROKORRAK SOFTWAREA atalera](#)

5.4 FAKTURAK ETA TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGI BATERAGARRIAK JAULKI DITZAKET NIRE FAKTURAZIO SOFTWAREA, EF4KTUR ETA, KASUREN BATEAN, FAKTURARABA APLIKAZIOAK ERABILIZ?

Gutiz bateragarria da fakturazio software bat baino gehiago erabiltzea, besteak beste, Ef4ktur eta FakturAraba fakturazio softwareak.

Garrantzitsuena da fakturazio software guztiek Araban TicketBAI sistemaren betebeharra betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzea, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiak online bidaltzea eta guzti.



Hori bai, fakturek serie bereizia izan beharko dute erabiltzen den software bakoitzeko, fakturok bereizi ahal izateko.

Gainera, gogoratu behar da Ef4ktur bakarrik dela baliagarria fakturak Administrazio Publikoei egiteko, faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritako baldintzak betetzen baititu. FakturAraba-k ez du balio fakturak betetzeko eta administrazioaren faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrera bidaltzeko, ez baitu Facturae formatua betetzen.

[Itzuli GAI OROKORRAK SOFTWAREA atalera](#)

5.5 TICKETBAI ZERBITZUAREN ERANTZUNA BEHARREZKOA DA QR KODEA ETA TICKETBAI SISTEMAREN IDENTIFIKATZAILEA DARAMATZAN FAKTURA JAULKITZEKO?

Ez, ez da TicketBAI zerbitzuaren erantzunaren zain egon behar.

Bai TicketBAI identifikatzailea, bai QR kodea, TicketBAI sistemaren REST zerbitzuaren esku-hartzerik gabe faktura igortzen duen softwareak sortu behar ditu. TicketBAI software bermatzaileak informazio guztia du TBAI identifikatzailea sortzeko eta, ondorioz, QR kodea sortzeko. XML fitxategia bidali aurretik sor ditzake.

Horrela, softwareak, komunikazio-arazoak edo TicketBAI zerbitzuak berak arazoak izanez gero, fakturak modu independentean jaulki eta bezeroari eman ahal izango dizkio, adieraziz, hala badagokio, QR kodeak ez duela bidalketa egiaztatzen utziko bidalketa egin arte. Komunikazioa edo zerbitzua berrezarri bezain laster egin beharko da.

[Itzuli GAI OROKORRAK SOFTWAREA atalera](#)



6 OINARRIZKO GAIAK · EGUTEGIA

6.1 SISTEMA EZARTZEKO EGUTEGIA. ZEIN IZANGO DA LEHEN TARTEA?

Urtarrilaren 1etik aurrera, borondatez egin nahi duten zergapekoek TicketBAI betebeharra bete dezakete.

2022ko apirilaren 1ean, TicketBAI ezarri beharko dute pertsona fisikoek, errentak esleitzeko araubidean dauden erakundeek eta zerga aholkularitza eskaintzen duten eta Arabako Foru Ogasunaren erakunde laguntzaile diren pertsona juridikoek.

2022ko uztailaren 1ean, TicketBAI ezarri beharko dute 1. atalean, 652.1 epigrafean, alta emanda dauden zergadunek: sendagaien, osasun-produktuen eta higiene pertsonaleko produktuen txikizkako merkataritza; 2. atalean, berriz, atal horretako epigrafe guztietan alta emanda daudenek, hau da, lanbide jarduera bat egiten duten guztiek.

2022ko abenduaren 1ean sartuko dira gainerako zergadunak TicketBAIn.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK EGUTEGIA atalera](#)



6.2 ZERGA KUDEAKETAREN ARLOAN JARDUTEN DUTEN PROFESIONALEK, ESATE BATERAKO, BEZEROEN KONTABILITATEA KUDEATU ETA BEZEROAK OGASUNAREN AURREAN KUDEATZEN DUTEN AHOHKULARITZA ETXEEK SISTEMA EZARRI BEHARREKO DATA DELA ETA, AHOHKULARITZA ETXE HORIEN FAKTURENTZAT BAKARRIK BALIO DU EDO ORDEZKATUTAKO BEZERO GUZTIEI ERAGINGO DIE?

TicketBAI sistema 2022/04/01ean ezartzeko betebeharrak, Arabako Foru Aldundiaren erakunde laguntzaile diren aholkulariei dagokienez, haien jarduera ekonomikoaren esparruan beraien izenean egiten dituzten ondasunen ematei eta zerbitzu-prestazioei eragiten die, ez aholkularien bezeroei.

Beraz, betebeharrak ez die eragiten ordezkatuaren eginkizun hori esleituta dutelako egiten dituzten faktura edo egiaztagiriei; izan ere, ordezkatuak jaulki beharko dituzte fakturak (nahiz eta, egiatan, haien ordezkariak gauzatu betebeharrak hori), TicketBAI sistemaren baldintzak data egokietan beteta, hau da, argitaratutako epigrafeak eta egutegia kontuan hartuta.

TicketBAI betebeharra betez, ordezkatuaren fakturak edo egiaztagiriak egiten badituzte aholkulariek, ulertu beharko da ordezkatuak betebeharra nahitaez bete beharreko data aurreratu dutela, hain zuzen ere, aholkulariak ordezkatuaren izenean betebeharra betetzen duen faktura egiten duen egunera.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK EGUTEGIA atalera](#)



7 OINARRIZKO GAIAK SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA

7.1 ZEIN ALDE DAGO HIRUGARRENAREN ETA BORONDATEZKO ORDEZKARIEN ALDEAN?

Hirugarrena fakturatzeko betebeharra zein TicketBAI betebeharra betetzeko betebeharra kanporatu zaion edozein pertsona edo erakundea da. Zergapekoaren eta hirugarrenaren artean egindako kontratu edo baimen baten arabera egingo da hori, eta hirugarrenak betebehara hori bete beharko du. Hala, hirugarrenak betebehara horiek betearazi eta bete egingo ditu zuzenean. **Egindako kontratua edo akordioa ez da hirugarrenen aurrean aurkeztu behar.** Fakturak egin, TicketBAI fitxategiak sinatu eta Zerga Administrazioari bidal diezazkioke.

Halaber, TicketBAI betebeharraren ondorioetarako, hirugarrena da fitxategiak sinatzen dituenak, nahiz eta zergapekoak fakturak zuzenean egin.

Borondatezko ordezkaria da, ahalorde bat dela bide, zergadunaren izenean diharduen pertsona edo erakundea, emandako ahalmenez baliatuz, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuak, borondatezko ordezkaritza arautzen duenak, xedatutakoari jarraiki, 4 maila eta hainbat azpimaila ezartzen dituela.

Azaroaren 23ko 52/2021 Foru Dekretuaren bidez, **2-d) borondatezko ordezkaritza maila aldatu da**, maila hori dutenek TicketBAI betebehara bete ahal izan dezaten ordezkariaren izenean Arabako Foru Aldundiaren aurrean.

Kasu horietan, hirugarrena eta borondatezko ordezkaria pertsona bera direnean, ordezkariaren izaera gailenduko da.



Normalean, ordezkaria aholkularia izan ohi da, eta, gainera, zergadunari, oro har, aholkularitza fiskala ematen dio. 2-d) mailarekin, ordezkariak ordezkatuena TicketBAI fitxategiak Foru Ogasunera bidali eta kontsultatu ahal izango ditu.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.2 NOLA EMAN DAITEKE ALTA ORDEZKARI, HIRUGARREN EDO HARTZAILE GISA?

Hirugarren gisa edo **hartzaile** gisa jarduteko, ez da beharrezkoa Zerga Administrazioan alta ematea, eta zergadunaren XML fitxategiak sinatu eta bidali ahal izango dira.

Borondatezko ordezkari gisa alta emateko (2-d maila izanda), eta Zerga Administrazioaren aurrean fakturazioa egiteko, fitxategiak sortzeko, sinatzeko, bidaltzeko eta kontsultatzeko ahalmena izateko, honako helbide elektroniko honen bidez izapidetu behar duzu prozedura:

https://web.araba.eus/eu/ogasuna/borondatezko_ordezkaritza

2-d) mailadun borondatezko ordezkariak ordezkatuaren TicketBAI betebeharra bete dezake zuzenean, zergaduna balitz bezala. Era berean, egindako bidalketak kontsulta ditzake.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.3 HIRUGARREN BATEK TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIAK SOR DITZAKE ZERGAPEKOAREN IZENEAN?

Bai, ahal du. Fakturazioa zuzenean egiten duenak sinatu behar ditu fakturak, nortasuna egiaztatzen duen ziurtagiria edo gailuaren ziurtagiria erabiliz.

Hirugarrenak egindako fakturazioaren kasuan, hau da, zergapekoak zeregin hori kanpora atera edo azpikontratatu nahi duenean, kontuan izan behar du horrek ez duela inola ere betebeharrak horretatik salbuesten, eta ez duela derrigortasun data edo egutegia aldatzen; beraz, bermatu behar



du TicketBAI sistema bat erabiltzen dela bere izenean jaulkitzen diren fakturetan, eta jaulkipen bakoitzeko TicketBAI sistemari datxekion XML fitxategia edo jaulkipen bakoitzaren egiaztagiriak Foru Ogasunari bidaltzen zaizkiola.

Halaber, TicketBAI betebeharraren ondorioetarako, hirugarrena da fitxategiak sinatzen dituen, nahiz eta fakturak zuzenean egin dituen ez izan. TicketBAI sistemaren XML fitxategiak sortzeko eta **FakturAraba** aplikazioaren bidez bidaltzeko, zer behar da?

- Zergapekoa bera izatea.
- 2-d mailadun borondatezko ordezkaria izatea.

Hau da: hartzaileak eta hirugarrenak ezin dute FakturAraba erabili, baldin eta 2-d mailadun borondatezko ordezkari maila ez badute eta hura erabiliz identifikatzen ez badira.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.4 HARTZAILE BATEK SOR DITZAKE TICKETBAI-KO XML FITXATEGIAK ZERGAPEKOAREN IZENEAN?

Bai, egin dezake. Fakturak edo egiaztagiriak eta haiei lotutako XML fitxategiak fakturazioa egitean sinatu behar dira.

Bereizi egin behar da hartzaileak fakturak edo egiaztagiriak TicketBAI sistema erabiliz jaulkitzeko betebeharra ere baduen edo ez.

***Hartzaileak fakturazioa TicketBAI sistema erabiliz egin eta jaulki behar badu, adibidez, betebehar hori borondatez betetzeko data aurreratu duelako**, Arabako foru araudiari lotutako zergapekoak fitxategiak **honako modu hauetakoren batez** igor ditzake:

- a) **Eragiketaren pertsona edo erakunde hartzaileak bidal ditzake**, faktura egiteaz batera.
- b) **Pertsonak edo erakundeak berak bidal ditzake, zergapeko jaulkitzaile gisa**, faktura onartu bezain laster, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru



diputatuak ezarritako modu-lekuetan. Abenduaren 23ko 774/2022 Foru Aginduaren 12. artikuluan daude horiak zehaztuta (ikusi [9.14 ohiko galdera](#))

***Hartzaileak TicketBAI sistema erabiliz fakturak edo egiaztagiria egiteko betebeharririk EZ badu, TicketBAI betebeharra betetzetik salbuesteko arrazoia da.**

Bestela, zergadunak **2-d) maila duen borondatezko ordezkaria izenda dezake** TicketBAI sistema aplikatzeko betebeharririk ez duen hartzailea, fitxategia sortu eta faktura edo egiaztagiria egin ahal izan dezan FakturAraba aplikazioaren bidez.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.5 HIRUGARRENAK EDO HARTZAILEAK ZERGADUNAREN TICKETBAI SISTEMAREN BETEBEHARRA BETE DEZAKE ARABAKO FORU OGASUNAK ESKAINTZEN DUEN APLIKAZIOA (FakturAraba) ERABILIZ?

Ez, baldin eta 2-d borondatezko ordezkari-tza-maila ez badu eta hura erabiliz identifikatzen ez bada.

Foru Ogasunaren aplikazioan, zergadunak berak edo 2-d mailadun ordezkariak bakarrik jaulki ahalko dituzte fakturak.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.6 TICKETBAI SISTEMAREN BETEBEHARRA HIRUGARREN BATEN ALDE KANPORATZEN BADA ETA BETEBEHARRA NAHITAEZ BETETZEKO DATA BIENTZAT



BERDINA EZ BADA, GARRANTZITSUA AL DA HIRUGARRENAREN DERRIGORREZKO DATA?

TicketBAI betebeharraren betetzea kanpora ateratzen bada, kontuan izan behar da egintza horrek ez duela betebeharraren data edo egutegia aldatzen.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.7 ORDEZKARIAK ZERGADUNAREN TICKETBAI SISTEMAREN BETEBEHARRA BETE DEZAKE ARABAKO FORU OGASUNAK ESKAINTZEN DUEN APLIKAZIOA ERABILIZ?

Borondatezko ordezkaritza (2-d maila) eratzikita edukiz gero bakarrik.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.8 BEHARREZKOA AL DA FAKTURAZIO BETEBEHARRA –ETA ORAIN, TICKETBAI SISTEMAREN BETEBEHARRA– ZUZENEAN BETETZEN DUTEN HIRUGARRENEKIKO EDO HARTZAILEEKIKO AKORDIOA EGIAZTATZEA?

Ez da beharrezkoa izango zergapekoak hirugarrenekin hitzartu edo sinatu duen baimena edo kontratua igortzea, baina faktura egiteko betebeharra duen zergapekoak faktura horiek bere gain hartu edo aitortu beharko ditu, Administrazioaren aurrean aitortu ere.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.9 BEZ ZERGAREN ERAKUNDE TALDEEN ARAUBIDE BEREZIARI LOTUTAKO ERAKUNDEETAN, NORK BIDALI BEHAR DITU TICKETBAI



SISTEMARI ATXIKITAKO FAKTURAZIO APLIKAZIOAK SORTZEN DITUEN XML FITXATEGIAK?

Taldeko kide den erakundeetako bakoitzak.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)

7.10 NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO SOZIETATE ZIBIL EDO ONDASUN ERKIDEGOETAN, NORK SINATU BEHAR DU?

Softwarearen arkitekturaren arabera, sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak aukeratu ahal izango du aldez aurretik hari lotutako gailu ziurtagiriren bat edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiri bat erabiltzen duen. Kasu horretan, erkidegoaren legezko ordezkariak sinatu beharko du. Sinadura elektronikoko ziurtagiriaren emaileak beharrezko dokumentazioa eskatuko du; nolana ere den, zerga-ondorioetarako, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 45.3 artikuluan jasota dago horri buruzko erregulazioa.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · SINATZAILEA ETA/EDO BIDALTZAILEA atalera](#)



8 OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA

8.1 ZER ZIURTAGIRI DIGITAL ERABIL DAITEKE ZERGAPEKOAREN FAKTURAK EGITEKO?

TicketBAI sistemari atxikitako fitxategiak era elektronikoan sinatzeko, ziurtagiri mota hauetako bat erabili beharko da:

- ✓ Gailuaren ziurtagiria.
- ✓ Pertsona fisikoaren ziurtagiria.
- ✓ Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria.
- ✓ Enpresaren zigilua

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.2 AUTONOMOEN ZIURTAGIRIA ETA GAILUEN ZIURTAGIRIA TICKETBAIRAKO BAKARRIK SORTUTA DAUDE?

Bai. Gailuaren ziurtagiria eta kualifikaziorik gabeko autonomoaren ziurtagiria TicketBAIn bakarrik erabiltzeko pentsatuta daude.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.3 ZERGAPEKOA EZ DEN PERTSONA BATEK ERABIL DITZAKE GAILUAREN ZIURTAGIRIAK?



Ez, gailuaren ziurtagiriak norberaren izenean bakarrik erabil daitezke, eta ez da baliozkoa hirugarren batek edo fakturaren hartzaileak erabiltzea.

Gailuaren ziurtagiria erabiltzen duen zergapekoa aipatutako ziurtagiriari lotu behar zaio eta norberarena dela aitortu beharko du TicketBAI fitxategiak bidali aurretik. Horretarako, web aplikazio bat daukazu erabilgarri [Gailu ziurtagirien erregistroa - araba](#) helbidean, eta, fitxategiak bidali aurretik, lotura bat egingo du fakturen igorlearen IFZren eta ziurtagiriaren serie zenbakiaren artean.

Fakturak bidaltzeko gailua erabiltzeari uzten diozunean, lotura baliogabetu ahal izango du web aplikazioan bertan. Hori egitea gomendatzen dugu.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.4 ZER ALDE DAGO GAILUAREN ZIURTAGIRIAREN, ERAKUNDEAREN ORDEZKARIAREN ZIURTAGIRIAREN ETA ERAKUNDEAREN ZIGILUAREN ARTEAN?

Gailuaren ziurtagiria ziurtagiri ez-kualifikatua da, eta gailu bakarra baino ez du identifikatzen; **erakundearen ordezkariaren ziurtagiria**, berriz, ziurtagiri kualifikatua eta pertsonala da, edozein administrazioen aurrean erakundearen ordezkaritza ahalmena duen pertsona bat ordezkatzeko duena, oro har, beste ahalmen zabal batzuen artean. Gailuaren ziurtagiria, euskal administrazioen eremuan, TicketBAI fitxategiak sinatu eta bidaltzeko bakarrik erabil daiteke, eta erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, berriz, hainbat izapidetan erabil daiteke.

Gailuaren ziurtagiria sinadurari lotutako pasahitzik gabe instalatu ohi da; erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, aldiz, nahiz eta pasahitzik gabeko software bertsioan instalatu daitekeen, ez da gomendatutako jardunbidea.



Gailuaren ziurtagiriaren iraupena 10 urtekoa da, eta erakundearen ordezkariaren ziurtagiriarena, berriz, 4 urtekoa.

Bestalde, gailuaren ziurtagiria, kualifikaziorik gabeko ziurtagiria da, gailu bakarra identifikatzen duena; **erakundearen zigilua**, berriz, dokumentuak eta fakturak erraz eta arin zigilatzekeo tresna da, jatorria zigilua erabili den erakundea dela bermatuta.

Euskal administrazioen eremuan, gailuaren ziurtagiria TicketBAI fitxategiak sinatu eta bidaltzeko bakarrik erabil daiteke; erakundearen zigilua, berriz, hainbat izapidetan erabil daiteke, baina ezin du borondatearen adierazpena adierazi, identitate hutsa baizik. Gailuaren ziurtagiriaren iraupena 10 urtekoa da, eta erakundearen zigiluarena, berriz, 3 urtekoa.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.5 ZENBAT GAILU ZIURTAGIRI EDO AUTONOMO ZIURTAGIRI ESKATU AHAL/BEHAR DITUT? ETORKIZUNEAN BERRITU DAITEZKE?

Autonomo ziurtagiri bakarra emango da NAN bakoitzeko, baina gailu edo zerbitzari askotan erabil daiteke.

Gailuen ziurtagiriei dagokienez, berriz, XML fitxategia Foru Ogasunera bidaltzen duen “makina” identifikatzean, behar duzun gailu bakoitzerako (kutxa erregistratzailea, TPV, balantza...) bat eskatu behar duzu.

Gailu ziurtagiriak etorkizunean berritu daitezke, iraungi baino 60 egun lehenagotik.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.6 GAILUAREN ZIURTAGIRI BAKARRAREN ALTA EMAN DAITEKE ZERGAPEKO BATEN BAINO GEHIAGOREN IZENEAN?



Bai. Kasu horretan, zergadun bakoitzak Foru Ogasunari jakinarazi beharko dio ziurtagiriaren serie zenbakia, dagokion formulario elektronikoa betez.

Adibidez: nork bere kabuz lan egiten duten baina egitura bera (lokala, zerbitzuak, hornidurak, etab.) partekatzen duten lau abokatuk gailu bakarra erabil dezakete fakturak TicketBAI sistemaren araudiaren arabera egiteko. Kasu horretan, horietako bakoitzak TicketBAIren webgunean egongo den aplikazioaren bidez lotu beharko du ziurtagiri hori.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.7 GAILUAREN ZIURTAGIRIA ERABIL DAITEKE TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIAK HIRUGARRENEN IZENEAN SINATZEKO?

Ez.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.8 BI ORDENAGAILU EZBERDINETATIK FAKTURATUKO DENEZ, ATERA DITZAKEGU BI ZIURTAGIRI IFK ZENBAKI BERAREKIN?

Eskaera aplikazioan identifikatutako bezero berarekin eta IFK berarekin behar beste ziurtagiri atera ditzakezu. Esaterako, supermerkatu bat baldin badut, ziurtagiri bat atera dezaket kutxa bakoitzarentzat.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.9 NORK ESKATU AHAL/BEHAR DU GAILU ZIURTAGIRIA? NOLA OSATU BEHAR DA ESKAERA?



Edonork eska dezake: ez da beharrezkoa eskaera zergapeko den erakundeak egitea, haren informatika hornitzaileak egin dezake. Bigarren urratsean, dagokion Foru Ogasunean lotu beharko da gailu ziurtagiri hori hura erabiltzen duen zergapekoarekin.

Gailu ziurtagiriak linean baino ezin dira izapidetu, Izenperen bidez. Prozesuari ekiteko, beharrezkoa da eskatzaileak ziurtagiri elektroniko bat izatea (BakQ, herritarrak, erakundearen ordezkaria...)

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.10 ZERGAPEKOA EZ DEN (ZIURTAGIRIAREN JABEA IZANGO DA) PERTSONA BATEK ESKURA DITZAKE GAILU ZIURTAGIRIAK?

Bai, gailua erabiliko duen zergapekoa ez den beste hirugarren batek eskura ditzake gailu ziurtagiriak.

Hala ere, hura erabiltzen duen zergapekoa lotu behar zaio gailu ziurtagiri horri. Horretarako, esteka honen bidez erregistratu behar du: [Gailu ziurtagirien erregistroa - araba](#), eta zergapekoak berak edo 2-d mailako bere ordezkariak egin ahal izango du.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.11 GAILU ZIURTAGIRI BERAREN ALTA EMAN AL DAITEKE ZERGADUN BATEN BAINO GEHIAGOREN IZENEAN?



Bai. Kasu honetan, zergadun bakoitzak gailu ziurtagiria izen bati lotu behar dio Foru Ogasunean, esteka honen bidez: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/gailu-ziurtagirien-erregistroa>, eta zergapekoak berak edo 2-d mailako bere ordezkariak egin ahal izango du.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)

8.12 NOLA BEREIZ GAILU ZIURTAGIRI BAT?

Zergapekoa gailu ziurtagiri batetik bereizi ahal izango da baldin eta bere izenean alta emandako gailu baten bidez TicketBAI fitxategiak bidaltzeko baimena errebokatu nahi badu. Horretarako, esteka honetara jo behar du: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/gailu-ziurtagirien-erregistroa>, hor egin baitzuen lotura.

Arrazoia bada jarduerari baja ematea edo hura eskualdatzea, gailu horretatik fakturak bidaltzeko azken egunean egin behar du.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK ZIURTAGIRI DIGITALA atalera](#)



9 OINARRIZKO GAIAK FAKTURA BIDALTZEA

9.1 NOIZ BIDALI BEHAR ZAIZKIE TICKETBAI FITXATEGIAK EUSKADIKO ZERGA ADMINISTRAZIOEI?

Zergapekoek TicketBAI fitxategiak bidali beharko dizkiote PFEZ, SZ edo, hala badagokio, EEEZren araugintzaren eskumena duen foru administrazioari.

Euskadiko zerga administrazio bakoitzak araudi propioan ezarriko du TicketBAI fitxategiak bidali edo bidaltzeko epea. Epe hori aldatu ahal izango da eta, esterako, TicketBAI fitxategiak berehala bidaltzeko eska daiteke, eragiketari dagokion faktura sortu eta egin bezain laster, edo igorpena aldizkakoa izan daiteke, gehienez ere, hiruhilekoko epeen arabera.

Arabaren kasuan, TicketBAI fitxategiak faktura edo egiaztageria eman eta berehala bidali behar dira, linean.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.2 ZER GERTATUKO DA ARGIRIK GABE GERATZEN BANAIZ EDO ORDENAGAILUA MATXURATZEN BADA?

Horrelakoetan, edo beste inguruabar batzuk direla kausa zergadunak TicketBAI fitxategirik sortu ezin badu, ezta TicketBAI softwarea erabiliz fakturarik edo egiaztagiririk egin ere, gertaera horren berri eman behar zaio zerga administrazioari, ticketbai@araba.eus helbidera mezu elektroniko bat bidaliz, eta zergadunak faktura edo egiaztageria paperean edo beste bitarteko baten bidez egin eta bidaliko dio pertsona edo erakunde hartzaileari, eta kopia bat gorde beharko du. Mezu elektroniko horretan zergadunak honako hau adierazi behar du:



- Identifikazioa: izena edo sozietatearen izena eta IFZ/IFK.
- Gorabehera eragin duen arrazoia.
- Posta elektronikoen 'gaia' eremuan, TicketBAI sistemari buruzko araudiaren 17. artikuluan jasotako gorabeheretako bat dela adierazi behar da.

Faktura edo egiaztagiria **sail espezifiko** batean jaso behar da, eta gorabehera hori aipatzen duen adierazpena erantsi behar zaio, araudiaren 17. artikulua xedatutakoarena arabera. TicketBAI fitxategiak sortzea eta TicketBAI softwarea erabiliz faktura edo egiaztagiria egitea eragozten duen arrazoia amaitu bezain laster, honako hauek egin behar dira hurrenez hurren: TicketBAI softwarean jaso faktura guztien datuak, TicketBAI fitxategiak sortu, eta zerga administrazioari bidali.

TicketBAI softwareak jaulkitako faktura edo egiaztagiria kopiaztat joko da.

Ez da beharrezkoa izango informaziorik, komunikaziorik edo jakinarazpenik bidaltzea gorabehera horren arrazoia zuzentzen edo amaitzen denean.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.3 INTERNETEN KONEKTATURIK EGON BEHAR NAIZ FAKTURAK JAULKI AHAL IZATEKO? ETA INTERNETEKO KONEXIOA ETETEN BADA, FAKTURAK JAULKITZEN SEGI DEZAKET?

Interneteko konexioa ez da beharrezkoa fakturak sortu eta egin ahal izateko, baina beharrezkoa da, faktura jaulki ondotik, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia administrazioari berehala eta luzamendurik gabe bidaltzeko betebeharra bete dadin. Beraz, Araban, Interneteko konexioa beharrezkoa da TicketBAI betebeharra betetzeko.



Hala ere, konexioa galtzeak edo sarea eteteak ez dakar fakturak egiten jarraitu ezin izatea, hau da, konexio ezak ez du eragozten fakturatzen jarraitzea; hala ere, konexioa berrezarri bezain laster, sistemak aldi horretan sortu diren fitxategi guztiak bidaliko beharko dira.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.4 JARDUERA GARATZEN DEN LEKUAN, INTERNETEKO ESTALDURA NAHIKORIK EZ BADAGO, TICKETBAI SISTEMA EZARRI BEHAR DUT?

Bai. Estaldurarik ez dagoela eta banda zabalaren edo sare mugikorreko operadore bakar baten bidez ere sarera sartzea ezinezkoa dela egiaztatuz gero, Ogasun Zuzendaritzak, zergadunak eskatuta, bidalketa geroratu baimendu ahalko du.

Esteka honen bidez egin behar da eskaera <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/bidalketa-geroratuak>, eta egiaztatu behar da ez dagoela Interneterako sarbiderik, inoiz ere ez eta operadore bakar batekin ere:

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.5 NOLA INPORTATU ALDEZ AURRETIK BIDALKETA GERORATUA EGITEKO BAIMENA JASO DUEN ZERGADUN BATEN FAKTURAK?

Abenduaren 23ko 774/2022 Foru Aginduaren 11. artikulua arabera, TicketBAI artxiboak Arabako Ogasunera bidaltzeko bidalketa geroratu egiteko baimena jaso duen zergadunak dagokion XML fitxategia inportatu behar du esteka honetan, "Sartu bidalketa geroratura" atalean: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/bidalketa-geroratuak>

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)



9.6 ZEIN DIRA BIDALKETAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK ARABAN?

Bidalketa REST zerbitzu baten bidez egiten da. Horri buruzko zehaztapenak TicketBAI sistemaren zehaztapen teknikoak arautzen dituen Foru Aginduaren IV. eranskinean argitaratuta daude, eta webgune honetan agertzen dira:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/dokumentazio-teknikoa>

[*Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera*](#)

9.7 NORK BIDAL DITZAKE FITXATEGIAK?

Zergadunaren beraren edo 2d mailadun borondatezko ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen ziurtagiri bat erabiliz bidal daiteke. Gailuaren ziurtagiri bat erabiliz ere egin daiteke, jaulkitzailearen eta gailuaren ziurtagiriaren arteko lotura eginez.

“Hirugarren” edo “hartzaile” gisa ere egin daitezke fakturak, hirugarren edo hartzaile horren nortasuna egiaztatzen duen ziurtagiri bat erabiliz (eta dagokion marka xml fitxategian jarrita).

[*Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera*](#)

9.8 BEZ ZERGA ERREGISTRATZEKO LIBURUETAN GAUR EGUN JASOTZEN DEN INFORMAZIO BERA BIDALI BEHAR DA?

Ez, TicketBAI sistemaren bidez fakturaren informazio jakin bat igortzen da, beste datu batzuez gain. Datu horiek, neurri handi batean, bat datoz emandako fakturen erregistro liburuan jasotako informazioarekin. TicketBAI betebeharra betetzeko bidali den informazio hori ez da berriro bidali beharko.



[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.9 TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIAK FAKTURA SORTU DENEKO GAILUTIK EZ, BESTE BATETIK BIDAL DAITEZKE?

Bai, erabilitako arkitekturaren eta softwarearen arabera, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia hainbat gailutan sortu eta bidal daiteke, hala nola hainbat fakturazio gailuren fitxategiak bidaltzen dituen zerbitzari nagusi batean.

Halaber, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia sinatzeko eta sortzeko erabili ez den beste ziurtagiri bat erabiliz ere bidal daiteke.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.10 ZER EGIN BEHAR DA TICKETBAI FITXATEGIAREN IDAZPENA ONARTU EZ BADA OGASUNERA BIDALTZERAKOAN?

- ❖ Ogasunera bidaltzerakoan, TicketBAI fitxategia eskema betetzen ez duelako, xehetasun lerrorik ez daukalako, ziurtagiria baliozkoa ez delako edo nahitaezko datuak jasota ez dituelako **ONARTU EZ** bada, akatsa honela **ZUZENDU** beharko da:

Jatorrizko fitxategia ezin da aldatu, eta, beraz, aldatu gabe geratuko da.

Gaur egun garapen aldian dagoen **ZUZENDU** zerbitzuaren bidez, **ZUZENTZE** fitxategi berria bidaliko da, datuak osaturik eta zuzenduta dituen, baina **EZ** da era elektronikoan sinatuko; fitxategi horretan, jatorrizko fitxategiaren sinadura elektronikoa txertatu beharko da.

- ❖ Erantzun mezuan, **bidalketa aldatu** behar dela adierazten duten **ABISUAK** jasotzen badira (fakturan agertzen ez diren datuak dira, baina XML fitxategiari soilik eragiten diote, adibidez: BEZ zergaren araubidearen inkongruentzia bat, zuzendutako fakturak ez dira identifikatu...), **ZUZENDU** zerbitzua erabiliz, **ALDAKETA FITXATEGIA** bidali beharko da, datuak osaturik



eta zuzenduta dituen, baina EZ da era elektronikoa sinatuko; fitxategi horretan, jatorrizko fitxategiaren sinadura elektronikoa txertatu beharko da.

- ❖ Aitzitik, fakturazio erregelamenduaren 15. artikuluan aipatzen den fakturaren edukiren bat aldatu behar bada, ezin izango da ZUZENDU zerbitzua erabili; faktura zuzentzailea egin beharko da, dagokion TicketBAI fitxategia sortu eta informazioa bidali.
- ❖ Ezohiko kasuetan, eragiketa okerra denean (faktura zuzentzailea jaulkitzetik salbuetsita daude kasu horiek), adibidez, benetako salmentarik izan ez denean, faktura akastuna egin bada, jatorrizko eragiketa deuseztatu beharko da, eta **DEUSEZTATZEKO** TicketBAI fitxategia jaulki beharko da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.11 DOKUMENTURIK SORTU BEHAR DA TICKETBAI FITXATEGI BAT DEUSEZTATZEN DENEAN?

Ez da beharrezkoa dokumentu berririk sortzea eta inprimatzea, baina egin daiteke. TicketBAI fitxategia baliogabetzen edo deuseztatzen denean, sinatutako XML fitxategia sortu eta dagokion foru ogasunera bidali behar da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.12 FAKTURA SINPLIFIKATU BATEAN, BEREIZ IDENTIFIKATU BEHAR DIRA EMANDAKO ONDASUN ETA ZERBITZU GUZTIAK EDO GUZTIEN AIPAMEN OROKORRA EGIN DAITEKE?

Faktura sinplifikatu (edo 'tiket') batean, faktura oso batean ez bezala, BEZ zergaren ondorioetarako, emandako ondasun eta zerbitzuen tratamendua berdina den heinean, ez da beharrezkoa emandako ondasun edo zerbitzu bakoitza banaka identifikatzea; nahikoa da horien aipamen orokorra egitea (adibidez, jabetxe zerbitzuak).



Hala eta guztiz ere, bereizita identifikatu behar dira BEZ zergaren ondorioetarako tratamendu desberdina duten ondasun eta zerbitzu motak (tasa desberdinak dituztenak, salbuetsiak eta salbuetsi gabeak...).

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.13 NOIZ BETE BEHAR DUTE TICKETBAI SISTEMA HARTZAILEAK BIDALITAKO FAKTUREK ERAGIKETA GAUZATU DUEN ENPRESABURUAREN IZENEAN ETA HAREN KONTURA?

Eragiketaren hartzaileak jaulkitako fakturak TicketBAI sistemari lotuko zaizkio soil-soilik bi operadoreak (igorlea eta hartzailea) foralak badira eta biak TicketBAI sistema betetzera behartuta badaude.

Igorlea sistemari loturik ez badago eta hartzailea bai, faktura horiek ez zaizkio TicketBAI sistemari lotuko.

Igorlea TicketBAI sistemari lotuta badago eta hartzailea ez (gerta daiteke hartzaileari, forala izan arren, sistemaren derrigortasuna artean ez aplikatzea), faktura horrek ere ez ditu TicketBAI baldintzak bete beharko.

Beraz, eragiketaren hartzaileak jaulkitako fakturetan, bi operadoreak sistemara behartuta dauden unetik aurrera baino ez da bete beharko TicketBAI sistemaren beharkizuna.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.14 NOLA BIDALI BEHAR DITU JAULKITZAILEAK TICKETBAI FITXATEGIAK FAKTURAK HARTZAILEAK JAULKI BADITU?



Faktura hartzaileak jaulkitzen badu, hartzaileak bete behar du TicketBAI betebeharra, betiere PFEZren edo SZren foru araudiaren mende badago.

Bi modutan egin daiteke (48/2021 Foru Dekretuaren 15.artikulua dionaren arabera):

- a) Eragiketaren pertsona edo erakunde hartzaileak (bezeroak) egin dezake, faktura jaulkitzean, hornitzaileari dagokion Foru Ogasunera bidalita XML fitxategiak.
- b) Pertsonak edo erakundeak berak (hornitzaileak) egin dezake, zergapeko jaulkitzaile gisa, faktura onartu bezain laster, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Departamentuko foru diputatuak ezarritako modu-lekuetan.

Fakturak hartzaileak jaulkitzen dituenean, XML fitxategiak pertsona edo erakunde jaulkitzaileak berak bidaltzen baditu Zerga Administrazioa -a) kasua-, komenigarria da eta gomendatzen da hartzaileak faktura igorri aurretik zirriborro bat bidaltzea jaulkitzaileari, akatsik ez dagoela egiaztatzea.

Zuzenketa egiten bada, ondoren faktura jaulki behar da, hartzaileak faktura eta XML fitxategia egin ditzan eta biak jaulkitzaileari bidal diezazkion. Jaulkitzaileak faktura onartu ondoren, TicketBAI fitxategia bidali behar dio Zerga Administrazioari.

Jaulkitzaileak gerora ezetsitako fakturak sortzea saihestea da helburua; izan ere, horien fitxategiak TicketBAIra bidali behar dira, faktura horien kateatzea ez hausteko.

Hornitzailea arduratzen bada -b) kasuan- hartzaileak egindako faktura baten TicketBAI fitxategia bidaltzeaz, aukera bat gaitu da esteka honetan, faktura eta XML fitxategia jaso eta onartu ondoren fitxategiak igotzeko: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/bidalketa-geroratuak> Hornitzaileak 8 egun naturaleko epean igo beharko ditu fitxategiak, faktura egin denetik zenbatzen hasita.



[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

9.15 ZER GERTATZEN DA FAKTURA JAULKITZAILE BATEK EZ BADU ONARTZEN HARTZAAILEAK BIDALTZEN DION FAKTURA?

Fakturak hartzaileak jaulkitzen dituenean, TicketBAI fitxategia fakturaren hartzaile den jaulkitzaileak berak (bezeroak) bidaltzen badu, eta faktura jada jaulki bada, nahiz eta gero jaulkitzaileak (hornitzaileak) ez onartu, zerga administraziora bidali behar da, eta dagokion baliogabetze fitxategia ondoren bidal daiteke.

Hala egin behar da zenbakiak eta kateamendua direla eta; izan ere, adierazi bezala egin ezean, kateatze errore bat gertatuko litzateke hartzaileak faktura jaulki eta jaulkitzaileak (hornitzaileak) onartuko ez balu, administrazioak ez bailuke ezetsitako fakturari dagokion fitxategia izango, ezta haren baliogabetzerik ere. Hori dela eta, faktura ezetsia izan arren, kateatze errorerik izan ez dadin, nahitaezkoa da jaulkitzaile hartzaileak (bezeroak) TicketBAI sistemara bidaltzea ezetsitako fakturari dagokion fitxategia eta faktura baliogabetzeko geroko fitxategia.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK · FAKTURA BIDALTZEA atalera](#)

10 OINARRIZKO GAIAK · FAKTURAK



10.1 TICKETBAI FITXATEGIAK ERAGITEN AL DIE FAKTURAZIO ARAUDIAREN ARABERA EGIN DAITEZKEEN FAKTURA MOTEI? BADA LABURBILTZE FAKTURARIK EGITEKO AUKERARIK?

TicketBAI betebeharra betetzeak ez die eragiten fakturazio araudian ezarritako aukerei.

Beraz, TicketBAIk ez du aldatzen fakturazio araudian ezarritako aukera hori, eta laburbiltze fakturak egiteko aukera ematen du.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.2 PAPEREAN EGIN DAITEKE FAKTURA ALA ELEKTRONIKOA IZAN BEHAR DU BETI?

Fakturaren datu ia guztiak biltzen dituen fitxategi elektronikoa sortzea nahitaezkoa denez, faktura edo egiaztagiria formatu elektronikoan egin eta bidaltzea lehenetsiko da, hartzaileak egiaztagiria edo faktura paperean eskatzen badu izan ezik.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.3 LEHENDIK EGINDAKO FAKTURA BATEN DATUAK ALDA DAITEZKE TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ?

Ezin da fakturarik aldatu aldez aurretik TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategi berria sortu gabe.

Faktura zuzentzaile berria egin behar bada, lehengo faktura baten akatsik zuzentzeko, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategi bat sortu behar da aldez aurretik.



Eta oso kasu berezietan: salmenta egin gabe, faktura akastuna egin bada edo zergapekoak hartzaileak emandako faktura onartzen ez badu, faktura deuseztatzeko TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia sortu beharko da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.4 TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGI BAT BIDALI ONDOTIK, BIDALITAKO XML FITXATEGIAN INOLAKO ERAGINIK ETA GARRANTZIRIK EZ DAUKAN FAKTURAREN DATU BAT ALDATZEN BADUT, FAKTURA ZUZENDU BEHAR DUT?

Bai. Fakturaren edozein datu aldatzen edo zuzentzen bada, haren garrantzia gorabehera, faktura zuzentzailea egin behar da, eta, beraz, faktura zuzentzaile berriari dagokion TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia bidali behar da, edozein aldaketak XML fitxategiaren sinaduran eragina izango lukeelako eta TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiaren osotasuna eta trazabilitatea aldatuko liratekeelako.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.5 TICKETBAI SISTEMAK JAULKITAKO FAKTURA BAT DEUSEZTATU DAITEKE?

Bai. Horretarako, TicketBAI sistemari atxikitako deuseztatze fitxategia sortu behar da.

a) Egoera batzuetan, indarrean dagoen araudiaren arabera faktura zuzentzaileak egin behar direnekoak ez bezalakoetan (ohiko prozedura da), beharrezkoa gerta liteke jaulkitako fakturari baja ematea edo baliogabetzea, eta, hala badagokio, egindako eragiketa behar bezala jasoko lukeen beste bat egitea: adibidez, faktura bat oker egin denean inoiz egin ez den eragiketa batengatik, eta baliogabetu egiten denean. (DGT V0611/2011-03-11), edo



b) hartzaileak emandako faktura zergapekoak onartu ez duenean (kasu horretan, fitxategia deuseztatu egin behar da, faktura bera egon gabe ere).

Kasu horretan, egin ez den eragiketaren fakturaren ziozko faktura deuseztatu edo baliogabetzeko, TicketBAI sistemari atxikitako deuseztatze fitxategia erabili beharko da.

Horregatik, TicketBAI sistemari atxikitako deuseztatze fitxategian, jaulkitzailea eta seriea, zenbakia eta baliogabetutako fakturaren jaulkipen data baino ez dira identifikatu beharko.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.6 TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ JAULKITAKO FAKTURA BAT DEUSEZTATUTAKOAN, DEUSEZTUTAKO FAKTURAREN SERIE ETA ZENBAKI BERDINAK DITUEN TICKETBAI FAKTURA BAT JAULKI DAITEKE?

Ez. Ezin dira berriro erabili deuseztatu edo baliogabetutako fakturaren zenbaki eta serie berdinak; izan ere, faktura deuseztatu arren, baliogabetu nahi den fakturari dagokion XML fitxategia eta TicketBAI sistemari atxikitako deuseztatze XML fitxategia zerga administrazioari bidali behar zaizkio.

Fakturaren zenbakiari eta serieari buruzko informazioa erregistroaren gako bakarraren atal da (nahiz eta faktura baliogabetu), eta ezin dira berriro erabili beste eragiketa bat egiteko.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.7 HARTZAILEAK EGINDAKO FAKTURETAN, HORNITZAILEAK EZ BADU BEZEROAK EGINDAKO FAKTURA ONARTZEN, ZER EGIN BEHAR



DUT BEZEROAK DAGOENKO OGASUNARI BIDALI DION XML FITXATEGIAREKIN?

Hartzaileak hornitzailearen izenean eta haren kontura egindako faktura proposamena hornitzaileak onartzen ez badu, hornitzaileak atzera botatako edo onartu gabeko faktura horri dagokion XML fitxategia deuseztatzeko fitxategia bidali beharko da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.8 FAKTUREN BIKOIZTUAK TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ EGIN BEHAR DIRA?

Ez. TicketBAI sistemak sinatutako XML fitxategia sortzera eta dagokion foru ogasunera bidaltzera behartzen du.

Beraz, ez dio eragiten fakturazio erregelamenduaren 14. artikulua arautzen dituen fakturaren bikoiztuen jaulkipenari. TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiari doazkion faktura baten bikoiztuek jatorrizko fakturaren QR kode berdina eta TicketBAI sistemaren identifikatzaile berdina izan behar dute, bai eta “bikoiztua” dela adierazi ere, baina besterik ez. Hau da, ez dira sinatuta egon behar, ez dira foru ogasunera bidali behar, ez dira egindako fakturen erregistro liburu batean jaso behar eta abar.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.9 EMATE AGIRIAK TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ EGIN BEHAR DIRA?

Ez.



TicketBAI sistema faktura egiteko betebeharra duten eragiketei aplikatzen zaie (fakturazio erregelamenduaren 2. artikulua aplikatuta), bai eta betebeharrak horretatik salbuetsita dauden eragiketei ere (erregelamenduaren 3. artikulua aplikatuta). Bigarren kasu horretan, TicketBAI ondasunak edo zerbitzuak emateko eragiketen dokumentu edo egiaztagiriei aplikatuko zaie, eta emandako ziurtagiri bakoitzari dagozkion TicketBAI sistemari atxikitako fitxategiak sinatu beharko dira.

Albaranen kasua eta azken kasu hori desberdinak dira; izan ere, ondasun edo zerbitzu baten eman izanaren egiaztagiri gisa balio duten merkataritza dokumentuak diren arren, ez dute salbuesten faktura egiteko betebeharrak. Hortaz, eragiketaren faktura da, ez emate agiria, TicketBAI sistemak ezartzen dituen baldintzak betetzeko sortu eta bidali behar dena.

[Itzuli OINARRIZKO GALAK FAKTURAK atalera](#)

10.10 EUROPAR BATASUNAREN BARRUKO ENTREGEN ORDAINKETA AURRERATUTAKO TICKETBAI FAKTURA JAULKI BEHAR AL DA? Ez.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Europar Batasunaren barruko entregen ordainketa aurreratuek ez dakarte BEZaren sortzapenik, eta ez dira faktura bidez dokumentatu behar (2006/112/EE Zuzentarauaren 63. artikulua, BEZari buruzko 37/1992 Legearen 75 Bis artikulua, eta 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako fakturazioaren betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 2. artikulua). Ondorioz, zerga egitatearen aurreko ordainketa aurreratuak Fakturazio Erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritako datu guztiak jasotzen ez dituen dokumentu batean jasotzen badira, ez da fitxategirik bidali beharko TicketBAI betebeharra betetzeko.

Halakoetan, azken faktura jaulkitzen denean bidali behar da faktura TicketBAI bidez, eta eragiketaren zenbateko osoa idatzi behar da (eragiketa mota: 01; E5 gakoa: 25. artikulua dela-eta salbuetsitako faktura).

Hala ere, ordainketa hori Fakturazio Erregelamenduaren 6. artikuluko datu guztiak jasotzen dituen dokumentu batean jasotzea erabakitzen bada, eta, beraz, fakturatzat hartzen bada, TicketBAI



betebeharra betez egin beharko da. Halakoetan, aurrerakinaren fakturari dagokion TicketBAI fitxategiak honako balio hauek izan behar ditu: eragiketa mota: 01; E5 gakoa: 25. artikulua dela-eta salbuetsitako faktura, eta «Fakturaren deskribapena» eremuan «aurrerakina» terminoa agertu behar da.

Azken entregari dagokion fakturan, BEZarekin lotutako kalkuluak errazago egiteko, kontuan hartu behar da ordainketa aurreratuaren zenbatekoa ezin dela lerro batean sartu (horrek zerga oinarriaren kalkuluari eragingo liokeelako); oharren eremu batean edo antzeko eremu batean jaso behar da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.11 ESPORTAZIOETAN AURRERATUTAKO ORDAINKETEK TICKETBAI FAKTURA JAUKI BEHAR AL DUTE?

Bai. Indarrean dagoen araudiaren arabera, ordainketa aurreratuek BEZaren sortzapena dakarte eta fakturan dokumentatu behar dira (2006/112/EE Zuzentarauaren 63. artikulua, BEZari buruzko 37/1992 Legearen 75 Bis artikulua, eta 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduaren 2. artikulua).

Hona hemen TicketBAIn informazioa emateko modu bat:

Aurrerakinaren faktura erregistratzen da. Eragiketari dagokion zenbateko osoaren erregistroa. 02 eragiketa mota; faktura salbuetsia, E2 gakoa, 21. artikulua arabera; «deskribapena» eremuan «Aurrerakina» hitza adierazi behar da, eta, haren atzetik, egoki irizten den beste edozein ohar jar daiteke (eskariaren zenbakia, kontratua, etab.).

Azken faktura jaulkitzean, Eragiketari dagokion zenbateko osoaren erregistroa egiten da (aurrerakina kenduta). 02 eragiketa mota; faktura salbuetsia, E2 gakoa, 21. artikulua arabera; «deskribapena» eremuan, berriz, egoki irizten den beste edozein ohar jar daiteke (eskariaren zenbakia, kontratua, etab.).



Ez da fakturarik jaulki behar aldez aurreko kobrantza gauzatu baino lehen, horrek zergaren sortzapena zehazten baitu.

[Itzuli OINARRIZKO GAIK FAKTURAK atalera](#)

10.12 BARNE ERAGIKETETAN AURRERATUTAKO ORDAINKETEK TICKETBAI FAKTURA JAUKI BEHAR AL DUTE?

Bai. Indarrean dagoen araudiaren arabera, ordainketa aurreratuek BEZaren sortzapena dakarte eta fakturan dokumentatu behar dira (2006/112/EE Zuzentarauaren 63. artikulua, BEZari buruzko 37/1992 Legearen 75 Bis artikulua, eta 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduaren 2. artikulua).

Hona hemen TicketBAIn informazioa emateko modu bat:

Aurrerakinagatiko faktura erregistratzen da: eragiketari dagokion guztizko zenbatekoa; 01 eragiketa mota; zergapeko eta salbuetsi gabeko faktura, zergapeko faktura salbuetsia edo ez-zergapekoa, eragiketaren arabera, eta «Deskribapena» eremuan «Aurrerakina» hitza adierazi behar da, eta, haren atzetik, egoki irizten den beste edozein ohar jar daiteke (eskariaren zenbakia, kontratua, etab.).

Azken faktura jaulkitzean, eragiketari dagokion zenbateko osoa erregistratzen da (aurrerakina kenduta): 01 eragiketa mota; zergapeko eta salbuetsi gabeko faktura, zergapeko faktura salbuetsia edo ez-zergapekoa, eragiketaren arabera, eta «Deskribapena» eremuan, egoki irizten den beste edozein ohar jar daiteke (eskariaren zenbakia, kontratua, etab.).

Ez da fakturarik jaulki behar aldez aurreko kobrantza gauzatu baino lehen, horrek zergaren sortzapena zehazten baitu.

[Itzuli OINARRIZKO GAIK FAKTURAK atalera](#)

10.13 TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZEKO, BALIOZKOAK AL DIRA PROFORMAKO FAKTURAK ?



Proformako fakturek ez dute balio fiskalik. Ez dira fakturak, Fakturazio Erregelamenduan ezarritakoaren (18/2013 Foru Dekretua) eta TicketBAI sistemaren araudiaren arabera, ez dutelako TicketBAI identifikatzailerik, ezta QR koderik ere.

Proformako fakturak behin-behineko merkataritza dokumentuak dira, eta oraindik egin ez den eragiketa baten faktura baten xehetasunak zehazten dira bertan. Fakturen zirriborroak dira beraz.

Horregatik, Fakturazio Erregelamenduaren 11. Artikuluak dionaren arabera, zerbitzu bat eman edo ondasun bat entregatu ondoren, hartzailea azken kontsumitzaile bat denean, berehala jaulki behar da faktura, eta ezin da inola ere proformako fakturarik egin.

Proformako faktura bat jaulki eta azkenean eragiketa egiten den guztietan, proformako faktura jaulkitako behin betiko fakturarekin -TicketBai identifikatzailea eta QR kodea izan behar ditu- ordezkatu behar da, eta bezeroari eman behar zaio. TicketBAI behin betiko faktura hori ez egitea zigortu daitekeen arau haustea izango da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 118. artikulua edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 133. artikulua arabera.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.14 JAULKI AL DAITEZKE “PROFORMAKO FAKTURAK” TICKETBAI FAKTURA BAT EGIN AURRETIK?

TicketBAI sistema arautzen duen araudiak eta fakturazio betebeharrak ezartzen dituen arautegiak ez dute debekatzen "proformako fakturak" edo "aurretiketak" egitea; alabaina, behin betiko TicketBAI faktura egin arte, faktura hori ezingo da egin dagokion QR kodearekin eta TicketBAI identifikatzailearekin.

Horregatik, "proformako fakturek" edo "aurretiketek" ezin dute ez QR koderik, ez TicketBAI identifikatzailerik izan, eta argi adierazi behar dute ez direla behin betikoak.

Gainera, "proformako fakturak" edo "aurretiketak" jaulkitzea baimenduta dago, baldin eta, azkenean, TicketBAI fakturek edo faktura erraztuek ordeztzen badituzte eta bezeroari entregatzen bazaizkio.



TicketBAI software berme-emaile batek hartzaileari ematen edo bidaltzen zaizkion "proformako fakturak" edo "aurretiketak" sortzeko sistema bat ezartzen badu, sistema horrek nahitaez lotuta egon behar du TicketBAI fakturak jaulkitzeko software berme-emailearekin, unitate bat osatuz.

Hori dela eta, ez da onargarria "proformako fakturak" edo "aurretiketak" sortzeko sistemak erabiltzea, TicketBAI software berme-emaileak ez badu prestatze dokumentu horiek TicketBAI fakturei behar bezala lotuta gordetzeko kontrol elementurik, edo fakturarik ezean, dokumentu horiek sisteman erregistratuta eta gordeta geratzeko elementurik.

Kontrol elementu horiek ez izateak TicketBAI software berme-emaileek bete behar dituzten bortxaezintasun eta trazabilitate baldintzak ez betetzea ekarriko luke.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.15 ZER DIRA BORTXAEZINTASUNA ETA TRAZABILITATEA?

Bortxaezintasunak esan nahi du fakturazio erregistroak aldaezinak direla; alegia, behin sortu eta erregistratu ondoren, ezin dira aldatu sistema informatikoak detektatu eta ohartarazi gabe, eta, gainera, eraldaezinak dira, hau da, hirugarren programa batek ezin ditu manipulatu.

Fakturazio erregistroak aldatu direla joko da sistema informatikoak jatorriz sortu eta erregistratutako edozein fakturazio erregistro ezkutatu edo ezabatzen bada, edo sistema informatikoak sortu eta erregistratutako edozein fakturazio erregistrotako datuak ezkutatu edo aldatzen badira, osorik edo zati batean, edo sistema informatikoak sortu eta erregistratutakoez bestelako fakturazio erregistro simulatu edo faltsuak gehitzen badira.

Erregistratutako datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko, fakturazio erregistro gehigarri bat egin beharko da, gutxienez, gerora, jatorrian erregistratutako datuak aldatu gabe gorde daitezten.



Erregistratutako datuen bortxaezintasuna eta aldaezintasuna ziurtatzeko, sistema informatikoan grabatzen diren unetik fakturazio erregistroen izaera fidagarria eta osoa bermatzen duen edozein prozesu tekniko fidagarri erabiliko da.

Trazabilitateak esan nahi du fakturazio erregistroek kateatuta egon behar dutela, haien arrastoa egiaztatu ahal izateko, prozesu osoari eta sorrera sekuentziari jarraituz, lehenengotik azkenera. Horretarako, erregistratutako datuen jarraipena modu argi eta fidagarrian egitea ahalbidetzen duten funtzionaltasunak eskaini beharko ditu sistema informatikoak.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.16 TICKETBAI SISTEMAN, NOLA JAULKITZEN DA “OPARI TIKETA”?

“Opari tiketa” dokumentu gehigarri bat da, opari bat jasotzen duen pertsona batek prezioa jakin gabe hura itzuli edo aldatu ahal izateko ematen dena. Agiri horrekin batera, eragiketa dokumentatzen duen faktura erraztua eman behar zaio erosleari. Faktura hori TicketBAI betebeharra betez jaulki behar da.

Beraz, “opari tiketa” ez da TicketBAI betebeharra betez jaulki behar, eta ez du izan behar ez QR koderik, ez TicketBAI identifikazio koderik.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.17 FAKTUREN LABURPEN IDAZPENAK ERREGISTRA DAITEZKE TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ?

Ez.

Nahiz eta jaulkitako fakturen laburpen idazpenak egiteko baldintzak bete, hots BEZaren Erregelamenduaren 63.4 artikuluan ezarritakoak (fakturak data berean egitea –hau da, eguneko laburpen idazpenak izan behar dira–, hartzaillearen identifikazioa nahitaezkoa ez izatea eta eragiketa dokumentatuen sortzapena hilabete natural berean gertatu izana), TicketBAI sisteman,



jaulkitako faktura informazioa dakarten TicketBAI fitxategiak sinatu eta bereiz bidali behar zaizkio zerga administrazioari, hots, banaka.

Horrela, eragiketaren hartzaileak gerora egiaztatu ahal izango du, zerga administrazioaren webgunean, faktura jaulkitzaileak aitortu dion ala ez.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.18 NOLA EGIAZTA DAITEKE ZEIN FAKTURA BEHAR BEZALA BIDALI DIREN?

Bidalketak helbide honetan kontsulta daitezke (baita Excel fitxategi batean deskargatu ere):
<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/bidalitako-fakturak-kontsultatzea>

Orrialde honetan, proben ingurunera nahiz produkziokora bidalitako fakturak kontsultatu ahal izango dira, eta egiaztatu ahal izango da behar bezala bidali diren edo errore oharren bat duten. Errorerik izanez gero, lehenbailehen zuzendu behar da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK atalera](#)

10.19 ZER FUNTZIO DITU “BIDALIKO FAKTURAK KONTSULTATZEKO” ATALA?

TicketBAI ataleko “BIDALITAKO FAKTUREN KONTSULTATZEA” aplikazioan, FakturAraba aplikazioa erabiliz bidalitako fakturak eta beste edozein TicketBAI fakturazio software erabiliz bidalitako fakturak kontsulta daitezke.

Aplikazioaren menuan aukera hauek daude:



- a) “Fakturak kontsultatu”, aukeraren bidez, FakturArabarekin nahiz beste edozein TicketBAI fakturazio software erabiliz Arabako Foru Aldundiko Ogasunera bidali diren fakturak kontsulta daitezke, baldin eta bidalketaren emaitza "Jasota" izan bada.
- b) “Erroreak kontsultatu” aukeran, bidalitako fakturak jasotzean sortu diren erroreak (larriak eta oso larriak) kontsulta daitezke, eta errore horien eraginpeko fakturen zerrenda kontsulta daiteke, berrikusteko.

Zerrenda hori bereziki garrantzitsu da, informazio eguneratua ematen baitu erroreak dituzten fitxategiekin honako hauek egiteko:

- 1.- Faktura zuzentzailea jaulki.
- 2.-ZUZENDU zerbitzuaren bidez zuzentze fitxategi bat bidaliz faktura aldatu.

Errore edo ezeste oharra eragin duten erroreak errazago zuzentzeko, "Erroreak zuzentzeko laguntza dokumentua" kontsulta dezakezu esteka honetan:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/hasi-naiz>

Zergadunaren erantzukizuna da jaulkitako fakturetan jasanarazitako kuota guztiak behar bezala aitortzea, XML fitxategia ezetsi den edo zuzentzeko erroreak dituen alde batera utzita.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK SOFTWAREA atalera](#)



11 OINARRIZKO GAIAK · FAKTURAK ZUZENTZAILEAK

11.1 ZER MOTATAKO FAKTURA ZUZENTZAILE DAUDE?

Faktura zuzentzaileak hiru motatakoak izan daitezke:

- 1) Faktura zuzentzailea, diferentziengatik: zuzenketaren zenbatekoa jasotzen du zuzenean, haren zeinua edozein dela ere.
- 2) Urrats batean ordezteko faktura zuzentzailea: zenbatekoak jasotzen ditu zuzenketa egin ondoren geratzen diren bezalaxe, eta zuzendutako fakturaren zenbatekoa ere adierazten du. Datu guztiak fakturra zuzentzaile bakar batean jasotzen dira.
- 3) Bi urratsetan ordezteko faktura zuzentzailea: zenbatekoak jasotzen ditu zuzenketa egin ondoren geratzen diren bezalaxe, eta zuzendutakoaren zenbatekoa ere adierazten du. Kasu honetan bi faktura jaulkitzen dira:



a) Faktura arrunt bat, zuzendutako fakturaren zenbateko berberak kontrako zeinuarekin jasotzen dituen.

b) Bigarren faktura zuzentzaile bat, aurrekoa ordeztzen duena. Bigarren faktura zuzentzaile horretan, oinarrian eta kuotan eragiketaren behin betiko datuak adieraziko dira, eta zuzendutako oinarrian eta kuotan 0 jarriko da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.2 FAKTURA ZUZENTZAILEA NOIZ JAULKI BEHAR DA?

Faktura zuzentzailea jaulki beharra dago fakturan akats material bat egiten denean (hau da, Fakturazio Erregelamenduko 6. edo 7. artikuluan ezarritako baldintzetako bat fakturan betetzen ez denean), bertan zuzenbidezko akats oinarritutako bat dagoenean, jasanarazitako kuota gaizki kalkulatu denean, edo zerga oinarria aldatzera behartzen duten zirkunstantzietako bat gertatzen denean (BEZaren Legeko 80. art).

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.3 ZER EREMU EDUKI BEHAR DITUZTE FAKTURA ZUZENTZAILEEN TICKETBAI FITXATEGIEK?

Faktura zuzentzaileei buruzko TicketBAI fitxategiek honako eremu hauek izan beharko dituzte:

- "Faktura zuzentzailea": "S"

- "Kodea": Balio hauek izan ditzake:

* R1: Faktura zuzentzailea. Zuzenbidean oinarritutako akatsa eta BEZaren Legearen 80.1, 80.2 eta 80.6 art. (merkatugaiak edo ontziak eta enbalajeak itzultzea, rappelak,)

* R2: Faktura zuzentzailea. BEZaren Legearen 80.3 artikulua.(Bezera hartzekodunen konkurtsoan sartu bada, ezarritako epeak eta betekizunak betez)



- * R3: Faktura zuzentzailea. BEZaren Legearen 80.4 artikulua. (Eragiketa guztiz edo partzialki kobraezina bada, ezarritako epeak eta betekizunak betez)
 - * R4: Faktura zuzentzailea: gainerakoa.
 - * R5: Faktura zuzentzailea, faktura erraztuetan.
 - "Mota": Bi balio har ditzake:
 - * "S": Ordezkatzeen faktura
 - * "I": Aldeen faktura
 - "Faktura zuzendu ordezkatuaren ID": Zuzendutako fakturak 100 ere izan daitezke.
- Zuzenketa xede izaten ari d(ir)en faktura(k) zalantzarik gabe identifikatzeko, eremu hauek bete behar dira nahitaez:
- * "FakturaZk": Fakturaren edo fakturen zenbakia adieraziko da.
 - * "Fakturaren jaulkitze data": Fakturaren jaulkitze data adieraziko da.
 - * "FakturaSaila": Sail zenbakia adieraziko da.
- Faktura zuzentzailea ordezkatzegatik bada, gainera, eremu hauek adierazi beharko dira "OrdezkatzeZuzenketaZenbatekoa" atalean:
- "OinarriZuzendua": Jatorrizko fakturaren zerga oinarria (ordezkatua). 0 izango da, ordezkapena 2 urratsetan egitea aukeratu bada.
 - "KuotaZuzendua": Jatorrizko fakturaren kuota jasanarazia. 0 izango da, ordezkapena 2 urratsetan egitea aukeratu bada.
- Gainera, jatorrizko fakturak baliokidetasun errekgua badu, eremu hau adierazi beharko da "OrdezkatzeZuzenketaZenbatekoa" atalean:
- "ErrekarguKuotaZuzendua": Jatorrizko fakturaren baliokidetasun errekguaren kuota. 0 izango da, ordezkapena 2 urratsetan egitea aukeratu bada.



[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.4 NOLA ERREGISTRATUKO DITU IGORLEAK FAKTURA ZUZENTZAILEAK?

Fakturan akats material bat gertatu denean (fakturan, fakturazio erregelamenduaren 6. edo 7. artikulua arabera eskatutako baldintzen bat betetzen ez denean), zuzenbideko oinarria duen akats bat gertatu denean, jasanarazitako kuota oker zehaztu denean edo zerga oinarria aldatzea eragin duten inguruabarretako bat gertatu denean (BEZFaren 80. artikulua) faktura zuzentzaile bat egin beharko da, eta faktura zuzentzailearen mota adierazi beharko da, honako gakoaren bidez: “R1”, “R2”, “R3”, “R4”, “R5”.

Era berean, faktura zuzentzailearen mota zein den adierazi beharko da, “S – ordezpenezko faktura” edo “I - aldean ziozko faktura” gakoak erabiliz.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.5 NOLA KOMUNIKATU BEHAR DIRA ERAGIKETA BOLUMENAREN ZIOZKO DESKONTUAK EDO HOBARIAK BALIATZEN DITUZTEN FAKTURA ZUZENTZAILEAK?

Faktura zuzentzaileen kasuan, zerga oinarriaren aldaketaren jatorria eragiketa bolumenagatik deskontuak edo hobariak baliatzea izan bada, honela jokatu beharko da:

Faktura zuzentzaile bat egingo da, “S” ordeztekoa edo “I” aldeengatikoa, faktura zuzentzaileentzat adierazitakoaren arabera, honako berezitasun hauekin:

- Faktura zuzentzailearen kodea: R1.

“Ordezko faktura zuzenduak” multzoan, “ID Ordezko faktura zuzendua” eremuan, aldaketak eragiten dien lehenengo faktura eta azken faktura identifikatuko dira, eta horiei dagokien deskontuaren edo hobariaren aldia adieraziko da.



“Fakturaren Datuak” multzoan, “Fakturaren Deskribapena” eremuan, “rappel”, “deskontua” edo “hobaria” hitzak agertu beharko dira deskribapen orokorraren barruan.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.6 NOLA ERREGISTRATU BEHAR DITU BIDALTZAILEAK ORDEZPENEZKO FAKTURA ZUZENTZAILEAK, “S” KODEKOAK, ALEGIA?

Fakturaren informazioa bidaltzeko, faktura mota adierazi behar da, honako gako hauen bidez: “R1”, “R2”, “R3” eta “R4”. Faktura sinplifikatu bat zuzentzen bada, gakoa hauxe izango da: “R5”.

Zuzenketa “ordezpenez” egiten denean, egindako zuzenketaren berri eman behar da; era berean, zuzenketaren zenbatekoa ere adierazi beharko da. Informazio hori honela eman ahal izango da:

1. aukera: erregistro berri baten berri eman behar da. Erregistro horretan, zenbateko zuzenak adieraziko dira, honako eremu hauetan zuzendu ondoren: “Zerga oinarria”, “Kuota” eta, hala badagokio, “Errekargua”. Era berean, jatorrizko fakturari dagokionez zuzendutako zenbatekoen berri ere eman behar da, honako eremu hauetan: “Oinarri zuzendua”, “Kuota zuzendua” eta, hala badagokio, “Errekargu zuzendua”.

2. aukera: zuzenketa egin ondoren, zenbateko zuzenak adierazten dituen erregistro berri baten berri emango da, honako eremu hauetan: “Zerga oinarria”, “Kuota” eta, hala badagokio, “Errekargua”. Halaber, zuzendutako zenbatekoak adierazten dituen beste erregistro baten berri emango da.

1. adibidea: zerga oinarriaren murrizketa

1.000 €-ko zerga-oinarria eta 210 €-ko kuota dituen 1. faktura zuzendu egingo da. Zuzenketa zerga oinarria 200 euro gutxitzean datza.



1. aukera: ordeztearen ziozko aldaketak 800 euroko zerga oinarriko eta 168 euroko kuotako faktura zuzentzailea egitea ekarriko luke. Faktura horretan adieraziko da egindako zuzenketa 1.000 eurokoa dela zuzendutako zerga oinarriagatik eta 210 eurokoa zuzendutako kuotagatik.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak:

Faktura mota: Rx

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu gehigarriren berri emango da, zuzendutako oinarria (1.000) eta zuzendutako kuota (210) adierazita.

Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko balioduna adieraziko da: 68€.

BEZaren banakapena: zerga oinarria: 800€, jasanarazitako kuota: 168€

2. aukera: ordeztearen ziozko aldaketak bi faktura jaulkitzea ekarriko luke:

1. Faktura bat, zuzentzailea izango EZ dena eta faktura arrunten zenbaki bera daramana, - 1.000 €-ko zerga-oinarriarekin eta
2. Faktura zuzentzailea, zerga oinarria 800 €koa dela adierazita.

Lehenengo fakturan, honako eremu eta gako hauek jaso behar dira jaulkitako fakturen erregistro-liburuan:

Faktura mota: F1, faktura arrunten zenbaki berdina duena.

BEZaren banakapena: zuzentzen den zenbatekoa ken (-) ikurraz adieraziko da (zerga oinarria: (- 1.000€), jasanarazitako kuota (-210€).

Bigarren zuzenketa fakturan, honako eremu eta gako hauek jaso behar dira:

Faktura mota: Rx

Zuzenketa mota: S



Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu gehigarriren berri emango da, zuzendutako oinarria (0) eta zuzendutako kuota (0) adierazita.

Gututzko zenbatekoa: azken zenbateko balioduna adieraziko da: 968€.

BEZaren banakapena: zerga oinarria: 800€, jasanarazitako kuota: 168€

2. adibidea: zerga-oinarria handitzea

1.000 €-ko zerga-oinarria eta 210 €-ko kuota dituen 2. faktura zuzendu egingo da. Zuzenketa zerga oinarria 200 euro handitzean datza.

1. aukera: ordeztearen ziozko aldaketak faktura zuzentzaile bat igortzea ekarriko luke, 1.200 euroko zerga oinarriarekin eta 252ko kuotarekin. Faktura horretan adieraziko da egindako zuzenketa 1.000 eurokoa dela zuzendutako zerga-oinarriagatik eta 210 eurokoa zuzendutako kuotagatik.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak:

Faktura mota: Rx

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu gehigarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (1.000€) eta “zuzendutako kuota” (210€) adierazita.

Gututzko zenbatekoa: azken zenbateko balioduna adieraziko da: 1.452€.

BEZaren banakapena: zerga oinarria: 1.200€, jasanarazitako kuota: 252€

2. aukera: ordeztearen ziozko aldaketak bi faktura jaulkitzea ekarriko luke:

1. Faktura bat, zuzentzailea izango EZ dena eta faktura arrunten zenbaki bera daramana, - 1.000 €-ko zerga-oinarriarekin eta
2. Faktura zuzentzailea, zerga oinarria 1.200 €koa dela adierazita.

Lehenengo fakturan, honako eremu eta gako hauek jaso behar dira:



Faktura mota: F1, faktura arrunten zenbaki berdina duena.

BEZaren banakapena: zuzentzen den zenbatekoa ken (-) ikurraz adieraziko da (zerga oinarria: (-1.000€), jasanarazitako kuota (-210€).

Bigarren faktura zuzentzailean, ondoko eremu eta gakoak jasoko dira:

Faktura mota: Rx

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu gehigarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (0) eta “zuzendutako kuota” (0) adierazita.

Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko balioduna adieraziko da: 1.452€.

BEZaren banakapena: Zerga oinarria: 1.200€, jasanarazitako kuota: 252€.

3. adibidea: Zerga-oinarria txikiagotzea ez-ordainketarengatik

1.000 €-ko zerga-oinarria eta 210 €-ko kuota duen 3. faktura zuzenduko da, ez ordainketarengatik, jasanarazitako kuota osoa kenduz.

1. aukera: Ordezkatzeagatik aldaketaren ondorioz, zuzentzeko faktura bat egin beharko litzateke, zerga-oinarri gisa 1.000 euro dituen, eta 0 euroko kuota. Horrela, 1.000 euroko zuzenketa egin dela adieraziko da, zuzendutako zerga-oinarriarengatik, eta 210 eurokoa, zuzendutako kuotarengatik.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak:

Faktura mota: R2 / R3

Zuzentzaile mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (1.000€) eta “zuzendutako kuota” (210€).

Zenbateko osoa: baliozkota den azken zenbatekoa adieraziko da: 1.000€.

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000€, jasanarazitako kuota, 0€.



2. aukera: Ordezkatzeagatiko zuzenketaren ondorioz, -1.000 euroko zerga-oinarria duen faktura bat, -210eko kuotarekin, eta zerga-oinarria 1.000 euro eta kuota 0 euro direla adieraziko den faktura zuzentzaile bat egin beharko lirateke.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak lehen fakturan:

Faktura mota: F1

BEZaren banakapena: zuzentzen den zenbatekoa kontrako zeinuarekin adieraziko da (zerga oinarria: (-1.000€), jasanarazitako kuota (-210€).

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak bigarren faktura zuzentzailean:

Faktura mota: R2 / R3

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (0) eta “zuzendutako kuota” (0).

Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: 1.000€.

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000€, jasanarazitako kuota, 0€.

4. adibidea: Aurretiko faktura zuzentzailearen zuzenketa: zerga-oinarria handitzea.

Zerga-oinarri gisa -1.000 € eta -210 €-ko kuota dituen R1/2023 faktura zuzentzailea zuzenduko da. Zuzenketaren ondorioz, zerga-oinarria 200 eurotan handituko da, R1/2023 faktura zuzentzailearen zerga-oinarriak -800 € eta kuotak -168 € izan beharko luketelako.

1. aukera: Ordezkatzeagatiko aldaketaren ondorioz, beste faktura zuzentzaile bat egin beharko litzateke, zerga-oinarri gisa -800 euro dituen, eta -168 euroko kuota. Horrela, -1000 euroko zuzenketa egin dela adieraziko da, zuzendutako zerga-oinarriarengatik, eta -210 eurokoa, zuzendutako kuotarengatik.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak:



Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (-1.000€) eta “zuzendutako kuota” (-210€).

Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: (-968€).

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -800€, jasanarazitako kuota, (-168€).

2. aukera: Ordezkatzeagatiko zuzenketaren ondorioz, 1.000 euroko zerga-oinarria duen faktura bat, eta zerga-oinarria -800 euro dela adieraziko den faktura zuzentzaile bat egin beharko lirateke.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak lehen fakturan:

Faktura mota: F1

BEZaren banakapena: zuzentzen den zenbatekoa kontrako zeinuarekin adieraziko da (zerga oinarria: 1.000€, jasanarazitako kuota, 210€).

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak bigarren faktura zuzentzailean:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (0) eta “zuzendutako kuota” (0).

Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: (-968€).

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: (-800€), jasanarazitako kuota, (-168€).

5. adibidea: Aurretiko faktura zuzentzailearen zuzenketa: zerga-oinarria txikiagotzea.

Zerga-oinarri gisa -1.000 € eta -210 €-ko kuota dituen R2/2023 faktura zuzentzailea zuzenduko da. Zuzenketaren ondorioz, zerga-oinarria 200 eurotan txikiagotuko da, R2/2023 faktura zuzentzailearen zerga-oinarriak -1.200 € eta kuotak -252 € izan beharko luketelako.



1. aukera: Ordezkatzeagatiko aldaketaren ondorioz, beste faktura zuzentzaile bat egin beharko litzateke, zerga-oinarri gisa -1.200 euro dituen, eta -252 euroko kuota. Horrela, -1000 euroko zuzenketa egin dela adieraziko da, zuzendutako zerga-oinarriarengatik, eta -210 eurokoa, zuzendutako kuotarengatik.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (-1.000€) eta “zuzendutako kuota” (-210€).

Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: (-1.452€).

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: (-1.200€), jasanarazitako kuota (-252€).

2. aukera: Ordezkatzeagatiko zuzenketaren ondorioz, 1.000 euroko zerga-oinarria duen faktura bat, eta zerga-oinarria -1.200 euro dela adieraziko den faktura zuzentzaile bat egin beharko lirateke.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak lehen fakturan:

Faktura mota: F1

BEZaren banakapena: zuzentzen den zenbatekoa kontrako zeinuarekin adieraziko da (zerga oinarria: 1.000€, jasanarazitako kuota, 210€).

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak bigarren faktura zuzentzailean:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (0) eta “zuzendutako kuota” (0).



Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: (-1.452€).

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: (-1.200€), jasanarazitako kuota (-252€).

6. adibidea: Zenbateko negatiboa duen aurretiko faktura zuzentzailearen zuzentzea: zerga-oinarria zenbateko positibora arte handitzea.

Zerga-oinarri gisa -1.000 € eta -210 €-ko kuota dituen R3/2023 faktura zuzentzailea zuzenduko da. Zuzenketaren ondorioz, zerga-oinarria 1.500 eurotan handituko da, R3/2023 faktura zuzentzailearen zerga-oinarriak 500 € eta kuotak 105 € izan beharko luketelako.

1. aukera: Ordezkatzeagatiko aldatetaren ondorioz, beste faktura zuzentzaile bat egin beharko litzateke, zerga-oinarri gisa 500 euro dituen, eta 105 euroko kuota. Horrela, -1.000 euroko zuzenketa egin dela adieraziko da, zuzendutako zerga-oinarriarengatik, eta -210 eurokoa, zuzendutako kuotarengatik.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (-1.000€) eta “zuzendutako kuota” (-210€).

Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: 605€.

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 500€, jasanarazitako kuota, 105€.

2. aukera: Ordezkatzeagatiko zuzenketaren ondorioz, 1.000 euroko zerga-oinarria duen faktura bat, eta zerga-oinarria 500 euro dela adieraziko den faktura zuzentzaile bat egin beharko lirateke.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak lehen fakturan:

Faktura mota: F1



BEZaren banakapena: zuzentzen den zenbatekoa kontrako zeinuarekin adieraziko da (zerga oinarria: 1.000, jasanarazitako kuota, 210.

Hauek dira kontsignatzeko eremuak eta kodeak bigarren faktura zuzentzailean:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: S

Zuzenketaren zenbatekoa: beste bi eremu adieraziko dira: “zuzendutako oinarria” (0) eta “zuzendutako kuota” (0).

Zenbateko osoa: baliozkoa den azken zenbatekoa adieraziko da: 605€.

BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 500€, jasanarazitako kuota, 105€.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.7 NOIZ BETE BEHAR DIRA “ORDEZKO ZUZENKETAREN ZENBATEKOA” DERITZEN EREMUAK?

“Ordezko zuzenketaren zenbatekoa” multzoaren barruan dauden eremuak ordeztearen ziozko faktura zuzentzaile bat jaulkitzen denean eta urrats bakarrean zuzentzea erabakitzen denean baino ez dira bete behar. (Faktura zuzentzailearen etiketan, S gakoa markatu behar izan da).

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.8 NOLA ERREGISTRATUKO DITU IGORLEAK ALDEENGATIKO FAKTURA ZUZENTZAILEAK “I” KODEKOAK, ALEGIA?

Informazioa faktura mota adieraziz erregistratzen da, honako gako honekin: “R1”, “R2”, “R3”, “R4” edo “R5”.



Faktura zuzentzailea faktura sinplifikatua bada, “S” gakoa adierazi beharko da “faktura sinplifikatua” eremuan.

Zuzenketa “aldean ziozkoa” bada, zuzenketaren zenbatekoaren gaineko informazioa eman beharko da zuzenean.

Horretarako, faktura zuzentzailearen berri eman beharko da **erregistro bakarrean**, “I” gakoa erabiliz.

1. Adibidea: Zerga oinarria murriztea

1.000 euroko zerga oinarria eta 210 euroko kuota dauzkan 1. zenbakidun faktura zuzendu egin behar da. Zuzenketa zerga oinarria 200 euro gutxitzean datza. Aldaketen ziozko zuzenketa eginez gero, ondoko zerga oinarria daukan faktura egin beharko da: - 200 €.

Hauek dira jaso beharreko eremuak eta gakoak:

Faktura mota: Rx

Zuzenketa mota: I

Zenbatekoa, guztira: Zuzenketaren zenbateko osoa -242€ adieraziko da.

BEZaren banakapena: Zerga-oinarria: -200€, jasanarazitako kuota – 42€.

2. adibidea: zerga oinarriaren igoera

1.000 €-ko zerga-oinarriko 2. faktura eta 210 €-ko kuota zuzendu egingo dira. Zuzenketa zerga-oinarria 200 euro igotzean datza. Diferentziengatik aldaketak 200 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaulkitzea ekarriko luke.

Hauek dira jaso beharreko eremuak eta gakoak:

Faktura mota: Rx

Zuzenketa mota: I

Zenbatekoa guztira: Zuzenketaren zenbateko osoa 242€ adieraziko da.



BEZaren banakapena: Zerga-oinarria: 200€, jasanarazitako kuota 42€.

3. adibidea: ez ordaintzeagatiko zerga oinarriaren murrizketa

1.000 €-ko zerga-oinarriko 3. faktura eta 210 €-ko kuota zuzendu egingo dira ez ordaintzeagatik, jasanarazitako kuota osoa kenduz. Diferentziengatiko aldaketak 0 €-ko zerga-oinarria eta -210 €-ko kuota duen faktura jaulkitzea ekarriko luke.

Hauek dira jaso beharreko eremuak eta gakoak:

Faktura mota: R2/R3

Zuzenketa mota: I

Zenbatekoa, guztira: Zuzenketaren zenbateko osoa adieraziko da -210€.

BEZaren banakapena: Zerga-oinarria: 0€, jasanarazitako kuota -210€.

4. adibidea: aurretiazko faktura zuzentzailea zuzentzea: zerga-oinarria handitzea.

1.000 €-ko zerga-oinarriko 1 bis faktura zuzentzailea eta 210 €-ko kuota zuzendu egingo dira.

Zuzenketa zerga-oinarria 200 euro handitzean datza; izan ere, 1 bis faktura zuzentzaileak 800 €-ko zerga-oinarria eta 168 €-ko kuota izan behar zuen.

Diferentziengatiko aldaketak 200 €-ko zerga-oinarria duen faktura zuzentzaile berria jaulkitzea ekarriko luke.

Hauek dira jaso beharreko eremuak eta gakoak:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: I

Zenbatekoa guztira: Zuzenketaren zenbateko osoa adieraziko da 242€.

BEZaren banakapena: Zerga-oinarria: 200€, jasanarazitako kuota 42€.



5. adibidea: aurretiazko faktura zuzentzailearen zuzenketa: zerga-oinarriaren murrizketa.

Zerga-oinarriko -1.000 €-ko 2 bis faktura zuzentzailea eta -210 €-ko kuota zuzendu egingo dira. Zuzenketa zerga-oinarria 200 euro gutxitzean datza; izan ere, 2 bis zenbakiko faktura zuzentzailea – 1.200 €-ko zerga-oinarriaren eta – 252 €-ko kuotaren bidez jaulki behar zen.

Diferentziengatiko aldaketak ekarriko luke faktura zuzentzaile berri bat jaulkitzea, -200 €-ko zerga-oinarriarekin.

Hauek dira jaso beharreko eremuak eta gakoak:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: I

Zenbatekoa, guztira: Zuzenketaren zenbateko osoa adieraziko da -242€.

BEZaren banakapena: Zerga-oinarria: -200€, jasanarazitako kuota -42€.

6. adibidea: zenbateko negatiboaren aurretiazko faktura zuzentzailea zuzentzea: zerga-oinarria zenbateko positiboraino handitzea.

Zerga-oinarriko -1.000 €-ko 3 bis faktura zuzentzailea eta -210 €-ko kuota zuzendu egingo dira. Zuzenketa zerga-oinarria 1.500 euro handitzean datza; izan ere, 3 bis zuzenketa-faktura 500 €-koa eta 105 €-koa izan behar zen.

Diferentziengatiko aldaketak 1.500 €-ko zerga-oinarria duen faktura zuzentzaile berria jaulkitzea ekarriko luke.

Hauek dira jaso beharreko eremuak eta gakoak:

Faktura mota: R4

Zuzenketa mota: I

Zenbatekoa, guztira: Zuzenketaren zenbateko osoa 1.815€ izango da.

BEZaren banakapena: Zerga-oinarria 1.500€, jasanarazitako kuota 315€.



[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.9 ZER ADIERAZI BEHAR DA “OINARRI ZUZENDUA” “ORDEZTE ZUZENKETAREN ZENBATEKOA” EREMUAREN BARRUAN?

Honako hau adierazi behar da:

- Zuzendutako fakturaren “zerga oinarria” eremua, zuzendutako fakturan jasotako eragiketa lotuta badago eta salbuetsita ez badago.
- Zuzendutako fakturaren “zerga oinarri salbuetsia” eremua, zuzendutako fakturan jasotako eragiketa lotuta badago eta salbuetsita badago.
- Zuzendutako fakturaren “zenbatekoa” eremua, zuzendutako fakturan jasotako eragiketa lotuta ez badago.
- Zuzendutako fakturaren datuen “kostuaren arabera zerga oinarria” eremua, zuzendutako fakturan jasotako eragiketa BEZaren arloko erakundearen taldearen araubide berezitik (maila aurreratua) kanpo badago.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.10 ZER ADIERAZI BEHAR DA “ZUZENDUTAKO KUOTA” “ORDEZTE ZUZENKETAREN ZENBATEKOA” EREMUAREN BARRUAN?

Zuzendutako fakturaren zergaren kuota banakatzeko eremua adierazi beharko da. Zuzendutako fakturan jasotako eragiketa salbuetsita badago edo lotu gabe badago, zero balioa adierazi beharko da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.11 ZER ADIERAZ DAITEKE “ERREKARGUKO KUOTA ZUZENDUA”, “ORDEZTE ZUZENKETAREN ZENBATEKOA” EREMUAREN BARRUAN?



Zuzendutako fakturaren “baliokidetasun errekguaren kuota” banakapen eremua adierazteko aukerako eremua da.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.12 ZERTAN BEREIZTEN DIRA FAKTURA ZUZENTZAILE BAT ETA TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO DEUSEZTATZE XML FITXATEGIA?

TicketBAI sisteman, bi egoera bereizten dira:

- **Faktura zuzentzaileak.** Fakturan akats material bat gertatu denean (fakturan, fakturazio erregelamenduaren 6. edo 7. artikularen arabera eskatutako baldintzaren bat betetzen ez denean), zuzenbideko oinarria duen akats bat gertatu denean, jasanarazitako kuota oker zehaztu denean edo zerga oinarria aldatzea eragin duten inguruabarretako bat gertatu denean (BEZFaren 80. artikulua) faktura zuzentzaile bat egin beharko da, eta faktura zuzentzailearen mota adierazi beharko da, honako gakoien bidez: “R1”, “R2”, “R3”, “R4”, “R5”.

Era berean, faktura zuzentzailearen mota zein den adierazi beharko da, “S–ordezpenezko faktura” edo “I–aldean ziozko faktura”.

Kasu horiek faktura berri baten jaulkipen-kasuak dira (fakturaren “alta”).

- **TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia deuseztatzea.** Gainera, aurrekoen bestelako egoerak egon daitezke, eta horietan beharrezkoa da jaulkitako fakturari baja ematea eta, hala badagokio, egindako eragiketa behar bezala jasoko duen beste bat egitea.

Adibidez, inoiz egin ez den eragiketa batengatik faktura oker bat egiten denean eta ezeztatu egiten denean. Kasu horretan, egin gabeko eragiketarik faktura baliogabetzeko, TicketBAI sistemari atxikitako deuseztatze XML fitxategia erabiltzen da. Horregatik, TicketBAI sistemari



atxikitako deuseztatze XML fitxategian, jaulkitzailea eta baliogabetutako fakturaren seriea, zenbakia eta jaulkipen data bakarrik identifikatu beharko dira.

Faktura deuseztatzeko kasuak, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

a) Faktura egin baina artean eman edo igorri ez denean, eta eragiketarik ez dagoela argi geratzen denean.

Hartzaileak hornitzailearen kontura eta haren izenean emandako faktura hornitzaileak onartzen ez duenean. (Kasu horretan, bidezkoa da fitxategia deuseztatzea, fakturarik egon gabe). Fakturaren zenbakiari eta serieari buruzko informazioa erregistroaren gako bakararren atal da (nahiz eta faktura baliogabetu), eta ezin dira berriro erabili beste eragiketa bat egiteko.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.13 HAINBAT FAKTURA ZUZENTZEN BADIRA ZUZENTZE DOKUMENTU BAKARRA ERABILIZ, NOLA IDENTIFIKATUKO DITU IGORLEAK ZUZENDUTAKO FAKTURAK?

Zuzendutako fakturen seriea, zenbakia eta jaulkipen data TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiaren “Faktura zuzenduak edo ordeztuak” atalean jakinarazi beharko dira. Zuzendutako fakturek 100eko kopurua gainditzen badute, zuzenketaren aldiko lehenengo eta azken fakturen datuak bakarrik jaso ahal izango dira.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)

11.14 ZEIN EKITALDI ETA EPEALDIRI EGOZTEN ZAIZKIO FAKTURA ZUZENTZAILEAK?



Aurretiaz esan, zergadunaren erantzukizuna dela faktura zuzentzaile horien ekitaldia eta likidazio aldia behar bezala zehaztea. Era berean, zergadunari gogorazten zaio bere erantzukizuna dela jaulkitako fakturetan jasanarazi diren kuotak behar bezala aitortuta egotea, eta ez duela axolik “XML” fitxategia errefusatu den edo ez edo zuzendu gabeko erroreak dituen.

Oro har, fakturak ekitaldi eta likidazio aldi bati egozteko, eragiketaren data hartzen da kontuan.

Hala ere, R1, R2, R3 eta R5 motako faktura zuzentzaileen kasuan, faktura zuzentzailea egiten den datari egozten zaizkio; hau da, ekitaldia eta likidazio aldia jaulkipen dataren arabera kalkulatzeko dira. Era berean, F1 negatiboen kasuan ere jaulkipen datari begiratuko zaio.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK FAKTURAK ZUZENTZAILEAK atalera](#)



12 OINARRIZKO GAIAK · BESTE BATZUK

12.1 NON AGERTU BEHAR DIRA TICKETBAI SISTEMAREN IDENTIFIKATZAILEA ETA QR KODEA JAULKITAKO FAKTURAK HAINBAT ORRIALDE BADITU?

TicketBAI identifikatzailea eta QR kodea fakturaren azken orrialdean txertatu behar dira. Aukeran, gainerako orrialdeetan ere txerta daiteke.

- Orientazio bertikalean, fakturaren edo egiaztagiriaren beheko aldean jarriko dira. TicketBAI kodea lerro bakarrean txertatuko da, eta azpian QR kodea.

Orientazio horizontalean, fakturaren edo egiaztagiriaren eskuinaldean kokatuko dira. TicketBAI kodea lerro bakarrean txertatuko da, eta azpian QR kodea.

Gutxienez, 30x30 milimetrokoak eta, gehienez, 40x40 milimetrokoak izango dira kodeak.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK BESTE BATZUK atalera](#)

12.2 TICKETBAI SISTEMAK 347 ETA 349 EREDUAK BETETZETIK SALBUESTEN DU?

Foru aldundien zerga administrazio bakoitzaren mende dago. Arabari dagokionez, oraingoz ez.

[Itzuli OINARRIZKO GAIAK BESTE BATZUK atalera](#)



13 TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA

13.1 TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIEK BEREIZ EMAN BEHAR DUTE FAKTURAREN SERIAREN ETA ZENBAKIAREN BERRI?

Bai. BIH sisteman ez bezala, informazio hori eremu bakarrean baitator, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategietan fakturaren serieari eta fakturaren zenbakiari buruzko informazioa eremu desberdinetan sartu behar da (“FAKTURAREN SERIEA”, “FAKTURAREN ZENBAKIA”).

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)

13.2 TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIEK FAKTURAREN SERIAREN BERRI EMAN BEHAR DUTE BETI?

Ez. Fakturazio araudiaren 6. artikuluan arabera, faktura batek fakturaren zenbakia eta, hala badagokio, seriea jaso beharko ditu. Beraz, hasiera batean, seriea ez da faktura baten nahitaezko datua. Hala, fakturazio-erregelamenduaren 6. artikulua horrek honako hau ezartzen du: “*Fakturak serie bereizien bidez egin ahal izango dira, hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean, eta, besteak beste, fakturak egin behar dituenak hainbat establezimendu dituenean eragiketak egiteko, eta fakturak egin behar dituenak izaera desberdineko eragiketak egiten dituenean*”.

Honako faktura hauek, ordea, beti egin behar dira serieka:

1. Eragiketen hartzaileek edo araudi honetako 5. artikuluan aipatzen diren hirugarrenek egiten dituztenean; fakturagile bakoitzak bere faktura seriea eduki behar du.
2. Faktura zuzentzaileak.



3. Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 1. artikulua bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera egiten direnak.

4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen araudiaren 84. artikulua Bat paragrafoaren 2. zenbakiaren g) idatz zatiak araututakoaren arabera egiten direnak.

5. Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 1. artikulua bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 61 quinquies artikulua 2. paragrafoak araututakoaren arabera egiten direnak.

6. TicketBAI Erregelamendua onartzen duen urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuaren 17. artikulua arabera egiten direnak.

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)

13.3 ZER ADIERAZI BEHAR DA “FAKTURAREN EGITE DATA” EREMUAN? ETA “FAKTURAREN EGITE ORDU” EREMUAN?

Faktura TicketBAI sistemaren bidez egin den eguna eta ordua adierazten ditu, era fisikoan inprimatu ez bada ere.

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)

13.4 TICKETBAI SISTEMAN, NOLA IDENTIFIKATZEN DIRA FAKTURA SINPLIFIKATUAK (“TIKETAK”)? NOLA IDENTIFIKATZEN DIRA FAKTURA OSOAK?

TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiko fakturaren goiburuko datuetan “FAKTURA SINPLIFIKATUA” izeneko eremua dago, eta “S” eta “N” balioak onartzen ditu (“N” (EZ) balioa lehenetsita dagoela ulertu behar da).



Faktura sinplifikatua denean (“ticket” bat), eremu hori markatu beharko da “S” (BAI) balioarekin.

Faktura osoa denean, eremu hori “N” (EZ) balioarekin markatu beharko da.

Baliorik adierazten ez bada, faktura osoa dela ulertuko da.

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)

13.5 TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ, ERAGIKETAREN HARTZAILEA IDENTIFIKATURIK DAGOEN FAKTURA SINPLIFIKATU BAT EGIN DAITEKE?

Bai. Fakturazio erregelamenduaren 7. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren “faktura sinplifikatu kualifikatuak” dira.

Kasu horretan, faktura sinplifikatu kualifikatua “S” gakoaren bidez identifikatuko da “faktura sinplifikatua” eremuan, eta, gainera, eragiketaren hartzailearen identifikazio datuak jaso beharko dira (gutxienez, haren IFZ edo, hala badagokio, beste identifikazio zenbaki bat).

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)

13.6 TICKETBAI SISTEMA ERABILIZ, FAKTURA ZUZENTZAILE BAT EGIN DAITEKE?

Bai, faktura zuzentzailea faktura sinplifikatua bada, “S” gakoa adierazi beharko da “faktura sinplifikatua” eremuan.

Era berean, faktura zuzentzailearen mota zein den adierazi beharko da, “S – ordezpenezko faktura” edo “I - aldean ziozko faktura” gakoak erabiliz.

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)



13.7 FAKTURA SINPLIFIKATU BATEN TICKETBAI FITXATEGIA BIDALI BEHAR DA GEROAGO FAKTURA SINPLIFIKATUAREN ORDEZKO FAKTURA OSOA EGIN BADA?

Bai. Faktura egiteaz batera linean edo aldi berean bidaltzen denez, faktura sinplifikatua igorriko da. Horregatik, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia sortu eta bidali behar da, bai faktura sinplifikatuarena, bai hura ordeztzen duen faktura osoarena. Kasu horretan, faktura osoa bidaltzean, “S” gakoaren bidez markatu beharko da “Faktura sinplifikatuaren ordeztu egindako faktura” eremua.

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)

13.8 FAKTURA SINPLIFIKATU BAT SORTZEN BADA BEZEROA IDENTIFIKATU GABE, ETA TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIA OGASUNARI BIDALTZEN BAZAIO ETA, AZKENEAN, BEZEROAK FAKTURA OSOA ESKATZEN BADU, ZER URRATS EGIN BEHAR DA?

Faktura sinplifikatuan, ez da hartzailea betetzen, 18/2013 Foru Dekretuaren 7.2 eta 7.3 artikuluen arabera egindako faktura sinplifikatua ez bada. Beraz, beste faktura oso bat sortu beharko da, eta horren berri eman beharko da:

-Faktura sinplifikatuaren ordeztu jaulkitako faktura” eremua, S balioa (BAI) adierazita.

-“Faktura zuzenduak edo ordeztuak” atala (1etik 100era) bete egin beharko da. Ordeztutako faktura sinplifikatuak identifikatuko dira, zenbakia, seriea eta jaulkipen data adierazita. Ez da faktura zuzentzailea. (Fakturazio erregelamenduaren 15.6 artikulua).

Aurreko fakturen ordeztu faktura horrek TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategi bat ere sortu beharko du, eta fitxategi hori aurreko fakturarekin sinatu eta kateatu beharko da. OHAR



GARRANTZITSUA: Faktura sinplifikatua ordaintzen bada (“Faktura sinplifikatua” eremuan, “S” gakoa adierazita eta erregistro negatiboa bidalita), “Faktura sinplifikatuaren ordezt jaulkitako faktura” eremuan ez da “S” gakoa adierazi beharko.

[Itzuli TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN GOIBURUA atalera](#)



14 TICKETBAI XML FITXATEGIAK FAKTURAREN DATUAK

14.1 NOIZ BETE BEHAR DA “ERAGIKETAREN DATA” EREMUA?

“Eragiketaren data” eremua bete beharko da eragiketa egin den data faktura egin den eguna ez bada.

Adibidez: A enpresak 2022ko uztailaren 3an salgaiak saldu dizkio beste enpresa bati, eta eragiketa 2022ko abuztuaren 1eko fakturan dokumentatu du. Kasu horretan, 2022ko abuztuaren 1eko fakturaren “jaulkipen data” eta 2022ko uztailaren 3ko “eragiketaren data” eremua jasoko dira.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.2 GEROKO DATARIK DAUKAN FAKTURARIK JAULKI DAITEKE? ADIBIDEZ, FAKTURARI URTARRILAREN 31KO DATA EZARTZEA, BAINA TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIA URTARRILAREN 15EAN SORTZEA ETA OGASUNARI BIDALTZEA (FAKTURA URTARRILAREN 15EAN EDO URTARRILAREN 31N BIDALIKO ZAIO BEZEROARI)?

Ez. Fakturazio betebeharrak arautzen dituen 18/2013 Foru Dekretuaren 11. artikulua honako hau xedatzen du:

“1. Eragiketa egiten den unean egin beharko dira fakturak. Hala ere, eragiketaren hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburu edo profesional bat bada, eragiketa horri dagokion zerga sortu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira fakturak.



2. BEZari buruzko Foru Arauaren 75.Bat.8 artikuluan jasotako ondasun emateetan, ondasunak eskuratzailereantzako egiten edo garraiatzen hasi eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira fakturak.

3. Zergaren Legearen IX. tituluaren X. kapituluaren araututako kutxa irizpidearen araubide bereziari atxikitako eragiketetan, eragiketa horiek egiten diren unean egin beharko da faktura, eragiketaren hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburu edo profesional bat denean izan ezik; kasu horretan, eragiketa egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira.”

Beraz, ezin da TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia Ogasunera bidali egite-data baino lehen.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.3 ZER ERAGIKETA DATAK AGERTU BEHAR DU LABURBILTZE FAKTURA BATEAN? (FAKTURAZIO BETEBEHARRAK ARAUTZEN DITUEN 18/2013 FORU DEKRETUAREN 13. ARTIKULUA)?

Laburbiltze fakturak dokumentatzen dituen eragiketak egin diren egutegiko hilabetearen azken eguna kontsignatuko da, edo, laburbiltzeko aldia hilabetea baino laburragoa bada, aldi horretako eragiketa egin den azken eguna.

Adibidez: Adibidez: 2021eko uztailaren 25ean egindako faktura, 2021eko uztailaren 1, 10, 15 eta 20an egindako zenbait ondasun emate dokumentatzen dituen; eragiketa-data uztailaren 20koa da.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.4 ZER ERAGIKETA DATA JASO BEHAR DA FAKTURA ZUZENTZAILE BATEAN?



Zuzentzen ari den jatorrizko fakturari dagokion eragiketa egin deneko data.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.5 ZER ERAGIKETA DATA JASO BEHAR DA FAKTURA ZUZENTZAILE BATEAN HAINBAT FAKTURA BATERA ZUZENTZEN BADIRA ZUZENTZE AGIRI BAKARRA ERABILIZ?

Zuzendutako azken faktura dokumentatzen duen eragiketa egin den azken eguna kontsignatuko da (azken data duena).

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.6 “FAKTURAREN BANAKAPENA” EREMUKO DATUAK NAHITAEZ BETE BEHAR DIRA?

Foru Aldundien zerga administrazio bakoitzak arautzen duenaren arabera izango da.

Arabaren kasuan, nahitaezkoa da eremu horiek betetzea.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.7 “FAKTURAREN DESKRIBAPENA” EREMUA GAKO ESTANDARIZATUAK ERABILIZ BETE BEHAR DA?

Ez. Eduki libreko eremua da, 250 posizio har ditzakeena, eta fakturatzen den eragiketaren edo eragiketen deskribapen orokorra jasotzen du.

Pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteari buruzko 679/2016 Erregelamenduaren 9. artikulua babestutako datuak badira, xehetasunetan nahikoa izango da hauxe jasotzea:



“679/2016 Erregelamenduaren 9. artikulua babestutako informazioa”, fakturan, eragiketaren egiazko nondik norakoak adierazteari kalterik egin gabe.

Faktura zuzentzailea bada, zuzenketa eragin duen arrazoiaren deskribapena adierazi beharko da.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.8 “BANAKAPENAREN DESKRIBAPENA” EREMUA GAKO ESTANDARIZATUAK ERABILIZ BETE BEHAR DA?

Ez. Eduki libreko eremua da, 250 posizio har ditzakeena, eta fakturatzen den eragiketaren edo eragiketen deskribapen xehea jasotzen du.

Eragiketaren deskribapena eta ondasunen identifikazioa biltzen dituen lerro bakoitzean agertzen diren datu berberak jaso behar dira.

Pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteari buruzko 679/2016 Erregelamenduaren 9. artikulua babestutako datuak badira, xehetasunetan nahikoa izango da haxe jasotzea: “679/2016 Erregelamenduaren 9. artikulua babestutako informazioa”, fakturan, eragiketaren egiazko nondik norakoak adierazteari kalterik egin gabe.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.9 UNITATEKO PREZIOA BEZ ETA GUZTI EDO BEZ GABE ADIERAZI BEHAR DA?

Unitateko prezioa BEZik gabe kontsignatu behar da, salbuespenen batean izan ezik, hala nola erabilitako ondasunen araubide bereziaren edo bidaia agentzien araubide bereziaren kasuan.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)



14.10 ZER ADIERAZI BEHAR DA “GUZTIZKO ZENBATEKOA” EREMUAN “FAKTURAREN BANAKAPENA” MULTZOAREN BARRUAN?

“Fakturaren banakapena” multzoaren barruko “Guztizko zenbatekoa” eremua kalkulatzeko, “kopurua” deritzon eremuan jasotako zenbatekoak eta “unitateko prezioa” eremuan jasotakoak biderkatu egingo dira. Hala badagokio, kendu egingo dira aplikatutako deskontuak, BEZ zerga eta baliokidetasun errenergua. Eremu horretan, eragiketan jasanarazten den BEZa eta baliokidetasun errenergua ere aintzat hartu behar dira.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.11 FAKTURAREN BANAKAPENEAN, DESKONTUARI ESKAINITAKO EREMUA EHUNEKOTAN ADIERAZ DAITEKE EDO EUROTAN BETE BEHAR DA?

Ez, deskontua ezin da ehuneko batez adierazi, ezpada, ehunekoak ordezkatzeko duen zenbatekoa bihurtuta, eurotan edo zentimotan.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)



14.12 “ZERGA OINARRIA” DERITZON ETIKETAN AGERI DEN ZENBATEKOAN, DESKONTU BEREZIAK ETA GOIZ ORDAINTZEAGATIKO DESKONTUAK KENDU ETA GARRAIO GASTUAK GEHITU BEHAR DIRA? BESTELA, FAKTURAREN XEHETASUNETAN AGERI DIREN ZENBATEKOEN BATURA BESTERIK EZ DA ADIERAZI BEHAR?

Zerga oinarriaren etiketan, hain zuzen ere, deskontuetatik eta garraio kostuetatik ateratzen den zenbatekoa agertu behar da. Xehetasunean agertzen diren deskontuak unitateko deskontuak izango dira.

Hala ere, deskontu orokor bakoitza fakturan ere agertu beharko da, eta horietako bakoitza xehetasunen lerro berri gisa jasoko da, deskontuaren kontzeptua deskribatuz, hala badagokio, bai eta deskontuaren konfigurazioa zein den, ateratzen den zeinua (negatiboa ere izan daiteke).

TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiak fakturan dauden deskontuei buruzko informazio guztia izan behar du, eta, beraz, fitxategi hori ia faktura guztien bilduma dela pentsa daiteke; beraz, TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiaren xehetasuna fakturan agertzen den xehetasun bera izango da, eta, beraz, deskontu orokor bakoitza eta hari doakion zenbatekoa adieraziko ditu.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.13 “FAKTURAREN GUZTIZKO ZENBATEKOA” BAT ETORRI BEHAR DA BANAKAPENAREN ZENBATEKOEN BATURAREKIN?

Faktura gehienetan, “Fakturaren guztizko zenbatekoa” bat etorri behar da “banakatze” mailako zenbatekoen baturarekin.

Hala ere, badaude bat ez datozen egoerak, adibidez:



- Erabilitako ondasunen araubide berezia aplikatzen duten fakturetan.
- Bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen duten fakturetan.
- Eragiketen prezioarekin zuzenean lotuta egoteagatik, BEZaren zerga oinarrian jasotako dirulaguntzak barruratzen diren fakturetan.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.14 ZER ADIERAZI BEHAR DA JASANDAKO ATXIKIPENA EREMUAN?

Fakturaren egileak jasan behar duen eta fakturan jasota dagoen atxikipenaren zenbatekoa adierazi behar da. Ez da atxikipenaren ehunekoa adierazi behar, zenbatekoa baizik.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.15 NOIZ BETE BEHAR DA “KOSTUKO ZERGA OINARRIA”?

Eremu hori soilik kontsignatu behar da “BEZ araubideen eta zerga garrantzia duten eragiketen gakoa” eremuaren barruko 06 gakoa, “BEZaren erakundeen taldearen araubide berezia (maila aurreratua)” erabiltzen denean, erakundeko kide diren enpresen arteko eragiketetan, baldin eta talde horrek BEZari buruzko Foru Arauaren 163 sexies.Bost artikulua araututako modalitatea aukeratu badu. Kasu horietan, “Kostuko zerga oinarria” eremua bete ahal izango da.BEZari buruzko Foru Arauaren 78. eta 79. artikuluetan arautzen den zenbatekoa izango da “Zerga oinarria” eremua. Kontuan izan behar da jasanarazitako kuotaren eremuan, kostuko zerga oinarria bider dagokion zerga tasa eginda ateratzen den emaitza kontsignatuko dela.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)



14.16 ZER-NOLAKO ERAGIKETAK JASOTA DAUDE “BEZ ZERGAREN ARAUBIDEAK ETA ZERGA GARRANTZIA DUTEN ERAGIKETAK” IZENEN GAKOAN?

Eremu horretan jaso beharreko eragiketak eta gakoak ondokoak dira:

Baloreak	Deskribapena
01	Araubide orokorreko eragiketak eta ondoko gakoetan sartzen ez diren gainerako kasu guztiak.
02	Esportazioa
03	Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak.
04	Inbertsio errearen araubide berezia
05	Bidaia agentzien araubide berezia.
06	Entitate taldeen BEZaren araubide berezia (maila aurreratua).
07	Kutxa irizpidearen araubide berezia.
08	IPSI / IGIC (Ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga / Kanarietako zeharkako zerga orokorra) zergen kargapeko eragiketak.
09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia agentziek egindako zerbitzuen fakturazioa (Fakturazioaren Araudia, 3. xedapen gehigarria).
10	Hirugarrenen kontura (bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura, alegia) lanbide ordainsariak, jabetza intelektual edo industrialaren edo egile jabetzaren ondoriozko eskubideak edo bestelakoen kobrantza, baldin eta kobratzaileak beren eginkizunen artean kobrantza egiten duten sozietate, elkarte, lanbide elkargo edo



	bestelako erakundeak badira.
11	Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak.
12	Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak.
13	Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu gabekoak.
14	BEZ sortu gabe duten fakturak, hartzailea administrazio publikoa den obra egiaztapenetan
15	BEZ sortu gabe duen faktura, segidako traktuko eragiketetan
17	XI. kapituluko IX. Tituluan jasotako araubideren bati loturiko eragiketa (OSS eta IOSS)
19	Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Erregimen Berezia sartzen diren eragiketak.
51	Baliokidetasun errekguaren araubideko eragiketak.
52	Araubide erraztuko eragiketak.
53	BEZaren ondorioetarako ez enpresari ez profesional ez diren pertsonak edo erakundeek egindako eragiketak
54	Kanarietako, Ceutako eta Melillako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)



14.17 NOIZ ERABILI BEHAR DA GAKO HAU: “06 BEZ ZERGARI LOTUTAKO ERAKUNDE TALDEEN ARAUBIDE BEREZIA (MAILA AURRERATUA)”, “BEZ ZERGAREN ARAUBIDEAK ETA ZERGA GARRANTZIA DUTEN ERAGIKETAK” EREMUAN?

Taldeko enpresen arteko eragiketetan, BEZari buruzko Foru Arauaren 163 sexies.Bost artikuluan araututako modalitatea aukeratu denean bakarrik jaso behar da. Kasu horietan, “Kostuko zerga oinarria” eremua bete ahalko da.

BEZari buruzko Foru Arauaren 78. eta 79. artikuluetan arautzen den zenbatekoa izango da “Zerga oinarria” eremua. Kontuan izan behar da jasanarazitako kuotaren eremuan, kostuko zerga oinarria bider dagokion zerga tasa eginda ateratzen den emaitza kontsignatuko dela.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.18 NOIZ ERABILI BEHAR DA ARAUBIDE BEREZIKO GAKO HAU: “14 “SORTU GABEKO BEZ ZERGADUN FAKTURA (ADMINISTRAZIO PUBLIKOA HARTZAILE DUTEN OBRA ZIURTAGIRIAK)”?

Egindako obra ziurtagiriei dagokien informazioa bidaltzeko erabiltzen da, baldin eta obraren hartzailea administrazio publikoa bada eta zerga sortu ez bada, honako inguruabar hauek gertatu direlako:

- Ez da gauzatutako obrari dagokion zenbateko osoa edo zati bat ordaindu.
- Ez da obra harrera osoa edo zati bat egin, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 235. artikulua xedatutakoaren arabera (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina).

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, prozedura honi jarraitu behar zaio.



Inguruabar horietakoren bat gertatzen bada, dokumentu bat egin behar da, eta TicketBAIko XML fitxategia bidali behar da, honako informazio honekin:

- "BEZaren araubidearen gakoa" eremuan, 14. gakoa jarri behar da.
- "Eragiketaren data" eremuan, aurreikusitako kobratze data adierazi behar da.

Ondoren, obra harrera egiten edo obra kobratzen den unean (eta, beraz, sortzapena gertatzen denean), dagokion faktura (F1) egin beharko da, eta honela jakinarazi:

- "Fakturaren deskribapena" eremuan, hasierako dokumentuaren identifikazio datua jarri beharko da (14 gakoa duena), hau da, jaulkipenaren unean esleitu zitzaion zenbakia.
- "BEZaren araubidearen gakoa" eremuan, 01 gakoa jarri behar da (araubide orokorreko eragiketa).
- "Eragiketaren data" eremua beteko da soilik baldin eta, araudiaren arabera, eragiketaren eta fakturaren jaulkipen datak bat ez badatoz, eta obraren harrera edota kobratze data jarri beharko da.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.19 NOIZ ERABILI BEHAR DA ARAUBIDE BEREZIKO GAKO HAU: "15 SORTU GABEKO BEZ ZERGADUN FAKTURA (SEGIDAKO TRAKTUKO ERAGIKETAK)"?

Segidako traktuko eragiketak (hornidurak, errentamenduak, etab.) islatzen dituzten dokumentuei dagokien informazioa igortzeko erabiltzen da. Agiri horiek, fakturazio erregelamenduaren 6. edo 7. artikuluetan araututako baldintzak betetzen badituzte ere, ez dira fakturatzat hartzen, ez delako artean zergaren sortzapena gertatzen, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen delako:

- Fakturatutako zenbatekoa ezin da jaulkipen datan eskatu.
- Ez da osorik edo zatika ordaindu.



Kontuan hartu behar da galdagarritasun data (sortzapena) jaso beharko dela eragiketa data gisa.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

**14.20 ZERGADUN BATEK EGITEN DITUEN NEKAZARITZA, ABELTZAINZA
ETA ARRANTZAKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIARI LOTUTAKO
ONDASUN EMATE ETA ZERBITZU PRESTAZIOAK TICKETBAI
SISTEMARI LOTZEN ZAIZKIO?**

Ez, baldin eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari atxikitako zergadunak emandako ondasuna edo zerbitzua eskuratzen duen enpresaburuak eragiketa hori konpentsatzeko ordainagiria egiten badu.

Hala eta guztiz ere, gainerako kasuetan, TicketBAI sistema bete beharko da.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

**14.21 NOIZ ERABILI BEHAR DA BEZ ZERGAREN ARAUBIDEEN ETA ZERGA
GARRANTZIA DUTEN ERAGIKETEN EREMUKO GAKO HAU: “51
BALIOKIDETASUN ERREKARGUKO ERAGIKETAK”?**

Gako hori enpresaburuek eta profesionalek baliokidetasun errearguko araubidean egindako fakturretan erabili behar da.

Aitzitik, gako hori ez da erabili behar baliokidetasun errearguaren araubidean dauden enpresaburuen eta profesionalen hornitzaileek egindako fakturretan.

Gako horren helburua da azken kontsumitzaile bati BEZ zerga jasanarazten dioten fakturak identifikatzea, baina, baliokidetasun errearguko araubidean dagoen enpresaburu batek jaulkitakoak direnez, ez dakarte zergadun horien autolikidazioetan integratu beharreko BEZ zergaren kuota sorturik, txikizkako aldian sortutako BEZa hornitzaileak jasanarazitako baliokidetasun errearguaren bidez biltzen baita. Ildo horretan, azken kontsumitzaileari



jasanarazitako BEZaren kuota horiek enpresariaren jarduera ekonomikoaren diru-sarrerak dira PFEZn.

Horretarako, fakturaren banakapenean, “Baliokidetasun errekguko eragiketa” edo “Araubide sinplifikatuko eragiketa” izeneko marka gaitu da, eta “N” balioa lehenetsita dauka. “S” markaz adierazten bada, zergadun batek araubide sinplifikatuan edo baliokidetasun errekguko araubidean egindako faktura da.

Kasu horretan jasanarazitako BEZaren kuota EZ da BEZaren aitorpenean jasoko. Gainera, PFEZaren ondorioetarako, BEZaren kuota horrek jardueraren sarrera handiagoa dakar.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.22 NOIZ ERABILI BEHAR DA BEZ ZERGAREN ARAUBIDEEN ETA ZERGA GARRANTZIA DUTEN ERAGIKETEN EREMUKO GAKO HAU: “52 ARAUBIDE SINPLIFIKATUKO ERAGIKETAK”?

Gako hori enpresaburuek eta profesionalek BEZaren ondorioetarako araubide sinplifikatuan egindako fakturetan erabili behar da.

Gako horren helburua da azken kontsumitzaile bati BEZa jasanarazten dioten fakturak identifikatzea, baina enpresaburu batek araubide sinplifikatuan jaulkitzen dituenek, ez dakarte zergadun horien autolikidazioetan integratu beharreko BEZaren kuota sorturik; izan ere, sortutako BEZa beste era batera kalkulatzeko da hari dagozkion zeinuak, indizeak eta moduluak aplikatuz. Ildo horretan, azken kontsumitzaileari jasanarazitako BEZaren kuota horiek enpresariaren jardueraren sarrerak dira PFEZn.

Horretarako, fakturaren banakapenean, “Baliokidetasun errekguko eragiketa” edo “Araubide sinplifikatuko eragiketa” izeneko marka gaitu da, eta “N” balioa lehenetsita dauka. “S” markaz adierazten bada, zergadun batek araubide sinplifikatuan edo baliokidetasun errekguko araubidean egindako faktura da. Kasu horretan jasanarazitako BEZaren kuota EZ da BEZaren



aitorpenean jasoko. Gainera, PFEZaren ondorioetarako, BEZaren kuota horrek jardueraren sarrera handiagoa dakar.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.23 NOIZ ERABILI BEHAR DA BEZAREN ARAUBIDEEN ETA ZERGA GARRANTZIA DUTEN ERAGIKETEN “54” GAKOA? ZER ALDE DAGO “08” GAKOAREKIN?

Kanarietan, Ceutan eta Melillan zeharkako zergen ondorioetarako establezimendu iraunkor batetik egiten diren eragiketarako erabili behar da 54 gakoa; beraz, eragiketa horiek ez dira zenbatzen establezimenduaren zerga aplikatzeko lurraldeko eragiketa bolumenaren ondorioetarako, eta, gainera, IGICrekin edo IPSIrekin egindako eragiketen erregistro liburuari buruzko araudian ezarritakoa bete behar du.

54 gakoa erabiltzen bada, eragiketak atzerriko zergarengatik bakarrik izan daitezke eragiketa ez-zergapekoak.

08 gakoaren kasuan (Ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergari/Kanarietako zuzeneko zerga orokorrari lotutako eragiketak), gako hori erabiliko da zerga horiei lotutako eragiketak jasotzen dituzten fakturetarako, baldin eta Kanarietan, Ceutan eta Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik egiten ez badira; izan ere, bigarren kasu horretan, faktura 54 gakoarekin aitortu beharko da.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.24 NOIZ ERABILI BEHAR DA 17 GAKOA “IX. TITULUAREN XI. KAPITULUAN JASOTAKO ARAUBIDEREN BATI LOTURIKO ERAGIKETA (OSS E IOSS)”?

17 gakoa, 2021eko uztailaren 1etik indarrean dagoena, Espainiako edo beste estatu kide bateko BEZari lotutako eragiketak dokumentatzen dituzten fakturak erregistratzeko erabiliko da, baldin



eta eragiketa horiek erregistratzera behartuta dagoena BEZaren Arauaren IX. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako araubide bereziren bati lotu bazaio:

- Batasunaren kanpoko araubidea.
- Batasunaren araubidea.
- Inportazio araubidea (IOSS).

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.25 FAKTURAN AGERTZEN DIREN ATXIKIPENEN ZENBATEKOEN BERRI EMAN BEHAR DA?

Bai, “Jasandako atxikipena” deritzon eremuan.

TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategian, atxikipenaren zenbatekoa baino ez da jasotzen. Beraz, atxikipenaren oinarria ez da jasotzen, ezta aplikatutako atxikipenaren ehunekoa ere.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)

14.26 TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO FAKTURA OSO BATEAN (HAU DA SINPLIFIKATUAREN MARKA EZ DAUKAN FAKTURA BATEAN), ERAGIKETAREN HARTZAILEA IDENTIFIKATU BEHAR DA?

Bai. Fakturazio erregelamenduaren 6. artikulua arabera, eragiketen hartzailearen izen-abizenak, izena edo sozietatearen izen osoa jaso beharko dira fakturan.

Era berean, EBko edozein estatu kidetako zerga administrazio eskudunak eragiketen hartzaileari emandako IFZ jaso beharko da honako kasu hauetan:

1. BEZaren Arauaren 25. artikuluari jarraiki, salbuetsita dagoen beste estatu kide bati egindako ondasunen ematea.
2. Eragiketa baten hartzailea eragiketa horri dagokion BEZaren subjektu pasiboa izatea.



3. Zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jotzen diren eragiketak izatea, eta faktura egin behar duen enpresaburua edo profesionala lurralde horretan finkatutzat hartzea.

Bestalde, 1. eranskinean (TicketBAI sistemari atxikitako altako fitxategiaren egitura eta baliozkotzeak), eta fakturazio erregelamenduaren 6.1.d artikuluan jasotzen ez diren kasuetan, badago aukera ID eremuan «0» balioa adierazteko.

[Itzuli TICKETBAI XML FAKTURAREN DATUAK atalera](#)



15. TICKETBAI XML BANAKAPENA

15.1 TICKETBAI FAKTURA BEREAN, BEZARI LOTUTA EZ DAUDEN ERAGIKETAK ETA LOTUTA BAINA SALBUETSITA DAUDENAK BEREIZI BEHAR AL DIRA? NOLA?

Bai.

Eragiketa ez-zergapekoa bada, “Fakturaren xehakapena - EZ-ZERGAPEKOA” bloke funtzionalaren barruan adierazi beharko da ez-zergapekoa izatearen kausa (OT – ez-zergapekoa, 7. eta 14. artikulua; zergapekoak ez diren beste kasu batzuk”; edo RL - ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik; edo IE – Atzerriko zerga bati lotutako eragiketa edo VT – Hirugarrenek egindako salmenta) eta zenbateko ez-zergapekoa.

Eragiketa salbuetsia bada, “Fakturaren banakapena” multzoaren barruan “lotu” eta “salbuetsi” gisa jasoko da, eta salbuespenaren arrazoi eta salbuetsitako zerga oinarria adieraziko dira. Hauexek dira salbuesteko arrazoiak gakoak:

- E1: BEZFaren 20. artikulua salbuetsia → salbuespenak barruko eragiketetan
- E2: BEZFaren 21. artikulua salbuetsia → salbuespenak ondasunen esportazioetan
- E3: BEZFaren 22. artikulua salbuetsia → esportazioen pareko eragiketak
- E4: BEZFaren 23. eta 24. artikuluek salbuetsia → zona frankoak; aduana eta zerga araubideak
- E5: BEZFaren 25. artikulua salbuetsia → Europar Batasunaren barruko ondasun emateak
- E6: beste arrazoi batengatik salbuetsia → Bidaia agentzien araubide bereziko kasu jakin batzuk, inportazioekin lotutako zerbitzuak, ...



Salbuespenaren arrazoia nahitaez bete behar da.

Fakturak salbuespen kausa desberdina duten eragiketak jasotzen baditu, eragiketa bakoitzari dagokion oinarri salbuetsiaren zenbatekoa banakatu ahal izango da.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.2 NOLA ERREGISTRATZEN DIRA ESPORTAZIOAK?

“BEZaren araubideen eragiketak eta zerga garrantzia duten eragiketak” atalean, “02 - Esportazioa” gakoa idatziko da.

Hartzailea atzeritarra izanez gero, “Herrialdearen kodea” eta 03 “Pasaportea”, 04 “Bizilekua duen herrialdeak edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala”, 05 “Bizilekuaren ziurtagiria” edo 06 “Beste frogagiri bat” gakoen bidez identifikatu beharko da, “IDType” eremuan.

Bestalde, fakturaren zerga oinarria “salbuetsita” eragiketa motaren eremuan jasoko da, “Ematea” multzoaren barruan. Salbuespen arrazoi gisa, “E2 - 21. artikulua salbuetsia” gakoa adieraziko da.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.3 NOLA ERREGISTRATZEN DA SUBJEKTU PASIBOAREN INBERTSIO ERAGIKETA BAT?

Hartzailea espainiarra bada, hornitzaileak edo zerbitzu emaileak faktura egingo du, eta “Fakturaren banakapena” multzoan, “Salbuetsi gabea – Subjektu pasiboaren inbertsioarekin” gakoa adieraziko du. Eragiketaren zenbatekoaren berri emango da “Zerga oinarria” eremuan, baina “Zerga tasa” eta “Zerga kuota” eremuak, betetzen badira, zero ko zenbatekoa adieraziko da haietan.



Hartzailea Europar Batasuneko bada (IFK-BEZ), “Eragiketa motaren banakapena” atala beteko da, eta “Lotu gabe” eremuan, “Lotu gabea – Banakapena” atalean, “RL - Lokalizazio arauen zioz lotu gabe” lotua ez izatearen kausa eta lotu gabeko zenbatekoa beteko dira. Era berean, zerbitzu ematea edo ondasun prestazioa den adierazi behar da.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.4 NOLA ERREGISTRATZEN DIRA EUROPAKO ERKIDEGOAREN BARRUKO ONDASUNEN EMATEAK?

TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategian, Europar Batasuneko bezeroa identifikatu beharko da, 02 gakoa erabiliz “IDType” bizilekua duen herrialdeko identifikazio motan, eta “ID” eremuan, Erkidegoaren barruko operadore-zenbakia jarri beharko da. “Herrialdearen kodea” eremua ez da nahitaez bete behar.

Bestalde, fakturaren zerga oinarria “Salbuetsita” eragiketa motaren eremuan sartuko da, “Ematea” multzoaren barruan. Salbuesteko kausa gisa, ondoko gakoa adieraziko da “E5 - 25. Artikuluaren zioz salbuetsia”.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.5 NOLA ERREGISTRATZEN DA HAINBAT ZERGA TASA DITUEN FAKTURA BAT?

Erregistro bakar batean emango da fakturaren berri, honako hauei dagokien informazioa banakatuta: zerga tasa, zerga oinarria, jasanarazitako kuota, baliokidetasun errekaru mota eta baliokidetasun errekaru kuota, tasa edo errekaru desberdinen arabera.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)



15.6 ERREGISTRATU AL DAITEZKE ZERGA OINARRIA, ZERGAREN KUOTA ETA FAKTURAREN ZENBATEKO OSOA DIBISETAN?

Ez. Haien kontrabolio guztiak eurotan adierazi behar dira, eragiketaren sortzapen egunean indarrean dagoen Europako Bankuak ezarritako salmentaren kanbio tasa aplikatuta (BEZaren Legearen 79.11 artikulua). Fakturazio Araudian zergaren kuotaren balioa eurotan adieraztea derrigorrezkoa dela ageri den arren, **TicketBAI sisteman, balio guztiak eurotan adierazi behar dira.**

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.7 “BEZAREN BANAKAPENA” EREMUAREN BARRUAN, “ZERGA TASA”, “ZERGA KUOTA”, “BALIOKIDETASUN ERREKARGU MOTA” ETA “BALIOKIDETASUN ERREKARGU KUOTA” EREMUAK EZ DIRA NAHITAEZKOAK TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIAN. HORREK ESAN NAHI DU EZ DELA BEHARREZKOA DATU HORIEK BIDALTZEA?

TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiaren “BEZaren banakapena” multzoan, nahitaezko etiketa bakarra zerga oinarria da; izan ere, dagokion eragiketa zeinahi dela ere, hura da bete behar den eremu bakarra. Aipatutako gainerako eremuak XML eskeman nahitaezkoak ez direnez, eragiketa motaren arabera, baliteke informazio hori eman behar ez izatea.

- Lotutako eta salbuetsi gabeko eragiketa bada, subjektu pasiboaren inbertsioarekin, “Zerga tasa” eta “Zerga kuota” eremuak, betetzen badira, zero ko zenbatekoa adierazi behar da horietan.
- “Baliokidetasun errekar gu mota” eta “Baliokidetasun errekar gu kuota” eremuak soilik bete behar dira eragiketa bat dokumentatzen bada eta eragiketa horren hartzailea



baliokidetasun errekaruaren araubide bereziari atxikitako txikizkako merkataria bada eta errekaru hori aplikatu behar bada, BEZaren Legearen 156. eta 157. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Azaldutako arrazoiengatik, aipatutako eremuak ezin dira nahitaezkoztat agertu TicketBAI eskeman, baina horrek ez du esan nahi eremu horiek bete gabe utzi behar direnik, fakturak Fakturazio Araudiaren 6. eta 7. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete behar baititu.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.8 FAKTURAREN DATUAK BANAKATZEKO ORDUAN, ADIERAZI BEHAR DA ERAGIKETA ONDASUNEN EMATEA EDO ZERBITZUEN PRESTAZIOA DEN?

Bezeroa atzerritarra denean eta faktura erraztua ez denean, eragiketa motaren banakapena adierazi behar da nahitaez.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.9 FAKTURA ERRAZTUAK ERREGISTRATZEN DIRENEAN, ZERGA KUOTA BANAKATU BEHAR DA?

Bai. Zerga tasa bakoitzari dagokion zerga oinarria eta dagokion zerga kuota banakatu behar dira.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)



15.10 SALBUESTEKO ARRAZOIAK. TICKETBAI SISTEMARI ATXIKITAKO XML FITXATEGIAREN ZEHAZTAPENEAN, SALBUESPEN ARRAZOIEN DATU MULTZO BAT ADIERAZTEN DA, 1ETIK 7RA. HORREN HELBURUA DA FAKTURA JAKIN BATEAN 7 LERRO ERE ADIERAZI AHAL IZATEA, HAINBAT SALBUESPENEN BERRI EMANDA. ADIBIDEREN BAT?

Kasu horretan, faktura batek salbuetsitako hainbat ondasun eskualdaketa edo ondasun emate dokumentatzeko aukera eskaintzen da, betiere kasu desberdinak aplikatuta. Adibidez, lursail batez gozatzeko eskubide errealak eratu eta eskualdatzea (20.23 artikulua) ziozko salbuespena) eta bidaiariei ondasunak ematea (21. artikulua) ziozko salbuespena).

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.11 SALBUETSI GABEKO FAKTURA LOTUETAN, EZ-SALBUETSIA DIO (1-2). ZERTARAKO DA? FAKTURA BEREAN SALBUESPENIK EZAREN MOTAK BI LERROTAN ADIERAZTEKO AUKERA EMATEKO, HAU DA, S1 SUBJEKTU PASIBOAREN INBERTSIORIK GABE ETA S2 SUBJEKTU PASIBOAREN INBERTSIOAREKIN?

Horretarako da, hain zuzen ere. Horrela, fakturan bertan lursailen ematea eskualdatzen den kasua islatzen da (salbuespena subjektu pasiboaren inbertsioarekin, 20.Bat.20 artikulua) eta gozamenerako eskubide errealak eratu eta eskualdatzea (salbuespena subjektu pasiboaren inbertsiorik gabe, 20.Bat.23 artikulua), BEZaren Legearen 84.bat.e) artikulua subjektu pasiboaren inbertsioari buruz xedatutakoari jarraiki.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)



15.12 KONTRAKO ALDERDIA NAZIONALA EZ DEN FAKTURA BATEAN, ZERBITZU PRESTAZIOAK ETA ONDASUN EMATEAK DITUENA ETA, GAINERA, FAKTURAK GARRAIO SARIA ETA GOIZ ORDAINTZEAGATIKO DESKONTUA. NOLA KALKULATU ZERGA OINARRI BAKOITZARI DAGOZKION GARRAIO GASTUAK ETA DESKONTUA? GARRAIO GASTUEN KASUAN, GARRAIOAREN ZENBATEKO OSOA GEHITU AL DAKIOKE ONDASUNEI DAGOKIEN ZERGA OINARRIARI, ETA EZER EZ GEHITU ZERBITZUEI DAGOKIEN ZERGA OINARRIARI?

Bai garraio gastuak, bai goiz ordaintzeagatiko deskontua, fakturaren jaulkitzaileak banakatu ahal izango ditu; izan ere, gerta daiteke garraio lanak horietako bati bakarrik dagozkiola ondorioztatzea (ondasunak ematea), edo bi eragiketetan garraio lanak egotea. Kasu horretan, garraio lanak eta bestelako eragiketa osagarriak fakturan jasotako eragiketen artean zatitu ahal izango dira, betiere egozpen irizpide zentzuzkoen arabera, indarrean dauden xedapenek ez badute irizpiderik ezartzen.

Garraio gastuen kontu zehatzari dagokionez, soilik ondasunen emateari, ez zerbitzuen prestazioari egozteari dagokionez, baliozkoa izan liteke, baldin eta horrek eragiketaren errealitatea islatzea badakar.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)



15.13 NOLA ERREGISTRATU BEHAR DA BALIOKIDETASUN ERREKARGUAN DAGOEN ZERGADUN BATEK EGINDAKO FAKTURA BAT?

Baliokidetasun errekguaren araubidean dauden enpresaburu eta profesionalek egindako fakturetan, “BEZaren araudi berezien eta zerga garrantzia duten eragiketak” eremuaren barruko “51- Baliokidetasun errekguko eragiketak” gakoa erabili behar da.

Aitzitik, gako hori ez da erabili behar baliokidetasun errekguaren araubidean dauden enpresaburu eta profesionalen hornitzaileek egindako fakturetan.

Gako horren helburua dugu azken kontsumitzaile bati BEZa jasanarazten dioten fakturak identifikatzea, baina, enpresaburu batek baliokidetasun errekguaren araubidean jaulkitzen dituenek, ez da zergadun horien autolikidazioetan jaso beharko sortutako BEZaren kuota; izan ere, txikizkako alditik sortutako BEZa hornitzaileak jasanarazitako baliokidetasun errekguaren bidez biltzen baita. Ildo horretan, azken kontsumitzaileari jasanarazitako BEZaren kuota horiek jarduera ekonomikoaren diru sarrerak izango dira enpresaburuaren PFEZn.

Horretarako, fakturaren banakapenean, “Eragiketa baliokidetasun errekguan edo araubide erraztuan”, marka bat gaituko da, non lehenetsitako balioa “N” den. “S” markatuz gero, zergadun batek araubide erraztuan edo baliokidetasun errekguaren araubidean egindako faktura bat izango da. Kasu horretan jasanarazitako BEZaren kuotak ez dauka eraginik BEZaren aitorpenean. Gainera, PFEZaren ondorioetarako, BEZaren kuota horrek haren jardueraren diru sarrera handiagoa dakar.

Adibidez, baliokidetasun errekguaren araubidean dagoen enpresaburu batek zerga oinarria (BEZ) duen sendagai baten faktura bat egin du, 100 eurokoa, eta BEZaren kuota 4 eurokoa da.

Nola sortu behar da TicketBAI fitxategia kasu horretan?



“51 Baliokidetasun errenerguko eragiketak” gakoa markatu behar da, “BEZaren araudiak eta zerga garrantzia duten eragiketak” eremuan.

Fakturaren banakapenean, zenbateko eta balio hauek bete behar dira:

- Zerga oinarria: 100
- Zerga tasa: 4.
- Zergaren kuota: 4.
- Baliokidetasun errenergua mota: 0.
- Baliokidetasun errenergaren kuota: 0.

Baliokidetasun errenergaren edo araubide erraztuaren eragiketa: S. Marka horrek esan nahi du BEZaren kuota ez dela zergaren likidazioaren atal, eta, beraz, jarduera ekonomikoaren sarreratzat hartzen da PFEZaren ondorioetarako.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.14 NOLA ERREGISTRATU BEHAR DA BALIOKIDETASUN-ERREKARGUAN DAGOEN BAINA DOKUMENTU BEREAN BEZAREN ARAUBIDE OROKORRA APLIKATZEN ZAIEN ONDASUNAK FAKTURATZEN DITUEN ZERGADUN BATEK EGINDAKO FAKTURA?

Honako erantzun hau aurreko galderaren erantzunaren jarraipena da, faktura berean, baliokidetasun errenergaren araubideari lotutako enpresaburu batek araubide hori aplikatzen duten eragiketak eta araubide orokorreko beste eragiketa batzuk dokumentatzen direnean.

Adibidez, baliokidetasun errenergaren araubidean dagoen enpresaburu batek 100 euroko zerga oinarria eta 10 euroko BEZaren kuota duten pastelen salmenta faktura bat (baliokidetasun errenergaren araubidea aplikatuta) eta ogiaren salmenta faktura bat (araubide orokorra aplikatuta, hornitzaileei erosi baitie ogi masa izoztua, eta ondoren laberatu, saltzeko ogia eskuratuz), jaulki du.



Bi eragiketak erregistratzen dituen TicketBAI fitxategian, “51 Baliokidetasun errekguko eragiketak” gakoa markatu behar da.

Fakturaren banakapenean, zenbateko eta balio hauek bete behar dira:

a) Pastelak saltzeagatik (baliokidetasun-errekarguaren araubidea aplikatzea):

- Zerga oinarria: 100.
- Zerga tasa: 10.
- Zergaren kuota: 10.
- Baliokidetasun errekgu mota: 0.
- Baliokidetasun errekguaren kuota: 0.

Baliokidetasun errekguaren edo araubide erraztuaren eragiketa: S. Marka horrek esan nahi du BEZaren kuota ez dela zergaren likidazioaren atal, eta, beraz, jarduera ekonomikoaren sarreratzat hartzen da PFEZaren ondorioetarako.

b) Ogia saltzeagatik (ez da aplikatzen baliokidetasun errekguaren araubidea, araubide orokorra baizik):

- Zerga oinarria: 100.
- Zerga tasa: 4.
- Zergaren kuota: 4.
- Baliokidetasun errekgu mota: 0.
- Baliokidetasun errekguaren kuota: 0.

- Baliokidetasun errekguaren edo araubide erraztuaren eragiketa: N. Marka horrek esan nahi du BEZaren kuota badela zergaren likidazioaren atal, eta, beraz, ez da jarduera ekonomikoaren sarreratzat hartzen PFEZaren ondorioetarako.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)



15.15 NOLA ERREGISTRATU BEHAR DA BEZAREN ONDORIOETARAKO ARAUBIDE ERRAZTUAN DAGOEN ZERGADUN BATEK EGINDAKO FAKTURA BAT?

Enpresaburuek araubide erraztuan jaulkitako fakturetarako, “52 Araubide erraztuko eragiketak” gakoa erabili behar da, “BEZaren araudien eragiketak eta zerga garrantzia duten eragiketak” eremuan.

Gako honen helburua da azken kontsumitzaile bati BEZa jasanarazten dioten fakturak identifikatzea, baina, enpresaburu batek araubide erraztuan jaulkitzen dituenek, ez dira zergadun horien autolikidazioetan jaso beharko sortutako BEZaren kuota, sortutako BEZa araubide honetarako ezarritako zeinu, indize eta moduluen aplikazioaren bidez kalkulatzeko baita. Ildo horretan, azken kontsumitzaileari jasanarazitako BEZaren kuota horiek diru sarrera handiagoa ekarriko diote enpresaburuaren jarduerara ekonomikoari, PFEZren ondorioetarako.

Horretarako, fakturaren banakapenean, “Eragiketa baliokidetasun errekguan edo araubide erraztuan” izeneko marka bat gaitzen da, non lehenetsitako balioa “N” den. “S” markatuz gero, zergadun batek araubide erraztuan edo baliokidetasun errekguaren araubidean egindako faktura da. Kasu horretan jasanarazitako BEZaren kuotak ez dauka eraginik BEZaren aitorpenean. Gainera, PFEZaren ondorioetarako, BEZaren kuota horrek bere jardueraren diru sarrera handiagoa dakar.

Adibidez, araubide erraztuko enpresaburu batek 100 euroko zerga-oinarria eta 21 euroko BEZaren kuota duen ondasun baten faktura egiten du. Nola sortu behar da TicketBAI fitxategia kasu honetan?

“52 Araubide erraztuko eragiketak” gakoa markatu behar da, “BEZaren araudien eragiketak zerga garrantzia duten eragiketak” eremuaren barruan.

Fakturaren banakapenean, zenbateko eta balio hauek bete behar dira:



- Zerga oinarria: 100.
- Zerga tasa: 21.
- Zergaren kuota: 21.
- Baliokidetasun errekgaru mota: 0.
- Baliokidetasun errekgaruaren kuota: 0.
- Baliokidetasun errekgaruaren edo araubide erraztuaren eragiketa: S. Marka horrek esan nahi du BEZaren kuota ez dela zergaren likidazioaren atal, eta, beraz, jarduera ekonomikoaren sarreratzat hartzen da PFEZaren ondorioetarako.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.16 ZER EGOERATAN ADIERAZI BEHAR DA GAKO BAT BAINO GEHIAGO TICKETBAI FITXATEGIAN “BEZAREN ARAUDIEN ERAGIKETAK ETA ZERGA GARRANTZIA DUTEN ERAGIKETAK” EREMUAN?

Oso ohikoa ez bada ere, gerta daiteke TicketBAI fitxategi berean “BEZaren araubideen eragiketak eta zerga garrantzia duten eragiketak” eremuan gako bat baino gehiago dokumentatu behar izatea, faktura berean BEZaren araubide desberdinak dituzten hainbat eragiketa dokumentatzen direnean, nahiz eta eragiketa guztiak elkarren artean bateragarriak ez izan, eskemen baliozkotzeetan zehazten den bezala.

Adibidez, hainbat gako erabiliko dira “BEZaren araubide bereziak eta zerga garrantzia duten eragiketak” eremuan, honako egoera hauetan:

- Subjektu pasibo batek faktura berean dokumentatzen duenean erabilitako ondasunen, arte objektuen, zaharkinen eta bilduma objektuen araudi berezia aplikatzen zaion ondasunen emate bat (03 gakoa), BEZaren Legearen 135. artikulua jasotako baldintzak betetzeagatik, eta BEZaren araubide orokorrari lotuta dagoen ondasunen beste emate bat (01 gakoa), ondasunak entregatzeak lehen aipatutako baldintzak betetzen ez dituelako edo subjektu pasiboak araubide bereziari uko egin diolako.



- Kutzaren irizpideari atxikitako subjektu pasibo batek faktura berean BEZaren araubide berezi horri atxikitako eragiketa bat dokumentatzen duenean (07 gakoa), bai eta BEZaren Legearen 136. artikulua araberak kanpo geratzen den eragiketa bat ere, salbuetsitako ondasun-emate bat delako (01 gakoa).

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.17 ERAGIKETA EZ-ZERGAPENEN XEHAKAPENEAN 4 GAKO DAUDE; HAIEN ARTEAN, IE GAKOA (ATZERRIKO ZERGA) ETA RL GAKOA (LOKALIZAZIO ARAUAK). ZEIN DA ALDEA? NOIZ ERABILI BEHAR DA HAIETAKO BAKOITZA?

2024-01-01era arte, eragiketa ez-zergapekoak lokalizazio arauengatik RL kodearekin erregistratzen ziren. Data horretatik aurrera, eragiketa ez-zergapekoek bi gako izan ditzakete:

- IE gakoa, zeina erabili beharko baita eragiketa ez-zergapekoetan ZALen, lokalizazio arauak direla eta, baina haien fakturan atzerriko zerga, IPSI/IGIC, edo EBko beste estatu kide bateko BEZa jasanarazten denean, eta, gainera, eragiketen araubide gakoa 54 den guztietan (Kanarietan, Ceutan edo Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik – zeharkako zergeri dagokienez- egindako eragiketak).
- RL gakoa: gainerako eragiketetarako erabiltzen jarraitu behar da, eragiketa horiek ez-zergapekoak badira lokalizazio arauak direla eta.

Beraz, IE gakoa erabili beharko da atzerrian ordaindu beharreko zerga baten kuota efektiboa fakturan bertan sartzen denean.

1. adibidea: Frantzia emandako osasun zerbitzuak, hartzailea enpresa bat denean

Enpresaburua Araban bizi den pertsona fisiko bat da, eta tartean behin Baionako enpresa batera (Frantzia) joaten da, osasun zerbitzuak emateko.



Kasu horretan, eragiketa hori ez-zergapekoa da zergaren aplikazio lurraldean, eta Frantzian zergapetzen da. Hala ere, salbuetsita dagoen zerbitzu bat denez, RL gakoa erabili beharko da, haren fakturan ez baita inolako kuotarik jasanarazten.

2. adibidea: Frantziako partikular baten higiezinan obrak egiteko zerbitzuak

Eragiketa Frantzian egiten dela ulertzen da, baina, aurreko kasuan ez bezala, zerbitzua ematen duenak Frantziako BEZa jasanarazi behar du jaulkitako fakturan. Hala bada, IE gakoa erabili beharko du.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.18 NOLA BETE BEHAR DIRA FAKTURAREN XEHETASUN LERROAK, XEHAKAPENA ETA ZENBATEKOA, GUZTIRA, BEZAREN ERAGIKETA EZ-ZERGAPEKO BAT ATZERRIAN ZERGAPETZEN BADA (IE GAKOA)?

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira beti XML fitxategian.

Xehetasun lerroen eremuak honela bete beharko dira:

- Unitateko zenbatekoa: atzerriko zergarik gabe.
- Zenbatekoa, guztira: atzerriko zergarekin.
- Deskontua, egonez gero: atzerriko zergarik gabe.

Horrez gain:

- Fakturaren zenbatekoak, guztira, zenbateko osoa adierazi behar du, atzerriko zerga barne dela.
- Fakturaren xehakapen zenbatekoak atzerriko zergarik gabe adierazi behar du zenbatekoa.



Adibidea: Fakturan atzerriko zerga jasanaraztea

Arabako enpresa batek eragiketa bat egiten du Suitzako enpresa batekin, eta fakturan BEZaren pareko zerga bat jasanarazi behar du, % 7,7ko tasa aplikatuta eta 1.000 euroko aleko prezioan.

- Aleko zenbatekoa: 1.000 euro
- Lerroaren zenbatekoa, guztira: 1.077 euro.
- Fakturaren zenbatekoa, guztira: 1.077 euro.
- Xehakapenaren zenbatekoa, guztira, ez-zergapekoa denean IEren ondorioz: 1.000 euro.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)

15.19 NOIZ ERABILI BEHAR DA VT GAKOA (HIRUGARRENEK EGINDAKO SALMENTA) ERAGIKETA EZ-ZERGAPEKOEN XEHAKAPENEAN? NOLA BETE BEHAR DIRA FAKTURAREN XEHETASUN LERROAK, XEHAKAPENA ETA ZENBATEKOA, GUZTIRA?

VT gakoa erabili behar da faktura berean jasotzen badira jaulkitzailearen beraren eragiketak eta hark egindako beste batzuk, baldin eta ez badute eraginik hark pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatik, sozietateen gaineko zergarengatik edo balio erantsiaren gaineko zergarengatik aurkezten duen aitorpenean. Ohiko kasu bat garraio txartelen karga izaten da, bai eta zigiluak edo ordejarriak ere.

Xehetasun lerroen eremuak honela bete beharko dira:

- Aleko zenbatekoa: BEZa barne, halakorik badu.
- Zenbatekoa, guztira: aleko zenbatekoarekin bat etorri behar du.

Horrez gain:



- Fakturaren zenbatekoak, guztira, adierazi behar duena da zenbatekoa, guztira; hau da, xehetasun lerroen zenbateko guztien batura.
- Xehakapenaren zenbatekoak BEZa ere adierazi behar du (halakorik badu)

1. adibidea: VT gakoko eragiketa

Eragiketa batean bi artikulua saltzen dira; haietako bat aleko 10 eurokoa da eta % 21eko BEZa aplikatzen zaio; bestea, posta zigilu bat da (15 euroko zenbatekoa).

Xehetasun lerroak honela bete beharko dira:

PRODUKTUA	KOPURUA	ALEKO ZENBATEKOA	ZENBATEKOA, GUZTIRA
1. artikulua	1	10	12.1
Zigiluak	1	15	15

Fakturaren zenbatekoa, guztira, 27,10 €-koa izango da.

Xehakapenei dagokienez:

- Salbuetsi gabeko zergapekoaren blokean, zergapekoa baina salbuetsi gabea den artikuluari dagokion informazioa sartuko da (oinarria eta kuota: adibidean $10+2.1=12.1$).
- VT kausaren ondoriozko zergapekoaren blokean, posta zigiluen zenbatekoa, guztira, adieraziko da (15 euro).

[Itzuli TICKETBAI XML](#) · [BANAKAPENA](#)



15.20 TICKETBAI FITXATEGIA BIDALI BEHAR AL DA FAKTURAN ERAGIKETA BAKAR BAT BADAGO VTREN EZ-ZERGAPEKO GAKOAREKIN (HIRUGARRENEK EGINDAKO SALMENTA)?

Ez da beharrezkoa faktura jaulkitzea VT xehakapen eragiketa bakarra dokumentatzen bada; hala ere, faktura jaulkitzen bada, TicketBAIko XML fitxategia igorri behar zaio Zerga Administrazioari.

[Itzuli TICKETBAI XML · BANAKAPENA](#)



16 TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA

16.1 NOLA KATEATZEN DA AURREKO FAKTURA?

TicketBAI sistemak badakar faktura bakoitzak aurreko fakturarekin identifikatzea.

Kateatzeko betekizuna betetzea fakturazio sistemaren funtzionamendu moduaren arabera da:

- Gailu edo fakturazio gune berak hainbat serietako fakturak jaulkitzen baditu, kateatzearen betekizunak igorritako aurreko faktura identifikatu behar du, gailu edo fakturazio gune horren barne seriea edozein dela ere (adibidez, serie arrunt bateko faktura baten aurretik beste serie bateko faktura zuzentzaile bat jar daiteke).

- Fakturazio gailu bat baino gehiago baldin badago, eta horiek gailu bakoitzerako serie espezifiko baten barruan soilik jaulkitzen badituzte fakturak, kateamendua serie bakoitzaren barruan gertatzen da.

- Fakturazio sistema fakturazio serieak eta zenbakiak sortzen dituen sistema zentralizatua bada, kateamendua sistemak jaulkitako azken fakturari dagokio.

Dena den, kateamendua beti zergadun berari lotuta egongo da; beraz, gailu berak hainbat zergadunen fakturak jaulkitzen baditu, zergadun horrek berak egindakoa hartuko da aurreko fakturatzat.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)

16.2 NOLA KATEATZEN DA URTEAN EGITEN DEN LEHEN FAKTURA?

Fakturak urte batean eta bestean igortzen dituen gailua berbera bada, aurreko urtean jaulkitako azken fakturarekin kateatu behar da, nahiz eta serie desberdinekoak izan.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)



16.3 ZER KASUTAN DAGO JUSTIFIKATUTA AURREKO FAKTURAREKI KO KATEAMENDUA EZ EGITEA?

Justifikatutako kasu batzuetan ezinezkoa da aurreko fakturarekin kateatzea, besteak beste:

- Gailu berri baten lehen faktura jaulkitzen denean.
- Zergadunaren lehen faktura jaulkitzen denean.
- Gailua apurtzen denean eta beste gailu batez ordeztu behar denean.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)

16.4 ZER ONDORIO DITU KATEATZEKO GARAIAN FAKTURAZIO SOFTWAREAN ALDAKETAK EGITEAK?

Kateatzearen baldintza betetzeko, aurreko softwarearen kateatze datuak lortu ahal izango dira software berriarekin jaulkitzen diren fakturetarako. Softwarea aldatu arren, TicketBAI fitxategiak sisteman gordeta egongo dira, eta, horrela, jaulkitako azken fakturaren informazioa jaso ahal izango da.

Bakar-bakarrik teknikoki ezinezkoa edo kostu handikoa bada fitxategi berriak sortzea zergapekoak emandako aurreko fakturaren datuekin, justifikatuta egongo litzateke TicketBAI fitxategia bidaltzea aurreko faktura identifikatu gabe.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)

16.5 NOLA ERAGITEN DIO KATEAMENDUARI HAINBAT APLIKAZIO ERABILTZAK?

Aplikazio desberdinak erabiliz gero, aurreko fakturarekin kateatzea erabilitako aplikazio bakoitzaren arabera izango da, eta aplikazio bakoitzak serie bereizia izan beharko du.



Aurreko fakturarekiko kateatzea hainbat aldagairen arabera alda daiteke, baina, nolanahi ere, zergapeko bakoitzari eta aplikazio bakoitzari lotuta dago, edo, hala badagokio, erabilitako gailu bakoitzari.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)

16.6 KONTUAN HARTZEN AL DIRA BALIOGABETUTAKO FAKTURAK KATEATZEKO?

Bai.

Fakturen deuseztapena aurreikusten da baldin eta, akats baten ondorioz, faktura bat ondasuna eman edo zerbitzua eman gabe egiten bada, hau da, eragiketa inoiz egin ez bada eta deuseztatzea bidezkoa bada (DGT V0611/2011-3-11).

Kateatzearen ondorioetarako, ordea, baliteke ezeztatutako faktura aurre-aurrekoa izatea; izan ere, faktura jaulki eta berehala, edo geroago, deuseztatu den fakturari dagokion TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategia bidali egin behar da, eta aurreko faktura gisa balio du kateatzearen ondorioetarako.

Gainera, baliteke gero deuseztatzen den fakturaren jaulkipenaren eta ondoko deuseztapenaren artean faktura baliodunak jaulki izana; beraz, geroago deusezta daitekeen faktura bat aurreko fakturatzat har daiteke kateatzearen ondorioetarako.

[Itzuli TICKET BAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)

16.7 SERIEEN ARABERAKO KATEAMENDUA. FAKTURA ERRAZTUAK ETA FAKTURA OSOAK. SERIEA, HARTZAILEKO FAKTURAZIOAREN ARABERA.

Zehaztapen teknikoetan ez da argitzen kateatzeko modua edo irizpidea, fakturazio sisteman erabiltzen den arkitektura informatikoaren arabera alda daitekeelako.



TicketBAIn, faktura bakoitzak aurreko faktura identifikatu behar du. Kateatzeko baldintza betetzea, beraz, fakturazio sistemaren funtzionamendu moduaren arabera da. Gailu berak serie desberdinetako fakturak jaulkitzen baditu, kateatzeko betekizunak igorritako aurreko faktura identifikatu behar du, seriea edozein dela ere (adibidez, serie arrunt bateko faktura baten aurretik beste serie bateko faktura zuzentzaile bat egon daiteke). Hala ere, fakturazio gailu bat baino gehiago baldin badago, eta horiek gailu bakoitzerako serie espezifiko baten barruan soilik jaulkitzen badituzte fakturak, kateamendua serie bakoitzaren barruan gertatzen da, fakturazio-sistemak horrela funtzionatzen baitu.

Beraz, seriea ez da erabakigarria kateatzeko, gailu berak faktura erraztuak eta faktura osoak igortzen dituenean, aurreko faktura serie desberdinekoa izan baitaiteke. Hala ere, irizpide baliagarria eta egokia da fakturak seriearen arabera kateatzea, baldin eta zergapekoak faktura jaulki behar badu; izan ere, nahitaezkoa da kateatzea beti zergapeko berari badagokio, serie desberdin bat ezartzearen arrazoia fakturazioa hartzaile edo hirugarren baten arabera egitea bada.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)

16.8 BIRUS EDO ERASO INFORMATIKO BAT GERTATUZ GERO, ETA INFORMAZIOA SEGURTASUN KOPIA BATEN BIDEZ BERRESKURATUZ GERO, ZER EGIN BEHAR DUT?

Horregatik, eskeman aukerakoa bezala agertzen da TicketBAI sistemari atxikitako XML fitxategiei, fakturei edo bezeroei buruzko datuak berreskuratu behar badira, igorritako azken fakturari buruzko XML fitxategiaren datuak kontsultatu ahal izango dira beti Ogasunaren aplikazioan (bezeroaren datuak barne).

Hala ere, ohiz kanpoko bada ere, fakturazio sistema suntsitu bada edo berreskurazina bada, eta sortutako azken fakturan sartzerik ez badago, beste fakturazio serie bat egin beharko da, eta salbuespeneko kasu horretan ez da eskatuko aurreko fakturarekin kateatzea.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus



Lehen faktura ezin da kateatu; beraz, faktura horretan ez da aurreko faktura elementua agertuko.

[Itzuli TICKETBAI XML TICKETBAI AZTARNA atalera](#)



17 TICKETBAI KENKARIA

17.1 ZER DA TICKETBAI KENKARIA? ZER SUSTATZEN DU?

TicketBAI kenkariak TicketBAI sistema ezartzera behartuta dauden zergadunen PFEZaren edo Sozietateen gaineko Zergaren kuota murriztea ahalbidetzen du, TicketBAI sistema ezartzeko beharrezkoak diren eta 2020, 2021, 2022 eta 2023 urte naturaletan egiten dituzten inbertsio eta gastuen % 30 (% 60, TicketBAI betebeharra borondatez aurreratzen bada, derrigortasun datari dagokionez, gutxienez, hilabete lehenago). Beraz, zergapekoari TicketBAI betebeharra betetzea nahitaezkoa izan aurretik egin behar da inbertsioa edo gastua.

Zehazki, TicketBAI sistemara behartuta dauden zergadunek kuota osoan kenkari bat aplikatzeko eskubidea izango dute, 2020, 2021, 2022 eta 2023 urte naturaletan egindako inbertsioen eta gastuen zenbatekoaren % 30ekoa, ondoren zehazten den moduan:

- a) Tresneria eta terminalak erostea, dagokien softwarearekin eta periferikoekin batera, sistema honen betebeharrak bete ahal izateko.
- b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 122 bis artikulua 2. apartatuaren b) letran aipatzen diren ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategiekin lotutako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den softwarea eskuratzea, sinatzea, entregatzea, eguneratzea edo berritzea.
- c) Ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategiekin lotutako betebeharrak betetzeko inplementatu beharreko sinadura elektronikoko softwarea eskuratzea, harpidetzea, entregatzea, eguneratzea edo berritzea, softwarea instalatzeko eta ezartzeko gastuak barne.



Lehen adierazi bezala, TicketBAI betebeharra borondatez betetzen bada, zergadunari dagokion derrigortasun data baino hilabete lehenago, gutxienez, muga batzuk handituko dira, eta kenkariaren ehunekoa 30etik 60ra igoko da.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.2 ZER EPETAKO INBERTSIOEK ETA GASTUEK BALIA DEZAKETE TICKETBAI KENKARIA?

2020an, 2021ean, 2022an eta 2023an egindako inbertsioek eta gastuek soilik emango dute TicketBAI kenkarirako eskubidea, zergadunaren zergaldia edozein dela ere. Hala ere, TicketBAI betebeharra betetzea nahitaezkoa den data baino lehen egin beharko dira inbertsioak eta gastuak, gastuen ordainketa geroago egin arren.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.3 ZER GASTU ETA INBERTSIO SUSTATZEN DITU TICKETBAI KENKARIAK? NOIZ JOTZEN DA GAUZATUTZAT GASTUA EDO INBERTSIOA? NOIZ EGITEN DA EDO ORDAINTZEN DA? ZERGADUNAREN GASTUA HARPIDETZA BIDEZKO ALDIZKAKO ORDAINKETAREN MODALITATEAN SOFTWARE BAT EZARTZEARI BADAGOKIO, GASTU HORIEK ERE PIZGARRIA JASO AL DEZAKETE?

Kenkariak 2020, 2021, 2022 eta 2023 urte naturaletan TicketBAI sistema ezarri ahal izateko egindako jardueri dagozkien gastuak eta inbertsioak bakarrik barruratzen ditu, hau da, zergadunak sistema 2022ko uztailaren 1etik aurrera edo nahitaez bete behar den datatik aurrera bete ahal izateko behar-beharrezkoak diren software eta hardwareko baliabide materialak eta ekipa informatikoak izateko bakarrik erabiltzen direnak. Ondorio horietarako, zenbateko horiek



noiz ordaintzen diren ez da garrantzitsua, kontuan hartu beharko dena sistemara egokitzeko behar den inbertsioa eta/edo gastua noiz egiten den.

Bestalde, kenkaria egiaztatzeko aurkeztutako agirietatik, era berean, ondorioztatu beharko da 2020-2023 urte naturaletan zergadunean sistema ezartzeko egindako beharrezkoak diren gastu eta inbertsio horiei dagozkiela.

Baldintza horiek eskatuko dira, halaber, harpidetza bidezko ordainketa baliatuta, negozioek egiten duten fakturazioa aintzat hartuta.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.4 ZER ZERGADUNEK APLIKA DEZAKETE TICKETBAI KENKARIA?

TicketBAI kenkaria aplikatu ahal izango dute jarduera ekonomiko bat garatzen duten pertsona fisiko zergadunek eta pertsona juridikoez eta sozietateen gaineko zergaren zergapeko gainerako erakundeek, 2020tik 2023ra bitarteko urte naturaletan TicketBAI sistema ezartzeko betebeharra betetzeko egiten dituzten inbertsio eta gastuengatik. Bereziki, eta salbuespen gisa, kenkari hori sortu eta aplikatu ahal izango dute ondare sozietatetzat hartzen diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek.

Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daudelako (37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua edo lege mailako beste manu bat) edo 35/2021 Foru Arauak (Fundazioak) araututako zerga-araubidearen mende daudelako TicketBAI betebeharra bete behar ez dutenek ezin izango dute TicketBAI kenkaria aplikatu.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



17.5 SOZietateen gAineko zergAn, zein bAlDintzAtAn APlIkA dAiteke ticketbAI kEnkARIA? ERAGITEN AL DIO GUTxiENEko zERGA-ORDAinkETAREn ARAUAK? ERAGITEN AL DIOTE KUOTA LIKIDOAREn % 35Eko EDo % 70Eko MUGEk?

TicketBAI kenkaria kuota osoari aplikatzen zaion kenkaria da, eta, beraz, kuota likidoa Ora murriztu dezake. Hau da, gutxieneko tributazioaren arauak ez du kenkari horren aplikazioa mugatzen.

Era berean, kenkari horren aplikazioari ez diote eragiten kuota likidoaren gaineke kenkarietarako aurreikusitako aplikazio-mugak (kuota horren % 35 edo % 70). Aldiz, zergaren kuota efektiboa kalkulatzeko inbertsioengatiko eta gastuengatiko kenkari gehienek aplikazioa mugatzen dute.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.6 ZEIN DA TICKETBAI KENKARIA APlIKATZEko GEHIENEko EPEA?

Kenkaria sortzen den urtea eta hurrengo 30 urteak. Hau da, zergadunaren kuota nahikoa ez izateagatik onura fiskal hori sortzeko aldian kendu ez diren TicketBAI kenkariaren zenbatekoak berehalako eta segidako hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



17.7 TICKETBAI KENKARIA BALIATZEKO ESKUBIDEA EMATEN DUTEN GASTU ETA INBERTSIO BERDINAK DIRELA ETA, JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ZENBATU BEHAR DIRA?

Bai. Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, inbertsio eta gastu horiek egiteko jasotako dirulaguntzen gainean kenkari hori aplikatzen duen erakundeari edo zergadunari aplikatu beharreko karga tasaren eta 100en arteko aldearen ondoriozko ehunekoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa kendu beharko da.

Adibidez: Sozietateen gaineko Zergan % 20ko zerga-tasa ordaintzen duen mikroenpresa izanik, inbertsioa 1.500 eurokoa izan bada eta 300 euroko dirulaguntza jaso badu, kenkariaren oinarria honako hau izango da: $1.500 - (\% 100 - \% 20) * 300 = 1.260$ euro.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.8 NORMALEAN, ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEAGATIK KENGARRIA EZ DEN JASANDAKO BEZAK EZ DU SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN KENKARIETARAKO ESKUBIDERIK EMATEN, NAHIZ ETA KONTABILITATEAN HAIEN ZENBATEKOA ONDASUN ETA ZERBITZU HORIEN EROSKETA PREZIOAREN BARRUAN EGON. GAUZA BERA GERTATZEN AL DA TICKETBAI KENKARIAREKIN?

Bai, halaxe da. TicketBAI kenkariaren oinarria kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko TicketBAI sistema ezartzeko beharrezkoak diren inbertsio eta gastuen erosketa prezioaren parte den jasandako BEZ ez-kengarria.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



17.9 TICKETBAI SISTEMA BETETZEKO ENPRESA BATEK EGITEN DITUEN BARRUKO GASTUEK ESKUBIDEA EMATEN AL DUTE TICKETBAI KENKARIA APLIKATZEKO?

Bai. Bai. TicketBAI kenkariak berariaz arautzen du ondasunak eta zerbitzuak hirugarrenei eskuratuz egiten diren gastu eta inbertsioei dagokien kenkariaren oinarria (adierazten du, funtsean, hitzartutako kontraprestazioa izango dela). Hala ere, TicketBAI sistema ezartzeko enpresak berak egindako inbertsio eta gastuek ere ematen dute kenkari horretarako eskubidea. Kasu horretan, kenkariaren oinarria finkatzeko, dagokion ondare elementuaren ekoizpenaren barne kostuari erreparatu behar zaio.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.10 NOLA EGIAZTATU BEHAR DA TICKETBAI KENKARIA?

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 101. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dira frogabideei buruzko arauak eta bitartekoak. Horretarako, Kode Zibilean eta Prozedura Zibilaren Legean ezarritako arauetara jotzen du. Bereziki, kenkariak lehentasunez dagokion fakturaren bidez justifikatu beharko dira.

Hala ere, kenkari horretarako eskubidea ematen dute, halaber, enpresak berak TicketBAI sistema ezartzeko egin dituen inbertsio eta gastuek. Kasu horretan, kenkariaren oinarria finkatzeko, dagokion ondare elementuaren ekoizpenaren barne kostuari erreparatu behar zaio, eta zergadunak frogabideak izan beharko ditu, benetan egin dela eta balorazio ekonomikoa egin dela egiaztatzeko.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



17.11 TICKETBAI KENKARIA EGIN AHAL IZATEKO, ZERGADUNAK BORONDATEZ JAULKI BEHAR DITU TICKETBAI FAKTURAK URTEAN?

Ez.

TicketBAI kenkariaren oinarria zergadunak egindako inbertsioak eta gastuak dira. Gastu eta inbertsio horiek 2020tik 2023ra bitarteko urte naturaletan egin diren, TicketBAI sistema ezartzea beharrezkoa denean betetzeko, zergadun horrek TicketBAI sistemarekin fakturak borondatez egin ala ez.

TicketBAI betebeharra ezartzea eta betetzea borondatez aurreratzen bada derrigortasun-datari dagokionez, gutxienez hilabete lehenago, kenkaria ehuneko 60koa izango da.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.12 TICKETBAI KENKARIA BATERAGARRIA AL DA GASTU ETA INBERTSIO BERDINETARAKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEAREKIN?

Bai. Hala ere, TicketBAI kenkariaren oinarria kalkulatzeko, kenkarirako eskubidea ematen duten inbertsioak eta gastuak egiteko jasotako dirulaguntzei kenkari hori aplikatzen duen erakundeari aplikatu beharreko 100en eta karga-tasaren arteko aldeari dagokion ehuneko aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa deskontatu beharko da. (ikus 17.7 galdera).

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



17.13 PIZGARRI FISKALEZ GAIN, BA AL DAGO ZUZENeko LAGUNTZARIK?

Bai, pizgarri fiskalak egongo dira, Arabako Foru Aldundiak emanda eta, segurutik, beste administrazio batzuek emanda (Eusko Jaurlaritza, udalak....), sektore edo fakturazio maila batzuetarako. Ogasun Sailak beste erakunde batzuei helarazi die gai hori.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.14 ZERTAN DATZA TICKETBAI BETEBEHARRA DERRIGORREZKO EPEA BAINO LEHEN BORONDATEZ BETETZEA BULTZATZERA BIDERATUTAKO KENKARIA?

Kenkari horrek zerga-onurak handitzen ditu, baldin eta borondatez aurreratzen bada betebeharra nahitaez ezarri baino hilabete lehenago gutxienez bete behar dela.

Horrela, 13/2021 Foru Arauan aurreikusitako kenkariak % 60raino igoko dira.

Adibidez: Adibidez: 2019an 45.000 euroko salmentak izan dituen zergaduna, TicketBAIri egokitutako fakturazio programarekin ordenagailu berri batean 1.200 euroko inbertsioa egiten duena.

Kenkariaren oinarria 3 kopuruetatik txikiena da:



		Kenkari arrunta	Borondatezko kenkaria (hilabete aurreratuta)
1	Inbertsioa	1.200	1.200
2	Gehienekoa beti	5.000	5.000
	Salmenten araberako muga:		
	2019ko salmenten %1	450	450
3	Salmenten % 1 txikiagoa bada da, onuragarriagoa den bat aplikatzen da	500	1.500
	Kenkariaren oinarriaren muga 3tan txikiena da	500	1.200
	Kenkariaren %	%30	% 60
	Kenkaria	150	720

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.15 ZERGA BATERAKUNTZAN ORDAINTZEN BADA ZERGA, NORK DU TICKETBAI KENKARIA APLIKATZEKO ESKUBIDEA? APLIKATZEN DIREN MUGAK SOZINETATE BAKOITZAK EDO TALDE OSOAK APLIKATZEN DITU?

37/2013 Foru Arauaren 83. artikulua arabera, talde fiskala zergaduntzat hartzen da, baina talde fiskala osatzen duten entitateak ere banakako zerga ordainketaren araubidetik eratorritako zerga betebeharrak bete beharko dituzte, zerga zorraren ordainketa izan ezik.

Taldea osatzen duten erakundeak dira, beraz, TicketBAI betebeharra bete behar dutenak eta, beraz, kenkaria sorrarazten duten inbertsioak eta gastuak egin behar dituztenak.



Beraz, kenkariaren oinarriaren muga kenkaria sortzen duten banakako erakundeek mugen baturak osatuko du, nahiz eta kenkaria benetan aplikatzen duena erakunde ordezkaria izan autolikidazio kontsolidatua aurkezteko unean (220 eredu).

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.16 KENKARIAREN OINARRIAK BADU MUGARIK?

Oro har, % **30eko** kenkari tasa aintzat hartuta, kenkariaren oinarria ezingo da izan honako zenbateko hauetatik txikiena baino handiagoa:

- 5.000 euro.
- 2019an amaitutako azken zergaldiari dagokion negozio bolumenaren zenbateko garbiaren % 1, baina, **gutxienez, 500 euro**.

Kenkaria % **60raino** handituta aplikatu daitekeenean, kenkariaren oinarria ezingo da izan honako zenbateko hauetatik txikiena baino handiagoa:

- 5.000 euro.
- 2019an amaitutako azken zergaldiari dagokion negozio bolumenaren zenbateko garbiaren % 1, baina, **gutxienez, 1.500 euro**.

Jarduera 2019. urtearen ondotik hasi bada, jarduera hori hasteko zergaldia hartuko da kontuan. Ondorio horietarako, negozio bolumena urtebetera igoko da zergaldia urte naturala baino laburragoa denean edo aldi horretan jarduera ekonomikoa hasi denean.

Kenkaria izateko eskubidea duten inbertsio eta gastuek zergaldi bat baino gehiago hartzen dutenean, kenkariaren oinarriaren gehieneko muga bakarra izango da guztientzat.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



17.17 NOLA KALKULATZEN DA KENKARIAREN OINARRIA, GUTXITZEN DUEN DIRULAGUNTZA BAT DAGOENEAN?

Kenkariaren oinarritik kendu behar da inbertsiora bideratutako dirulaguntzen zenbatekoa, inbertsioak egiten dituen zergaldian zergadunari dagokion zerga tasarekin zuzenduta.

Adibidez: nire zerga tasa % 24koa bada, kenkariaren oinarritik dirulaguntzaren % 76 kendu beharko da. $[\text{Dirulaguntza} \times (100 - 24)]$.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.18 ZER MUGA DITU TICKETBAI KENKARIAK?

PFEZean, bi muga izango ditu kenkariak:

- Zergadunaren jarduera ekonomikoen etekinei kuota osoan dagokien zatia. (Oinarri orokorraren kuota osoa $\times$ (EEJen etekinen batura / Zerga Oinarri Orokorra))
- Ekitaldiko kuota likidoaren zenbatekoa.

Sozietateen gaineko Zergaren zergadunen kasuan, ekitaldiko kuota efektiboa izango da muga.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)

17.19 NOLA JOKATZEN DA JARDUERAK ERRENTAK ESLEITZEKO ARAUBIDEAN DAUDEN ENTITATEEN TITULARTASUNAREN BIDEZ EGITEN DIRENEAN?

- Kenkaria eta mugak zergadunaren arabera aplikatzen dira, ez errentak esleitzeko araubidearen arabera.



- Kenkariaren oinarriaren eta kuotaren mugak zehazteko, zergadunari errentak esleitzen dituen entitatearen magnitudeak egotzi behar zaizkio, bertan duen partaidetza portzentajearen proportzioan. Gainera, bere kabuz beste jarduera bat egiten badu, bere negozio zifraren zenbateko garbiari gehitu beharko zaio errentak esleitzen dituen entitatean parte hartzeagatik dagokiona.

[Itzuli TICKETBAI KENKARIA atalera](#)



18 BIH - TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZEA

18.1 BIH BETEBEHARRA BETETZERA BEHARTUTA DAUDEN ZERGADUNEK TICKETBAIRI BURUZKOA INFORMAZIOA BIDALTZEA

TicketBAI betebeharra bete behar duen zergadunak, baldin eta abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduaren 9. Artikulua betez BIH betebeharra betetzera behartuta badago, honela bete behar ditu betebeharrak horiek:

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan eman beharreko informazioari dagokionez, eta abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 63. Artikuluaren arabera:

- a) TicketBAIri buruzko araudian ezarritako moduan eta epeetan bete beharko du TicketBAI betebeharra, araudi hori aplikatu beharreko faktura guztiei dagokienez, abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduaren bidez onetsitako I. eranskinean zehaztutako XML fitxategiaren eremuak betez. TicketBAI sistemaren bidez daturik bidaliz gero, betetzat joko dira BIH sistemari dagozkion eremu berdinak.
- b) BIH betebeharra betetzeko bete behar diren eremuak eta TicketBAI betebeharra betetzean bete ez diren eremuak 124/1993 Foru Dekretuaren 69 bis Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuari dagokionez ezarritako epeetan bete beharko dira, bitarteko hauetako edozein erabiliz:
 - Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zergadunen eskura horretarako eskuragarri jarriko den web inprimakiaren bidez.



- OSATU fitxategia bidaliz, abenduaren 23ko 774/2022 Foru Aginduren II. eranskinean arautzen diren OSATU zerbitzuaren betekizunen, prozeduraren eta zehaztaperen tekniko eta funtzionalen arabera.

[Itzuli BIH-TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZEA atalera](#)

18.2 TICKETBAI BETEBEHARRETIK SALBUETSITA DAUDEN ZERGADUNEK BIH-RA INFORMAZIOA BIDALTZEA

TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita dauden fakturei dagozkien XML fitxategiak 124/1993 Foru Dekretuaren 69 bis artikuluan araututako epeetan bidali behar dira, honako honen arabera: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko arauak eta zehaztaperen teknikoak ezartzen dituen abenduaren 26ko 703/2017 Foru Agindua.

Bikoiztasunik izan ez dadin, informazio bera ezin da inola ere bi bideetatik bidali.

[Itzuli BIH-TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZEA atalera](#)

18.3 INFORMAZIOA BIDALTZEA JASOTAKO FAKTUREN ERREGISTRO LIBURURA, BAI ETA INBERTSIO ONDASUNEN ETA EUOPAR BATASUNAREN BARRUKO ERAGIKETA JAKIN BATZUEN ERREGISTRO LIBURUETARA ERE, ETA FAKTUREN ERREGISTROEKIN LOTUTA DAGOEN, ZERGA GARRANTZIA DUEN ETA URTERO BIDALI BEHAR DEN INFORMAZIOA BIDALTZEA

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko arauak eta zehaztaperen teknikoak ezartzen dituen abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduan xedatutakoa bete beharko da honako hauei dagokienez: jasotako fakturen erregistro libururako eman beharreko informazioa; inbertsio ondasunen eta Europar Batasunaren



barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuetarako eman beharreko informazioa, eta fakturen erregistroekin lotuta dagoen, zerga garrantzia duen eta urtero bidali behar den informazioa.

[Itzuli BIH-TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZEA atalera](#)

18.4 TICKETBAI FITXATEGI BAT BIDALI ETA OSATU FITXATEGI BATEN BIDEZ OSATU DUEN ZERGADUN BATEK ALDAKETA BAT BIDALTZEA GERORA FITXATEGIAREN BIDEZ

Ez.

OSATU fitxategi bat baino gehiago bidaliz gero, azken bidalketak aurrekoa ordezkatu du. Hau da, jasotako azken OSATU fitxategiak izango ditu datu zuzenak.

[Itzuli BIH-TICKETBAI BETEBEHARRA BETETZEA atalera](#)



19 ZEHAPEN ARAUBIDEA

19.1 ZER EKINTZA EDO EZ-EGITE DIRA TICKETBAIZERGA ARLOKO ARAU HAUSTEAK?

Zergen arloko arau haustek dira honako hauek:

- a) Eragiketak fakturatzeko prozesuan TicketBAI software informatikoa erabiltzeko betebeharra ez betetzea.
- b) Eragiketak fakturatzeko sistema informatikoa, softwarea, artxiboak edo fitxategi informatikoak suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeta.

[Itzuli ZEHAPEN ARAUBIDE atalera](#)

19.2 ZER DA SISTEMA INFORMATIKOA SUNTSITZEA, EZABATZEA EDO MANIPULATZEA?

Honako hauetakoren bat eginez gero joko da pertsona batek esku hartu duela:

- Sistema informatikoa, artxiboak edota fitxategiak aldatzea.
- Sistemaren, artxiboen edo fitxategien gaineko kontrola edukitzea.
- Manipulatzeko beste baliabide batzuk izatea edo eskura jartzea.
- Manipulatzeko jarraibideak ematea.

Berez manipulatzeta ez diren baina aldatze prozesuaren parte diren eta prozesu hori gauzatzen duten beste pertsona batzuei lotuta egon daitezkeen egite edo ez-egiteak.

[Itzuli ZEHAPEN ARAUBIDE atalera](#)



19.3 ZER ZEHAPEN DAUDE AURREIKUSITA TICKETBAI ZERGA ARLOKO ARAUA HAUSTERIK IZANEZ GERO?

Eragiketak fakturatzeko prozesuan TicketBAI software informatikoa erabiltzeko betebeharra ez betetzearen ondoriozko zehapenak:

- a) Zehapena isun proportzionala izango da, oro har; hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko negozio zifraren % 20koa, eta gutxienez 20.000 eurokoa. Arau haustea egiten den lehen aldia ez bada, zehapena aurreko ekitaldiko negozio zifraren % 30eko isun proportzionala izango da, eta gutxienez 30.000 eurokoa.
- b) Ez-betetzea aldizkakoa bada, eragiketa bakoitzeko 2.000 euroko isuna ezarriko da. Isun horien batuketa ezingo da izan a) puntuko zenbatekoa baino handiagoa. Arau haustea egiten den lehen aldia ez bada, zehapena aurreko ekitaldiko negozio zifraren % 20ko isun proportzionala izango da, eta gutxienez 20.000 eurokoa.

Eragiketak fakturatzeko sistema informatikoa, softwarea, artxiboak edo fitxategi informatikoak suntsitu, ezabatu edo manipulatzearen ondoriozko zehapenak:

- a) Zergadunak berak suntsitzen, ezabatzen edo manipulatzeko baditu fakturatzeko sistema informatikoa, softwarea, artxiboak edo fitxategi informatikoak, zehapena aurreko ekitaldiko negozio zifraren % 20ko isun proportzionala izango da, eta gutxienez 40.000 eurokoa.

Arau haustea egiten den lehen aldia ez bada, zehapena aurreko ekitaldiko negozio zifraren % 30eko isun proportzionala izango da, eta gutxienez 60.000 eurokoa.
- b) Software garatzaileak edo TicketBAI zergaduna ez den beste pertsona batek esku hartzen badu, 40.000 euroko isun finkoa ezarriko zaie guztiei. Arau haustea egiten den lehen aldia ez bada, isuna 60.000 eurokoa izango da.



c) Zergadunak garatu badu softwarea eta hark egiten badu arau haustea, zehapena aurreko ekitaldiko negozio zifraren % 20ko isun proportzionala izango da, eta gutxienez 40.000 eurokoa.

[Itzuli ZEHAPEN ARAUBIDE atalera](#)



20 IRUZUR FISKALA PREBENITZEKO HERRITARREN LANKIDETZA

20.1 NOLA EMAN QR KODERIK EZ DUEN EDO QR OKERRA DUEN TICKET EDO FAKTURA BATEN BERRI?

Arabako araudiari lotutako zergadunek jaulkitako faktura eta ticket guztiek TicketBAI araudia bete behar dute eta QR kode bat izan, mugikorrarekin eskaneatu ahal izateko.

Zure fakturaren edo ticketaren QR kodea mugikorraren kamerarekin eskaneatzen baduzu, eta emaitza erakusten dizun pantailak mezu berde bat badu, esan nahi du QR kodea zuzena dela.

Aldiz, zure fakturaren edo ticketaren QR kodea mugikorraren kamerarekin eskaneatzen baduzu, eta emaitza erakusten dizun pantailak mezu gorri bat badu, esan nahi du QR kodea ez dela zuzena. Halakoetan, faktura edo ticket osoaren argazki bat bidali behar duzu, azter dezagun. Esteka honen bidez egin dezakezu: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/iruzur-fiskala-prebenitzeko-herritarren-lankidetza>

Ticketak ez badu QR koderik edo TBAI identifikatzailerik, bidali faktura edo ticket osoaren argazki bat, azter dezagun. Esteka honen bidez egin dezakezu:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/iruzur-fiskala-prebenitzeko-herritarren-lankidetza>

[Itzuli IRUZUR FISKALA PREBENITZEKO HERRITARREN LANKIDETZA atalera](#)

20.2 ZER EGIN TICKETIK EDO FAKTURARIK EMATEN EZ BADIDATE?

Jasotzen duzun ticketea edo fakturan ohiz kanpoko zerbait ikusten baduzu (QR koderik ez duela, QR kodea okerra dela, ticketik ematen ez badizute, etab.), modu anonimoan jakinaraz diezaiokezu Ogasunari, azter dezan. Esteka honen bidez egin dezakezu:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus



<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/iruzur-fiskala-prebenitzeko-herritarren-lankidetza>

Itzuli IRUZUR FISKALA PREBENITZEKO HERRITARREN LANKIDETZA atalera